ASTELEHENEKOA

goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA

2012-11-26
ASTELEHENA
387. ZENBAKIA
9. URTEA
1,10 EURO
GOIENA.NET
TOKIKOM

MIREN ARREGI

"Lehenengo aldia da kanpoko diseinatzaileekin lan egiten duguna"

Eñaut Aranbarri | Astore | 7

Eraso sexisten kontrako ahotsak nagusitu ziren atzo ibarrean | 5

Natra Oñatik ezin izan zuen bolada onarekin jarraitu | 23

Pirritx, Porrotx eta Marimototsek koloreztatu zuten Eskoriatza | 29

Ikurriñari omenaldia, eta legea beteta

Espainiako bandera Eskoriatzako udaletxean zintzilikatuta dago zapatuaz geroztik, beste 26 lurraldetako banderekin batera

Eskoriatzarrek ikurriña omendu zuten zapatu iluntzean; ondoren Beñat Herce alkateak Eskoriatzan bizi diren herritarren jaioterri guztietako banderak igo zituen, tartean Espainiakoa. | JOSETXO ARANTZABAL

Atez ateko bilketa sistemaren gaineko bulegoa zabalik gaurtik | 5

ASTEKO GAIA 2 | DEBAGOIENA 4 | ELKARRIZKETA 7 | IRITZIA 8 | HERRIAK 11 | KIROLA 22 | JAKINGAI 28 | KULTURA 29 | ZURE IRAGARKIAK 34 | TELEBISTA-IRRATIA 37 | ZORION AGURRAK 38 | JAIOTAKOAK 39 | DENBORA-PASAK 39

Azaroko sariak

Eta zuretako badira?

► Zoaz 21. orrialdera.

Epeleko ur-araztegia ia bete-betean dabil lanean

- Bakarrik Oñatiko urak eroatea falta da
- Leintz bailaran, erreka askoz garbiago doa
- Araztegi gehienek ez dituzten instalazioak ditu

Ahateak, Epeleko araztegiko bigarren dekantazioko uretan. Ur hori da errekara botatzen

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Epeleko araztegia, Deba ibaia garbitzeko azpiegitura garrantzitsuena, dagoeneko ia %100ean dabil lanean, nahiz eta oraindik martxan ipintzeko fasean dagoen. Zenbait xehetasun falta dira oraindik egiteko, baina Arrasate, Eskoriatza eta Aretxabaletako kolektoreetako urak normal-normal hartu eta garbitzen ditu. Falta den gauzarik garrantzitsuena Oñatiko urak hartzea da; horiek, orain, Zubillagako kolektorean batzen dira eta hantxe botatzen dira, horregatik dago erreka oraindik zikin Zubillagatik behera eta garbi handik gora, Oñatin.

Oraindik Epele egin zuen aldi baterako enpresa-elkarteko ordezkariak daude han, eta baita Gipuzkoako Uretako langileak ere. Konexioa egiten denean, Gipuzkoako Urak hasiko da kudeatzen. Sei ofizial, arduraduna eta analista ibiliko dira han.

Iker Ibarra arrasatearra izango da Epeleko araztegiko arduraduna eta dagoeneko badihardu han lanean. Bere esanetan, Arrasaten, Aretxabaletan eta Eskoriatzan dagoeneko igartzen da Epele martxan dela. Honela esaten du: "Kolektorea, lehen, araztegia dagoen lekuraino etortzen zen eta ur zikin guztia hemen botatzen zen. Kolektoretik gora, araztegia jarri aurretik hona ez da alde handirik igarriko, hor dagoeneko ez zirelako hondakin-urak errekara joaten. Arrasate inguruan ikusten da garbiago dagoela, eta ezkailuak ere ikusten dira". Eta araztegiaren lanaren eragina gero eta handiagoa izango da, izan ere, zenbat eta luzaroago egon erreka ur zikin barik, orduan eta gehiago etorriko da bere onera.

Edozein modutan, errekak ez du beti garbi itxura, ez dituelako bakarrik hondakin-urak hartzen: "Obrak-eta egiten baldin badabiltza, mendia ebakitzen… hori dena errekara doa. Bailara nola, erreka hala", laburtzen du Ibarrak.

Elorregiko tramuan "bai, igarriko da, zalantza barik" araztegiaren lana, Ibarraren esanetan. Elorregi inguruan eta Zubillagan doa ibaia zikinen, kiratsa dariola, egunaren arabera. Bada, araztegia zeharo martxan jartzen dutenean, hori konpontzen hasiko da.

Horrenbestez, bukatuta geratuko da Deba ibaiaren saneamendu sarea. Zortzi urte dira lehenengo kolektoreak ipintzen hasi zirenetik.

DATUAK

8.000

METRO KUBIKO EGUNERO

Epelek, orain, egunero 8.000 m3 ur tratatzen du; Oñatirekin, 10.000.

54.400

BIZTANLE

Lau herriko 54.400 biztanleren hondakin-urak tratatzeko gai da Epele.

Oxigeno bako garbiketa

Epeleko araztegia Sustapen Ministerioak egin du, interes orokorreko obra gisa kalifikatu zuelako, eta hainbat berezitasun ditu gainerako araztegiekiko.

Funtsean, urak beste edozein araztegik moduan tratatzen ditu: solidoak kendu; gero, hondakin txikiagoak –koipeak, xaboiak, denetariko kutsagarriak– kentzeko tratamendua egiten diote, hots, lehenengo aldiz dekantatzen dute, solidoak, pixkana-pixkana, hondoan gera daitezen. Gero, bigarren dekantazioa egiten zaio, materia organikoa kentzeko. Bukatzeko, ibaira bueltatzen da ura.

Hondakinak eurak ere tratatzen dira eta kutsagarria ez den lokatza mota bat ateratzen da handik. Horretarako, digestorean, tanke itxi baten, hondakin solidoen fermentazioa eragiten da eta lokatza lortzen da, eta azpi-produktua, gasa, ere bai. Hondakin solido horiek bi dekantazio-lerroetatik ateratakoak dira: batetik, lokatza primarioa –lehen dekantaziotik ateratakoa– eta lokatza sekundarioa –bigarren dekantazioan materia organikoa, fosfatoak, nitratoak… kenduta lortzen dena.

Bada, Epelek daukan berezitasun nagusia hauxe da: uren tratamendu biologikoa egin dezakeela eta, horren barruan, fase anaerobioa duela, hau da, oxigeno bakoa. Ezaugarri hori duen bakarra da Gipuzkoako Uren sarean.

Zehazki, urak daukan fosforo kontzentrazioa muga batetik azpikoa izan behar da, eta fosforoa "jaten" duten bakterioak uretan ugaritzeko eta horien bidez garbitzeko teknologia dago Epelen. Fase anaerobioan, oxigeno bakoan, bakterio horiek ugaritu egiten dira eta materia organikoa desegiten dute. Beste araztegi batzuetan ez dute oxigeno bako fase erreaktibo hori.

Lerro biologikoak gura adina ez badu garbitzen, ohiko sistema ere badago Epelen: kloruro ferrikoa gehitzea.

Oso instalazio ona

Instalazioei dagokienez, beste ezaugarri batzuk ere bereziak ditu Epelek: dekantadoreak, ura iragazteko instalazioak, lauki zuzen formakoak dira –Mekolaldekoak eta beste araztegi askorenak borobil handiak dira– eta lamela edo filtro antzeko batzuk dituzte azalera azpian. Ura hortik pasatzen da, gorantz, eta, filtroak diagonalak direnez, hantxe itsatsita geratzen da zikinkeria asko. Urari korrontea kentzen joaten zaio eta lokatza sortzen joaten da. Lauki zuzenak izanda, azalera txikiagoan

dena. | ARGAZKIAK: LEIRE KORTABARRIA

lan bera egiten duten instalazioak egin dira.

Badu ere araztegi gehienek ez duten beste azpiegitura berezi bat, flotadorea deitzen den tankea. "Oso garestia da eta araztegiek, normalean, ez dute halakorik izaten. Oso ondo funtzionatzen du", esaten digu Iker Ibarrak.

Flotadorea solidoen lerrorako erabiltzen da eta bigarren dekantazioan lortzen den hondakin organikoa loditzeko eta lokatza sortzeko balio du.

Flotadorean, bere izenak adierazten duen moduan, lokatza tankearen goialdera azaleratzen da, eta handik batu eta digestorera bidaltzen dute. Digestorean batzen da hori eta lokatza primarioa, oinarrian harea, koipeak, xaboiak eta halako kutsagarriak dituena.

Energiaren erdia sortzeko gai

Energia aldetik, beste ezaugarri garrantzitsu bat du Epeleko araztegiak: beretako elektraindarra sortzeko moto-sorkuntza instalazioa dauka. Araztegi gehienetan ez bezala, honakoan gasa aprobetxatu egiten da –gehienetan, bakarrik erre egiten da– eta, berau erreta, motor batek beroa sortzen du. Ur bero hori digestorea berotzeko erabiltzen da.

Beraz, elektraindarra plantarako erabiltzen da. Eta plantak bere burua elikatzeko gaitasun handia dauka: "Epelek egunero 6.500 kilowatt kontsumitzen ditu orduro, eta motorrak orduko 300 kilowatt sor ditzake. Beraz, 10 orduan martxan badugu, 3.000 kilowatt sortuko ditu, plantak behar duen erdia, gutxi gorabehera", azaltzen du Iker Ibarrak. Motor horrekin, digestorea bero edukitzea lortzen da. Oraingo fase honetan, martxan jartzekoan, 10 orduan izaten dute motorra lanean.

Bitsa, garbiketaren ondorioz

Epelen saneatzen duten ura parametro ofizialen arabera saneatuta dagoela egiaztatzen dute une oro. Horretan jarduten du Deiane Bengoa analistak hango laborategian. Egunero hainbat aldiz neurtzen du fase bateko eta besteko uraren kalitatea eta garbitasuna. Horrela, ibaira ur zikinik ez dela botatzen ziurtatzen dute.

Edozein modutan, depuratzen doan neurrian, batez ere bigarren dekantazioan, bukaera aldera, bitsa sortzen da uretan. Ez da kutsadura, prozesuaren ondorioa baizik eta, Iker Ibarrak dioen moduan, "araztegi askotan gertatzen da hori". Bere esanetan, apar horrek atentzioa eman dio Epele inguruan paseatzen zebilen bati baino gehiagori, eta hala komentatu izan diote, baina ez dago zertan kezkatu.

Etorkizunerako prestatuta

Epelekoa da Gipuzkoako Ur Kontsortzioaren sareko araztegi handienetariko bat. Ura garbitzeko hiru lerro ditu; konparaketa egitearren, Mekolaldeko araztegiak, Bergarako, Antzuolako eta Elgetako urak saneatzeko, bi dauzka. Oraingoz, lerro bakarra erabiltzen dute Eskoriatza, Aretxabaleta eta Arrasateko kolektoreetako urak saneatzeko, eta "ondo" dabiltza horrela. "Oñatiko urak datozenean, beharbada bigarren lerro bat erabiltzen hasi beharko gara", esaten du Iker Ibarrak.

Epeleko araztegiak Aretxabaleta, Eskoriatza, Arrasate eta Oñatiko herrietako urak hartzen ditu, hau da, 46.200 bat biztanlerenak, baina 70.000 biztanle ingururi dagokion ur kopurua da. Horri populazio baliokidea deitzen zaio. Izan ere, ez dira soilik etxeko ur zikinak; komertzioak, industriak... sortzen dituzten urak ere saneatzen ditu.

Bestalde, araztegiak etorkizun urrunera begira egiten dira, aurreikuspen handiarekin. Populazioak gora egingo duela jotzen da. Horregatik, 54.400 biztanle eta 85.765 biztanle baliokideko populazioarendako dago prestatuta. Gipuzkoako Uretako ordezkariak honela dio: "Diseinu aldetik, 800 litro segundoko baino gehiago tratatzeko gaitasuna dauka araztegiak, baina gaur egun 500 bat tratatzen ditugu". Orduro prozesatzen duen ur-emaria 240 litro segundokoa da, baina gehienez ere 850 litro prozesatu ditzake segundoko. Herriak banaka hartuta, hauek dira Epelera datozen ur-emariak: Eskoriatzatik, 21 litro segundoko (gehienez, 170 bat har ditzake); Aretxabaletatik, 34 litro segundoko (gehienez, 200 litro har ditzake segundoko); eta Arrasatetik, 134 litro segundoko (gehienez, 848 har ditzake). Herri horiek eta Oñati batera hartuta, 240 litro prozesatuko ditu segundo bakoitzeko, batez beste, baina 1.700 litro segundoko emaria ere har dezake Epelek.

Konpentsazio neurri gisa, Sustapen Ministerioak bidegorri tramu bat eginda utzi zuen, eta handik paseatzen duenak araztegiaren beste ikuspegi bat har dezake eta, bide batez, langileak agurtu; ohiko paseatzaile batzuk dagoeneko ezagunak dituzte.

ESANAK

"Arrasaten, agertu dira ezkailuak-eta ibaian; igartzen da araztegia martxan dagoela"

"Ibaia ez da soilik herriko ura; mendi-ebakitzea, obrak... dena islatzen da bertan"

IKER IBARRA
URAK KONTSORTZIOKO ORDEZKARIA



Iker Ibarra izango da araztegiko arduraduna.

Deiane Bengoak analizatzen du ura.

Flotadorea instalazio ezohikoa da, eta oso ondo dabil.

Oñatiko urak hartzeko gertu

Epele gertu dago Zubillagako kolektoreak batzen dituen urak hartzeko. Bi hodi handitik bidaliko dituzte ur zikinak araztegi barruraino. Trenbide zaharraren bidea jarraituko dute hodiek. Epelek, batez beste, 53,14 litro segundoko jasoko du Oñatitik, baina ia 500 litro segundoko emaria hartzeko gai da.

Oñatirekiko lotura konplikatua izan da. Hasieran, 2 kilometroko tuneletik bidali behar zen, baina azkenean, ponpatu egingo dute ura.

Banderak udaletxeko balkoian igotzen. | JOSETXO ARANTZABAL

"Inposizioaren" aurrean, kolore askotako banderak

Lurralde ezberdinetako 26 bandera udaletxean jarri aurretik Ikurriña omendu zuten eskoriatzarrek

MIRIAN BITERI | ESKORIATZA

Eskoriatzan bizi diren 26 nazionalitateetako banderak daude zapatu iluntzeaz geroztik udaletxeko balkoian eta osoko bilkuren aretoan. Espainiako epaitegiak legea betearaztera eta Espainiako bandera jartzera behartzearen ondotik dator hori.

Baina, banderak igo aurretik, ikurrina omendu zuten. Lehenengo, agurra, eta jarraian, ikurrin dantza bi dantzatu zituzten. Horren ondotik, Beñat Herce alkateak hartu zuen hitza. Aipatu zuen "herritartasunaren adierazle" banderak mendeetan gizakiok "harrotasunez" erakutsitako ikurrak izan badira ere, horiek lurralde bati "inposatzeko" nahia dela -eta, "ezbehar, guda eta heriotzak" eragin dituztela. Egun, bakoitzak bere herria eta ikurra zein den erabakitzeko eskubidea izan behar duela esan zuen, "inposiziorik gabe". Gertatutakoa eskoriatzarron "eskubide urraketa" dela eta honakoa aipatu zuen: "Gu euskaldunak gara, eta Euskal Herria libre eta independente izatea gura dugu".

Udala ahal dena egiten saiatu bada ere, eta "gogoz kontrakoa" bada ere, epaia onartzea erabaki dutela esan zuen; baina, Espainola bakarrik jarri beharrean, Eskoriatzan erroldatuta dauden guztien ikurrak jartzea erabaki dute. Etxeko balkoietan ikurrina jartzeko deia ere egin zuen.

ARITZ OIANGUREN
ESKORIATZARRA

"Egoera honetan egin daitekeen gauzarik sortzaileena egin du Udalak. Gainera hainbat kulturetakoak bizi garela onartzen da; tartean, espainiarrak".

GORKA PEREZ
ESKORIATZARRA

"Ondo dago Udalak hartutako erabakia; nik, dena dela, ez diot horri garrantzi handirik ematen. Balkoian ikurrik egongo ez balitz ere, ondo ikusiko nuke".

ARANTZAZU IDIGORAS
ESKORIATZARRA

"Egia esan, balkoia ez dago oso itxuroso, baina ez dago beste irtenbiderik; legeak esaten duena bete behar da. Ideia, dena dela, originala bada".

Sortu eratzeko metodologia parte-hartzailea "arrakasta" izaten dabil

Zapatuan Arrasaten, Bergaran, Oñatin eta Eskoriatzan egin zituzten; Antzuola falta da

M.B. | ARRASATE

Jende kopuruari dagokionez, Sortu alderdi politikoa eratzeko batzarrek aurreikuspenak bete dituztela, eta edukiei dagokionean, gainditu dituztela jakinarazi du Ibai Redondo ordezkariak.

Zapatu goizean Arrasaten, Bergaran, Oñatin eta Eskoriatzan egin zituzten. Sorturen definizioa eta oinarri ideologikoak izan zituzten berbagai. Horietan Sortu independentista, sozialista, feminista eta euskalduna izan behar dela "argi" geratu zela dio Redondok. Aldi berean, ingurumenaren defentsa eta munduko herrien arteko elkartasuna presente izan behar duela, baita Euskal Herriaren aniztasuna balorean jarri, gure kultura transmititu eta Euskal Herri kultur-anitzetik edan behar duela. Azkenik, Sortu barne demokrazian eta parte hartzean oinarrituko den bilgune politikoa izan behar dela ere agerian geratu zen.

Denera, 200 pertsonatik gora izan dira orain arte egindako batzarretan. Redondoren esanetan, metodologia parte-hartzaileek "erabateko arrakasta" izan dute. Horren harira, honakoa esan du: "Ugariak izan dira oinarri ideologikoen ponentziari egin zaizkion ekarpen eta emendakinak. Batzarretako eztabaiden maila oso altua izan da eta Debagoienetik Sortu eratzeko prozesua aberastu dugula esan dezakegu". Zapatuan Antzuolan egingo dute batzarra.

Arrasaten egindako batzarra. | JOSETXO ARANTZABAL

Hezkuntzak etorkizuna eraikitzeko duen garrantzia adieraziz hasi du urtea UNEDek

Etxeberriak hilobiak eta duintasuna izan zituen hizpide irekiera hitzaldian

ZURIÑE V.D.M. | BERGARA

Egubakoitz iluntzean eman zion Bergako UNEDek ofizialki hasiera ikasturte berriari. Martin Garitano UNED-Bergara Fundazioaren Patronatuko presidenteak, Iñaki Esparza ikastetxeko zuzendariak, Jesus Mari Elortza alkateak, Francisco Etxeberria doktoreak eta Daniel Pelayo UNEDeko erretoreordeak hartu zuten parte ekitaldian.

Ikasturtearen irekitze hitzaldia Francisco Etxeberriak eman zuen; Lege eta Auzitegi Medikuntza irakaslea da EHUko Medikuntza Fakultatean, eta *Hobiak ateratzen, duintasunak berreskuratzen* gaia jorratu zuen. Ikasgai magistral arin, garbi eta interesgarria eman zuen. Memoria historikoa ardatz, hobi komunak hartu zituen ahotan, eta Aranzadi eta EHUk eginiko lanaz egin zuen berba. Oro har, biktima guztiek hiru eskubide dituztela adierazi zuen: Egia, Justizia, eta Ordaina.

Etxeberria, Elortza, Garitano, Esparza eta Pelayo ekitaldian. | JOSETXO ARANTZABAL

Ikasle kopuruak gora

Ekitaldi instituzionalean, azken urteetan Bergarako UNEDen ikasle kopuruak gora egin duela adierazi zuten eta Garitanok gogorarazi zuen, krisi garaian hezkuntza ezinbestekoa dela etorkizuna eraikitzeko. Jarraian, ikasleei diplomak banatu zizkieten eta Musika Eskolako ikasleen emanaldiaz eta lunch batekin borobildu zuten ikasturte hasiera.

Iparragirrerendako 20 urteko kartzela zigorra berretsi dute

Marixol Iparragirre eskoriatzarraren aurkako 20 urteko kartzela zigorra berretsi dute epaile frantziarrek. 2010eko azaroan egin zioten epaiketaren sententziari errekurtsoa jarri eta hori onartu ostean, hilaren 12tik 22ra bitartean epaituko zuten, beste hainbatekin. Epaia eguenean bertan jakinarazi zuten epaileek.

Eskoriatzako Presoen Aldeko taldeak salatu du epaiketa "gogorra" izan dela, galdeketa "oso luzeekin". Gaineratu dute, Fresnes espetxean bakartuta egon dela. Eskoriatzarraren egoera salatzeko, elkarretaratzea Egin zuten eguenean; 50 lagunek parte hartu zuten.

Eraso sexisten kontrako ahotsak nagusi atzokoan

Emakumeen kontrako indarkeriarekin aski dela oihukatu zuten atzo ibarrean

ZURIÑE V.D.M. | DEBAGOIENA

Emakumeen Kontrako Indarkeriaren Aurkako Egunaren harira, urtero azaroaren 25a iristearekin batera, milaka pertsona irteten dira kalera, eta aurten ere, ez da salbuespena izan. Hala, ibarreko gizon eta emakume ugarik indarkeria sexistaren aurrean aski dela esan zuten tokian tokiko agerraldietan.

Emakumeak, subjektu aktibo

Tamalez, egunero, orduro eta minuturo emakumeren batek jasaten du tratu txarren bat munduan, dela fisikoa, dela psikologikoa. Egoera aldatu behar dela oihu egiteko eguna izan zen atzokoa.

Oñatin, esaterako, jende ugari elkartu zen domeka eguerdiko ekitaldian; Udaleko Berdintasun Sailak eta Andraitz Feminista Taldeak egindako deialdiari bikain erantzun zioten herritarrek. Kontzentrazioa egiteaz gainera, trikitilariak eta bertsolariak ere egon ziren, eta amaieran komunikatu bat irakurri zuten. Bertan, hobera egin barik, krisiaren ondorioz egoera txarra areagotu dela adierazi zuten Andraitzeko lagunek.

Aldaketa errealak eskatu zituzten atzo ibarrean eginiko agerraldi guztietan. Jarrera sexistak salatzeko deia egin zitzaion jendarteari, eta emakumeei ere eskari garrantzitsua egin zitzaien, egoera larrien aurrean, subjektu aktibo bilaka daitezen animatu zituzten.

Herri guztietan antzerako mezuak entzun ziren. Egunerokotik hasita, norberak bere ekarpen txikia egin beharra azpimarratu zen eta jokamolde sexista dutenen zigorgabetasunaz amaitu beharra adierazi eta azaroaren 25a, egunero izan behar dela gogoratu zuten atzokoan.

Trikitilariek girotu zuten atzoko ekitaldia Oñatin. | Z.V.D.M.

Oñatin 'Feminismoak gaitu batzen eta zapalkuntzatik askatzen' lelopean eginiko agerraldia. | Z.V.D.M.

Belaunaldi arteko topaketa egin zuten Garaian egubakoitzean

Z.V.D.M. | ARRASATE

Arizmendiarrietaren Lagunen Elkarteak eta Mondragon Unibertsitateko Enpresagintza Fakultateko LEINN graduko Snatu kooperatiba enpresak antolatuta, Garaia Berrikuntza Gunean egubakoitz goizean Aktion ekimena eraman zuten aurrera. 90 lagun inguruk hartu zuten parte; adin eta esparru desberdinetako pertsonak elkartu ziren. GaraiOn aisialdi taldeak eman zion hasiera ekitaldiari. Jarraian lantaldetan banatuta, baloreen transmisioa, belaunaldi arteko erlazioa, lanbideen arteko hartu emanaz egin zuten berba eta etorkizunari ere begiratu zioten. Segindan, ekintzaile biren adibideekin jarraitu zuten eta amaieran, Edurne Pasabanek berbaldia eskaini zuen.

Taldetan banatuta, gai ezberdinak jorratu zituzten. | Z.V.D.M.

Antolatzaileek ez dute gura egubakoitzeko ekimena amaitutzat ematea. Hala, ekitaldian irtendako ideiak aurrera eraman gura dituztenei espazio bat eta baliabideak eskainiko dizkietela adierazi zuen Xabi Igoa, antolatzaileetariko batek.

Ekintzailetasunaz ere egin zuen berba Igoak: "Gure lanean bai, baina gure bizitzako edozein momentutan proaktibo izanez gero, ziurrenik albistegietan ikusten diren gauza gris denak koloretakoak bihurtuko dira".

Gazteenak Mikel Laskurainek eskainitako esketx-ean. | JOSETXO ARANTZABAL

Atez ateko bilketa sistemaren gaineko informazio bulegoa zabalik

JAGOBA DOMINGO | BERGARA

Astelehenean Bergarako Oxirondo azokan, atez ateko zabor bilketa sistemaren gaineko informazio bulegoa zabalduko dute lehenengoz.

'Hondakinekin selektiboak gara' lelopean, egubakoitzean jai giroan aurkeztu zuten bulegoa, adin guztietako herritarrak parte hartzera animatuz.

Ume eta helduentzat tailerrak

Ekintza ezberdinak antolatu zituzten arratsaldean zehar, lehenengo umeen txanda izan zen. Material berrerabilgarriak erabiliz, plastiko botilak edo diskoak esaterako, Gabonetako apaingarriak egin zituzten eta hauek Gabonetan herria apaintzeko erabiliko dira.

Umeek Gabonetan herria atontzeko apaingarriak egin bitartean, helduentzat konposta egiteko ikastaroa antolatu zuten eta bertara 40 bat pertsona gerturatu ziren. Ondoren, bulegoaren funtzionamenduaren gaineko informazioa eman zuten eta Mikel Laskurain aktoreak, iragana eta zaborrean oinarritutako esketx batekin amaitu zuten ospakizuna.

Beraz gaurtik aurrera, Oxirondoko informazio bulegoa zabalik egongo da herritarren kezkak erantzuteko asmoz.

Z.V.D.M.

Euskararen aldeko agerraldia

Euskararen Legeak 30 urte bete dituela eta agerraldia egin zuten zapatu eguerdian Arrasateko Herriko Plazan *Euskaraz bizi gaitezen, aska ditzagun kateak* lelopean. Ez zuten ezer ospatu bertan, salaketarako unea izan baitzen. Hain zuzen ere, Arrasateko Euskal Herrian Euskaraz taldeak ohartarazi zuenez, legeak ez dio normalizazioa ekarri euskarari, ez baitira bertan jasotzen diren puntu guztiak bete.

erlea-6
1.700en aldizkaria

Kepa Altonaga,Uxue Apaolaza, Miren Azkarate, Irati Elorrieta, Miel A. Elustondo, Ramon Etxezarreta, Estibalitz Ezkerra, Aritz Galarraga, Andoni Garikano, Asun Garikano, Lander Garro, Iñaki Irazu, Jacinto Iturbe, Joxemari Iturralde, Xabier Kintana, Mariasun Landa, Maialen Lujanbio, Joseba Luzuriaga, Juan Ramon Madariaga, Juan Ramon Makuso, Elizabete Manterola, Ritxi Ojembarrena, Eider Rodriguez, Mikel Telleria eta Arantxa Urretabizkaia.

Marrazkiak: Jon Zabaleta.
Azala eta argazkiak: Gorka Salmerón.

PAMIELA



www.pamiela.com

Jesus Mari Ugarte | Oñatiko Udaleko Enplegu teknikaria

"Norbera motibatuta badago, aurrera egiten du bere enpresa proiektuak"

- 23 ideia aurkeztu dira Oñatiko enpresa berrien laguntza programara
- Datorren urtean, 30.000 euro inguru banatuko dira diru-laguntzatan

LEIRE KORTABARRIA | OÑATI

Arrakasta handia du ekintzaileendako Oñatiko Udalaren laguntza programak: hiru urtean, 57 proiektu aurkeztu dira, eta 34 dagoeneko alta emanda daude enpresa gisa. Jesus Mari Ugarte enplegu teknikariaren esanetan, aurkezten diren 10 ekintzaileetatik sei emakumeak dira; gehienak, lan-esperientziadunak.

Krisiaren aurrean, enpresa sortzera animatzen da jendea, Oñatin behintzat...

Bai, horrela da. Langabezian egonda eta enpresaz enpresa lana ezin topatu ibili ondoren, jende ugari animatu da azken urteetan, norberaren kontura, lehenengo ideia aztertu eta, gero, pausoak ematera.

Aurten, 23 aurkeztu dira, eta horietako batzuk dagoeneko enpresak dira, ezta?

Bai. Hiru urtean, guztira 57 ideia landu dira, eta 34k alta eman dute enpresa gisa. Ikusten da ideiak ugari daudela, baina zailtasunak ere gehiago direla, krisia gogortzen dabilelako. Baina momentuz badauzkagu eskuartean proiektuak, eta joera goranzkoa doa.

Nolako proiektuak dira?

Gehienak, zerbitzu arlokoak; baita 1. sektorekoak, eta bateren bat industria arlokoa ere bai, nahiz eta oinarrizkoa izan. Aktibitateen artean daude diseinua, komunikazioa eta publizitatea eta multimedia; lehenengo sektorean, baratzegintza eta zaldiekin proiektu bat...

Jesus Mari Ugarte. | L.K.

"Hasiera-hasieratik, prozesu osoan laguntzen diogu ekintzaileari"

Eta ekintzaileak?

Gehienak, %60, emakumeak; 35 urtetik gorakoak; eta lehendik sektore horretan edo antzekoan, edo enpresetan lan egindakoak.

Iaz 32.600 euro ipini zituen Udalak programa horretarako. Aurten, ze aurreikuspen duzue?

"Ikusten da ideiak ugari daudela, baina zailtasunak ere gehiago direla"

30.000 inguru jartzen da urtero, eta bukatzen bada, normalean beste partida batetik egiten da trasbasea. Datorren urtera begira ere, antzeko partida bat jarriko da.

Hainbat laguntza mota ematen ditu programak, ezta?

Bai. Oinarrizko laguntza ideiaren bideragarritasun azterketa eta inguruko merkatuaren azterketa da. Gero, erabakitzen bada enpresa gisa alta hartu behar dela, tramiteetan laguntzen diogu. Udalarenez gain beste laguntzarik baldin badago, horietara ere bideratzen dugu, nahiz eta azkenaldian geldi samar dagoen kontu hori.

Bideragarriak izaten dira ideiak?

Batzuk, denborarekin, bidean geldituko dira, duda barik; baina norbera motibatuta baldin badago, normalean aurrera irteten da bere proiektua.

Urrian, azken 17 urteotako langabezia datu txarrena izan da Oñatin: ia 500 langabe daude. Zer gertatu da? Uneko kontua da?

Oñatin oso ondo egon gara, eskualdearekin eta Euskal Herriarekin konparatuta ere, baina enpresa batzuetan arazoak sortzen hasi dira. Natra enpresak pixka bat jaitsi du produkzioa; eta kooperatiben leku aldaketak direla-eta, ebentual batzuk kanporatu egin dituzte. Bien batuketa da igoera horren arrazoia, eurekin kontrastatu dugu eta horrelaxe da.

Enplegua sortzeko proiektu berriak aurkeztuko ditu Udalak Bidebarrirekin. Aurrera dezakezu zeozer?

Zerbitzu arlokoak izango dira; batzuk, adinekoei zuzendutakoak: adibidez, aurten martxan jarri da etxez etxe cateringa banatzeko zerbitzua, eta datorren urtean antzeko beste batzuekin jarraituko dugu. Beste batzuek mantenuarekin eta lan txikiekin lotura dute.

Euskadiko Kutxak erraztasunak emango dizkie gizarte-enpresei

Euskadiko Kutxa Ipar Kutxak erraztasunak ipiniko ditu Gizarte-Ekonomiaren Patronaleko (CEPES) kide diren 45.000 enpresek bere burua finantzatzeko, eta ekintzaileei ere lagunduko die. CEPESekin hitzarmena egin zuen horretarako joan den eguaztenean. Kooperatibak, lan-sozietateak, mutualitateak, gizarteratze-enpresak, enplegu -zentro bereziak, arrantzale-kofradiak eta desgaitasun-sektoreko elkarteak dira hitzarmenaren hartzaile nagusiak.

Espediente guztiak digitalak izango dira Etxebiden

Etxebizitzako Ordezkaritza guztietan modu digitalean –paperik gabe– egingo dira administrazio-tramiteak norberak eskaerak egiten dituenean, espedientea altan edo bajan eman nahi duenean edo eskaera aldatu gura duenean. Dagoeneko 100.000 espediente digitalizatu dira. Urrian zabaldu zen proiektua Gipuzkoara, eta denbora tarte labur honetan 1.450 espediente paperik gabe tramitatu dira.

Turismoak hobera egin du Euskadin, baina ez Gipuzkoan

Urtarriletik urrira, ia bi milioi turista izan ditu Euskadik, 2011ko markatik gertu; hala ere, Gipuzkoan, jende gutxiagok hartu du alojamendua. Hain zuzen, iazko epe berean baino %2,8 gutxiagok, lurraldean, eta %2 gutxiagok, Donostian. Aldiz, bisitari gehiagok hartu dute ostatu Bilbon, Gasteizen eta Bizkaian. Oro har, 2009ko datuak baino askoz hobeak dira aurtengoak: %18,1 bisitari gehiago etorri dira.

Alemanian eta munduan liderrago da Soraluce

Inauguratu berri du Frankfurtetik gertu 3.900 m2-ko zentro teknologiko eraberritua

L.K. | BERGARA

Bimatec-Soraluce liderrago da Alemanian, hilaren 16an teknologia-zentro berria inauguratu ondoren, Limburg hirian. Ekitaldi handia antolatu zen horretarako, eta enpresa eta politikako 300 bat gonbidatu izan ziren bertan. Bergarako kooperatibak 6,2 milioi euro inbertitu ditu Alemanian lehendik zituen instalazioak handitzen eta moldatzen: showroom-a 2.500 m2 zabaldu du, eta beste 1.200 m2 handitu ditu bulegoak. Orain, 3.900 m2 dituzte instalazioek. Bertan ez dira makinak ekoiztuko: hori Bergaran egiten jarraituko dute.

Soraluce liderra da Alemanian fresatzeko eta mandrinatzeko makinen sektorean, eta 1.000 makinatik gora dauzka han instalatuta. Punta-puntako enpresak dira bere bezeroak, hala nola BMW edo Siemens.

Inbertsio horrekin, Alemanian ez ezik, mundu osoan liderrago izan nahi du Soralucek. Izan ere, Europaren erdian dago zentroa, Frankfurt-eko aireportutik oso gertuan. Soraluceko zuzendari nagusiak, Rafael Idigorasek, hauxe azpimarratu zuen: "Inbertsio honi esker Bimatec-Soraluceren lidergoa aurrera ere indartuko da fresatzeko makinen azpisektorean Alemanian, eta gainera, Soraluce marka zabaldu ahal izango da, indar eta sinesgarritasun handiz zabaldu ere, mundu guztira eta adibide bat gehiago izango da, euskal enpresek eta alemaniarrek duten harreman komertzial bikain goranzkoarena".

Gonbidatuak, Soraluceren zentro eraberritua ikusten. | SORALUCE

Bimatec-Soraluceko zuzendari gerenteetako batek, Fred Bisgwak, esan zuenez, teknologia zentroan inbertituta, "ikerketa eta garapen arloan gaitasuna hobetzen" da, eta enpresaren posizioa indartzen da lehiarako.

Esportaziora bideratuta

Teknologia zentro berriak 30 lanpostu sortuko ditu Limburgen. Alemanian eta Italian, batera, 60 langile ditu Soralucek. Bergaran dago bere ekoizpen lantegia, eta 235 langile ditu han, iaz baino 19 gehiago.

Ekoizpenaren gehien-gehiena, %95, esportatu egiten du, eta 40 herrialdetan ditu bezeroak. Alemania da bere bezero nagusia.

Eñaut Aranbarri | Astoreko kirol-ekipamenduetako zuzendaria

"Kanpoko diseinatzaileekin lan egin dugun lehenengo aldia izan da"

- Astorek Kukuxumusu eta Custo Barcelonarekin lan egin du berriki
- Euskal Selekzioaren eta Kataluniako Selekzioaren ekipamendua egin dute elkarrekin

M.A. / Z.V.D.M. | ARRASATE

Astorek Kukuxumusurekin elkarlanean egin du Euskal Selekzioaren ekipamendua eta abenduaren 29an Anoetan jokatuko duten partiduan estreinatuko dute jantzia. Baina ez da izan Astorek diseinatzaile batekin egin duen lan bakarra, Custorekin batera Kataluniako Selekzioarena egin baitu oraintsu.

Hemengo eta Kataluniako futbol selekzioentzako ekipamendua egin du Astorek. Zer moduzko esperientzia izan da?

Oso pozik gaude egindako lanarekin. Prozesu luzea izan da Custo eta Kukuxumusurekin lan egitea, baina, emaitza ikusita, uste dut guztiok geratu garela gustura.

Enpresa kanpoko diseinatzaileekin egindako aurreneko lanak izan al dira ?

Lehenengo aldia izan da. Gure diseinatzaile taldea daukagu eta normalean horrekin funtzionatzen dugu. Aurten zerbait desberdina egin gura genuen eta aukera sortu zen bai Kukuxumusurekin eta baita Custo Barcelonarekin diseinu kontuetan kolaborazio txiki bat egiteko. Interesgarria eta oso aukera ona zela ikusi genuen hasieratik, eta pozik gaude emaitzarekin.

Kukuxumusuren kasuan, euskal enpresa izanda, eta sektore berean lan eginda, ezagutzen genuen elkar eta bi enpresen arteko kolaborazioa izan da. Kataluniako Selekzioaren kasuan, federaziotik etorritako ideia izan zen. Ongi ikusi genuen aukera; Custo Barcelona diseinatzaileak Espainian ez ezik nazioarteko izena du, eta aukera aprobetxatu genuen.

Eta nola egin da lan banaketa?

Astoren, lehenengo, konkretuki ze behar dauden begiratzen dugu, zein bilduma-lan egingo dugun zehaztuz. Hau da, atal bat joko -ekipazioari eskainita dago. Beste bat paseo-atala da, txandalak, poloak... oro har, paseatzeko ekipazioa ere egiten dugu. Eta azkenik, osagaiak ere egiten ditugu: motxilak, poltsak, karterak...

Horri guztiari deitzen diozue kirol ekipamendua, ezta?

Bai, bilduma oso bat dago ekipamenduaren barruan, ez dugu soilik jokatzeko jantzien gainean berba egiten. Jokalariek partiduaren aurretik eta ostean ere jantzi behar dute, eta haientzako arropa egin beharra dago.

Eñaut Aranbarri, Goienako platoan. | MIREN ARREGI

Beraz, Astorek lehenengo bilduma nolakoa izango den finkatzen du, eta, behin hori eginda, kasu honetan, Kukuxumusu eta Custoren esku utzi dugu bilduma hori diseinatzeko orduan proiektua nondik nora bideratzeko erabakia.

Behin diseinuari forma emandakoan, berriz itzultzen da lana Astorera, eta produktu horiek garatzen hasten gara, eta segidan ekoiztu egiten ditugu, eta, amaitzerakoan, dendetan ikusiko genuke produktua.

"Astoren aurretik daukagun erronkarik handiena urtea ongi amaitzea da"

"Polemika egon arren, badakigu nolako diseinuak egiten dituen Custok"

Beraz, diseinatzaileen esku dagoena irudia da, eta zuek arduratzen zarete gainerako guztiaz.

Astorek bere ehunak ditu, bere lan egiteko moduak... Eta, azken finean, diseinatzaile horiek euren grafiko edo irudien ekarpena egin dutela esan daiteke.

Euskal Selekzioa lagun zaharra duzue, gainera.

Bai. Hain zuzen ere, hamazortzi urte daramatzagu haiekin lanean. Bi urtean behin aldatzen dugu bilduma guztia, eta, aurten berria egin behar zenez, Kukuxumusurekin lan egitera animatu ginen.

Urte hauetan guztietan izugarrizko garapena egongo zen ehungintzari dagokionez, ezta?

Astorek datorren urtean 25 urte egingo ditu merkatuan dagoela. Eta zer-nolako ehunak eta nola erabiltzen ditugun begiratuz gero, esaterako, hobetzen joan garela ikusten dugu; Astore eguneratuta dago alde horretatik.

Harrera ona izan du Euskal Selekzioaren jantziak; Kataluniakoak, berriz, polemika sortu du...

Kukuxumusuk bere marrazkietan Euskal Herriko jendea, ohiturak eta beste lantzen ditu. Eta oraingo kasuan ere hori islatu dute; gazteak euren baloi txikiekin futbolean jokatzen ageri dira. Nahiko polita irten da diseinu aldetik.

Kataluniaren kasuan, egia da polemika piztu dela, baina egia da, baita ere, denok dakigula zer-nolako diseinuak egiten dituen Custo Barcelonak. Ez dago oso sartuta kirol munduan, eta susmoa genuen ohituta gauden horren aldean zerbait desberdina egingo zuela. Sant Jordiko ezkutuan agertzen den dragoiaren suan oinarrituta dago irudia. Iruditzen zait zaila dela guztiontzat atsegina izango den zerbaitekin asmatzea.

Etorkizunean lankidetzan jarraituko al duzue diseinatzaile hauekin?

Bi marka hauekin datorren urtean ere jarraituko dugu, bilduma hau datorren urteko abendura bitartean egongo baita dendetan. Eta aurrera begira, momentuan gauzak nola egiten ari diren pentsatzea da egokiena, irekita gaude biharko egunean horrelako kolaborazioetara, aberatsak izaten dira eta.

Zein egoera bizi du egun Astorek?

Momentu honetan Osasuna janzten dugu, pilotan Asperekin eta Asegarcerekin urte dezente daramatzagu eta Euskaltelekin ere egiten dugu lan. Aurreko urteetan beste zenbaitzuekin ibili gara, baina une txarrak dira, eta horietara moldatu gara.

Krisiak denoi eragin digu eta guk ere nabaritu dugu. Esaterako, lehen, merkatu gehiagotan ibiltzen ginen, eta orain, gauzak polikiago egiten ditugu.

Aurretik daukagun erronkarik handiena urtea ongi amaitzea da, eta, aurreikuspenak egitea zaila den arren, datozen urteei begira daukagunari eutsi gurako genioke.

ZABALIK

IÑAKI ETXEBESTE
http://goiena.net/iritzia/

Kantuz beteriko zuhaitzak

Bai gurean eta bai besteen etxeetan zuhaitz handiek miresmena sortzen dutela ez da ezer berririk. Haien baitan sortutako egur eta fruituetatik haratago, milaka urteetan sinesmen, ohituren, sormen eta metafora askoren eredu izan dira gure basoetako antzinako bizilagunak.

Laboak abestu zizkigun adibide batzuk. Sustraiak bertan dituena ez da inora joaten, oholetan ez bada, eta nekez bihurtzen direla zahar arbolak. Eta Ruper Ordorikak, neguro oihanetan erortzen diren zuhaitz handi horien lekuan nola berriak hazten diren abestuz, bizitzan aurrera jarraitu beharrekoari buruzko kanta ederra utzi zigun iaz.

"Sustraiak bertan dituena ez da inora joaten, oholetan ez bada"

Zuhaitz eroriek, lekuaz gain, atzetik datozen xomorro, onddo eta basapiztiei jaten ematen diete, urteetan aberastasun handiko sistema bat elikatuz. Usteltzen doan arbolaren baitan, denborak ondutako ingurunea sortuko da, eta hondar horietan zuhaitz berriak ernatuko dira. Zuhaitz mota askok, handienek batez ere, behar-beharrezkoak dituzte beraien aurrekoen hondarrak aurrera jarraitzeko. Egun erortzen diren zuhaitz handiek gutxi irauten dute lurrean. Ez dira usteltzen, eta, hala, ez dituzte inguruak ontzen. Ez diegu denborarik ematen.

Aro berrien haizete zakarrek nekez zahartutako arbolak erorarazi dituzte, beraien adarrak luzez alde batera eta bestera, noraezean eraman ondoren, Anarik abestutako zuhaitzen antzera. Batzuk neguko hotzak jasateko sutarako txikitzea onena litzateke. Haien enbor eta adarrak batu, eta erre. Baina etorkizuneko oihanetan zuhaitz sendo eta handiak nahi baldin baditugu, beste zuhaitz erori batzuk usteltzen utzi beharko ditugu, eta denboraz haien gainean kolore guztietako izakiak nola hazten diren ikusi zuhaitz zaharraren hondarrez elikatuz, arorik aro. Laboaren ardaska gazteez gain, kantu berriz beterik haziko direnak, zuhaitz zaharretan sustraituz.

USTEAK USTE

MIREN ARREGI | miarregi@goiena.com

Politikak askorako ematen du

Su txikian antzezlana ikusi nuen Oñatin domekan. Ausarta Glu Glu produkzioak etxearen eta Galder Perezen azken proposamena. Garai historiko berriak ahalbidetu duen gauzetako bat. Ederra! Zorionak, talde osoari!

Kataluniako hauteskundeak ere etorri zaizkit burura. Independentziaren aldeko planteamendu berriek oztopoak baino ez dituztela izango. Erabakitzeko eskubidea Madrilek baimendu behar duenean, zer espero dugu, bada?

Espainiako bandera ipini beharko dute Eskoriatzako udaletxean. Nork agintzen duen erakusteko modu elegantea benetan! Ezer gutxi eragingo du, horrek, euskal herritarron nortasun sentimenduan.

KALE INKESTA

Krisi garai honetan, funtzionarioei aparteko paga kendu izana ondo iruditzen zaizu?

MARIA MURILLO
ARRASATE

"Oso gaizki iruditzen zait. Langileek merezi dutela uste dut, urte asko lanean jardun ostean; orain, guztia murrizketak dira".

SATUR ARAMENDIA
ARRATE

"Garai hauetan edozeini ezer kentzea gaizki iruditzen zait. Alde bateko zein besteko langileak izan".

NEREA BARRASA
LAZKAO

"Jende asko funtzionarioa izango da, baina beharra izango du; beraz, guztiei kentzea ez dela onena izango uste dut".

VIDAL LARRAD
ARRASTE

"Oso gaizki iruditzen zait pagak kentzea. Bizi maila igo egin denez, gutxienez, paga mantendu egin beharko litzateke".

HANDIK ETA HEMENDIK

Engainagailua

Aritz Galarraga
http://berria.info/blogak/ekografiak/

Atzoko eguna irritsez espero zenuten futbolzale estimatuok, saminean lagun.

Sentitzen dut barru-barrutik UEFA bihozgabeak azkenik Hapoel Kiryat-Athletic partida bertan behera utzi izana.

Ados, bazuen motiborik:

Haifan zen partida, Athleticekoak hara Tel Avivetik autobusez joatekoak ziren, eta jakingo duzue, Tel Aviven atentatu bat izan zen asteazkenean, hogeiren bat lagun zauritu zirela —HOGEIREN BAT ISRAELDAR ZAURITU TEL AVIVEN, eta, tira, 162 hildako palestinar azken astean Gazan—.

Noski, Athletici eta haren jarraitzaileei segurtasun baldintza osoak ezin bermatu, eta hala erabaki zuten partida atzeratzea.

Ai atzeratuko balira berdin Israelgo armadaren bonbardaketak, Gazako palestinarren segurtasuna bermatze aldera.

Eta, arraioa, ez dakit partida telebista bide konbentzionaletatik emateko asmoa zuten ere.

Athleticen Europako aurreko partida, Olympique Lyon taldearen aurkakoa, ikusi ahal izan genuen behintzat Cuatro katean.

Txarrenera, egingo genuen modua, nik dakit, partidaren eskubideak dituen kate pribatu eta pagamenduzko bati hilabeteroko kuota erlijiotsuki ordaintzen dion taberna mukuru bateren batean.

Futbolzale sukarrok, lasai: ETBk zerbitzu publikoarekin duen konpromisoa beste behin berresteko asmoz, eta, bide batez, futbolzale sukarron tximua baretzeko, bihar, arratseko seietan, Athletic-Tudelano partida emango baitu euskarazko katean.

Derbia, gainera, ezin kexatuko gara.

Ez dakidana da Ismael Urzaizek bietako zein taldetan jokatzen duen.

Kirolak hori dauka, beste dimentsio bat ematen diela gauza guztiei.

Gogoratzen duzue Real Madrileko Jose Mourinho entrenatzaileak hatza nola sartu zion begian Bartzelonako garai hartako bigarren entrenatzaile Tito —Mourinhoren hitzetan Pito— Vilanovari?

Nola ez gogoratu, azken garaiotan telebistatik gehien pasa duten irudietako bat da eta.

Bada, leku berean gertatu da, Bartzelonan, azken greba espainolaren egunean: kasu honetan polizia autonomikoak ez hatza baizik eta gomazko pilota sartu diola emakume bati begian, eta ondorioz emakumeak odoletan galdu duela ikusmena.

Zerbait agertu da telebistetan?

Ez.

Ez baita inondik ere notizia, zer esan, Urzaizen orkatila okertzea den bezala.

Baina kirolak hori dauka, inor-ezeren engaiagailu baino, sarriegi dela soilik engainagailua.

ZUZENKETA

Azaroaren 23ko *Goiena* paperean, 35. orrialdean, publizitate bat oker jarri genuen. Mizpirualde egoitzan sukaldaria eta sukaldeko arduraduna behar direla jarri genuen, baina ez da zuzena. Izan ere, sukaldaria edo sukaldeko arduraduna behar dute; hau da, pertsona bakarra. Horrenbestez, barkatu hanka-sartzea.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
E05 Basabe Poligonoa, 20550 ARETXABALETA
Lehendakaria Estepan Plazaola
Zuzendari nagusia Iban Arantzabal

Zuzendaria Eneko Azkarate
Erredaktore burua Ubane Madera
Sailetako arduradunak Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

Asteburuko ediozio arduraduna Xabier Urtzelai
Maketazioa Kepa Martelo, Imanol Soriano
Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martin, Imanol Elortza
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate
Harpidetza eta banaketa Marta Leturia
Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa

EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPERA ARRASATE 20500:
Otalora Lizentziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00

ORDEZKARITZA ARETXABALETA 20550:
E05 Basabe Poligonoa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09

Publizitatea Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com

Harpidetza Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.com

Lege Gordailua: SS-0088/04
ISSN: 2173-707X
Tirada: 5.000 ale
Difusioa: 4.383 ale

GOIENAk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK
Gipuzkoako Foru Aldundia · Arrasateko Udala · Bergarako Udala · Oñatiko Udala · Aretxabaletako Udala · Eskoriatzako Udala · Antzuolako Udala · Aramaioko Udala · Elgetako Udala · Leintz Gatzagako Udala

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Negozioa baldin badaukazu, iragarki hau zuretako da

Asmatuko duzu!

goienagida“

Sarean | Mugikorretan | Tabletetan | Paperean



Google-n azkarrago topatuko zaituzte.

Google Maps bitartez topatuko zaituzte.

Zure negozioaren eta produktuen **irudiak**.

Zuzeneko deia egiteko aukera.



Geolokalizazioa.

'Nola joan' aukera.

Papereko edizioan zure negozioaren berri **20.700** etxetan.

goienagida“ **2013**

- **OÑATI**
- **BERGARA**
- **ANTZUOLA**
- **ELGETA**
- **ARRASATE**
- **ARETXABALETA**
- **ESKORIATZA**
- **LEINTZ GATZAGA**
- **ARAMAIO**

Gidan azaldu gura baduzu, garaiz zabiltza.
Deitu 943 25 05 05 telefonora.

UDAL ORDEZKARI IZANDAKOAK

Maite Guridi | Euskara eta Baserri eta auzo zinegotzia (2007-2011)

- Errege Seminarioaren eta Arrizuriagaren permuta adostea lortu zuten
- Bergarako udala UEMAN sartzea 'erronka' bat izan zela dio Guridik
- Aparkaleku arazoa 1ri soluzioa emateko txandakako TAO sistema ezarri zen

"Bergaran gobernatzeko eta egiteko beste erabat izan zen gure erronka nagusiena"

MAIDER ARREGI | BERGARA

Maite Guridi begararrak bi batzorde aurrera eramateko ardura izan zuen 2007-2011 agintaldian: Euskara eta Baserri eta auzo zinegotzia izan zen. Ikastolako irakaslea da eta bi lanak batera egin zituen lau urtetan. Egun baina, politika gertutik jarraitzen duela eta Sorturen sorreran lanean diharduela kontatu digu.

Nola gogoratzen duzu Udalera sartu zinen eguna?

Erronka handi bat izan zen guretzako. Hauteskundeetan gehiengoa lortuta, gobernua sortu genuen Ilusio eta gogo handiz. Gainera lehen emakumezko alkate bergararra izango zen Agurne Barruso. Horrek ere, emakume zen aldetik, poztasuna eragin zuen.

Herri batzuetan EAE-ANV ilegala zen, Bergaran ez ordea.

Aurreko agintaldian, 2003-2007an,-legez-kanporatuak izan ginen. Eta gogorra izan zen. Gure eskaera izan da beti, dagokigun lekuan jartzea eta lortzea. Eta testu inguru hori bizita, iritsi ginen gobernura 2007an. Ilusio batze handia izan zen.

Herrian ze sumatzen zenuten?

Boto gehien lortu izanak bazeukan herrian esanahi bat. Jendeak egiteko eta funtzionatzeko beste era bat nahi zuen. Hori izan zen gure legegintzaldiaren erronka. Bergaran egiteko eta gobernatzeko beste era bat gauzatzea, hain justu.

Nolako agintaldia izan zen?

Emankorra. Programa osotasunean bete genuen. Kanpainan zerrendatutako betebeharrak betetzen saiatu ginen bukaeraraino. Lau urteko lana, horretan buru-belarri aritu ginen.

Maite Guridi zinegotzi ohia, Bergarako Herriko plazan, udaletxe aurrealdean. | MAIDER ARREGI

Euskarari dagokionez ze lan egin zenuten?

Elkarteekin eta eragileekin sinatu zen euskararen erabileran pausoak emateko akordioa. Batzuk egin ziren eta beste batzuk pixkanaka betetzen dihardute. Eragile asko ziren-eta. Bestetik, nabarmendu behar da Bergara UEMAN sartu zela. Erronka bat izan zen. Horrek bete behar eta egin beharrak zekarrelako euskara mailan. Beste udal batzuekin elkartruke eta hartu-emaneko bideak egin ziren.

2007-2011 agintaldiko Udal gobernuko kideak, tartean Maite Guridi. | GOIENA

"300 bergarar ezin izan gara berriro aurkeztu hauteskundeetara"

"Une honetan Sorturen sorreraren inguruan ari naiz lanean"

Errege seminarioaren eta Arrizuriagaren permuta adostu zenuten.

Bide luzearen ondoren, egin genuen. Ez zen erraza izan; tartean EAJ diputazioan zegoen eta Bergaran EAE-ANV lege kanporatua Aralarrekin gobernatzen. Tirabira ugari izan ziren. Baina lortu genuen permuta bideratuta izatea eta guretzako lorpen handia izan zen.

Bide erdian iritsi zitzaizuen legez kanporatzea.

Bai. Gainera tartean Arrasateko alkatea Ino Galparsoro kartzelaratu zuten eta momentu batean emate zuen beste batzuk ere barrura joan zitezkeela. Baina zorionez, bidea aldatu zen. Baina horrek izan zuen guretzako ondorioa bat ere: agintaldi bukaeran ezingo ginela berriro aurkeztu hauteskundeetara. Guretzako zigorra hori izan zen; Bergaran 300 bat lagun ezin izan gara berriro aurkeztu, Guretzako kito.

Aparkalekuaren arazoari irtenbidea eman nahi izan diozue.

Txandakako TAO sistema jarri genuen. Proposamena egin zen, eta ikusi genuen beste herri batzuetan funtzionatzen zuela eta hemen ere izan zitekeela. Ibargarai kalean ere biribil, isleta moduko bat egin genuen arazoari irtenbidea emateko. Orain, posible da aparkatzea enkarguak edo tramite bat egiteko. Funtzionatzen duela esango nuke.

Egun politika jarraitzen duzu?

Bai. Betidanik izan naiz Ezker Abertzaleko militantea. Une honetan sortuko sorreraren inguruan nabil lanean. EBPN plana lantzen ere banabil eta feriaren bat tokatzen bada ere laguntzeko prest izaten naiz.

bastidasukaldeak

ESKAINTZA BEREZIAK
Erakusketa aldaketagatik %50eko deskontua sukaldeetan

INFORMA ZAITEZ!

zarautz
elizaurre 3, 20800
tel.: 943 89 49 99 faxa: 943 89 49 98

azpeitia
perez arregi 9, 20730
tel./faxa: 943 15 05 10

bergara
ibargarai 36-38, 20570
tel./faxa: 943 76 70 58



HERRIAK

Alberto eta Felix Iñurrategi foto-zaharrean, Murrukixoko egoitzaren kanpoaldean; goian mendi elkarteko fundatzaileetako bat, Alberto Etxeberria. | MURRUKIXO

ARETXABALETA

Mendia gertuago Murrukixo elkarteari esker

- Elkartea sortu zeneko 25. urteurrena da aurten, abenduaren 22an
- Ospakizun ekitaldiak antolatu dituzte, abenduko asteburuetarako

UBANE MADERA | ARETXABALETA

1987ko abenduaren 22 baten sinatu zituzten Murrukixo mendi elkartearen estatutuak. Sortzaileen artean ziren Alberto Etxeberria eta Iñaki San Miguel *Xati*. "Sasoi hartan mugimendu handia zegoen mendian. Elkarte bat sortzea betebeharretakoa zela ikusi genuen, hutsunea zegoela. Eta gazte izanda, gauzak egiteko gogoa… Garai hartan, gainera, auto gutxiago zegoen, gehienak autobusean genbiltzan, taldean egiten ziren gauza asko… horrek guztiak lagundu zuen Murrukixo sortzen", ekarri du gogora Iñaki San Miguelek.

Iturri magikoa

Baina nondik dator Murrukixoren izena bera?: "Murrukixo da Eleizgarai baserriaren eta Oro inguruko pinudi baten dagoen iturriaren izena. Esan zigutenean iturri hartara joaten zirela ura edatera bixamona kentzeko… metal ura dauka", dio umoretsu presidenteak. "Eta iturria berritu ere egin genuen", azpimarratu du. Baina benetan funtzionatzen du iturriak? Erantzuna gura izanez gero, Murrukixo bisitatu behar.

Elkartearen ezaugarriak

Mendi taldera bueltatuz, berriz, haren ezaugarrien artean aipatzekoa da bazkide kopurua: 600. "Asko da, baina 50-edo dira gurasoek sartutako umeak. Gainera, gure kuota oso txikia da, 9 eurokoa", dio apaltasunez *Xati*-k. "Hori bai, deigarria da 600 horietatik 350 mendian federatuta daudela; hau da, bitik bat", zehaztu du.

Elkartearen jardunari dagokionez, gizartearen beharretara egokitzen dela adierazi du *Xati*-k: "Hasieran egiten ziren hilean hainbat irteera, eta jende asko joaten zen. Gizartea aldatzen joan den moduan, baina, mendi taldeak ere aldatzen joan dira. Orain gehiago nor bere kabuz joaten da. Beraz, jendearen eskaeretara mugatzen gara. Hala ere, badaramatzagu urte batzuk bi hiletik behin ibilaldi bat egiten. Mendi Astea antolatzen dugu urtero, Kurtzebarriko eguna, bi urtean behin martxa handi bat (300 bat lagun mugitzen ditu), eta, besteak beste, egutegirako argazki lehiaketa".

Murrukixo eta iñurrategitarrak

Bestalde, Murrukixo Aretxabaletako elkartea izanda, sortzen den galderetako bat zera da: zein eragin izan du elkarteak Iñurrategi abizena goi mailako alpinismoarekin lotzerakoan? Segituan erantzun du *Xati*-k: "Bat ere ez. Oso gertukoak izan dira, hori bai. Eta iñurrategitarrak lehenengo mendietara joaten hasi zirenean haien espedizioak ordaintzen laguntzeko kamisetak eta prakak saltzen genituen. Horrez gainera, espedizioetatik bueltatzen zirenean ongi-etorritxoa egiten genien beti. Hori bai, esan daitekeena da Murrukixo ez balego, herriko gazte batzuek ez luketela mendia horrenbeste ezagutuko".

Anekdota bi

25 urte asko dira, mende laurden, eta jakina, horiek guztiak bi berbatan kontatzea ezinezkoa. Halakoetan, errazagoa da anekdotaren bat kontatzea, eta hala eskatu diogu *Xati*-ri. Bi kontatu dizkigu, bat txarra eta bat ona. "Lehenengo martxa infantila egin genuenean gizon bat hil egin zitzaigun, Elgoibarko guraso bat, bihotzekoak jota. Denok pasatuta geratu ginen, jakin barik zer egin. Murrukixo sortu eta urte gutxira izan zen, Ugaztegin. Tristea izan zen. Oroitzapen ona utzi zigun, berriz, mendi aste batean plazan globo bat igo genuenekoak. Umeak globoaren kutxan sartu, eta justu etxeak bukatzen ziren toperaino igotzen ibili ziren".

DATUA

600

BAZKIDE

600 bazkide ditu Murrukixo elkarteak. 350 federatuak dira.

Iturri magikoa, izenaren jatorri

Eleizgarai baserriaren eta Oro inguruko pinudi baten dagoen iturri baten izena da Murrukixo. Metal ura du, eta kondariak dio bixamona kendu egiten duela. Hori hala den edo ez jakiteko bertako ura probatu beharko da. Baina egia dena da Aretxabaletako mendi elkartearen izenak hantxe duela jatorria.

Murrukixo iturria. | MURRUKIXO

URTEURRENEKO EKITALDIAK

ABENDUAK 1

09:00 Mairuelegorreta (Gorbeia) kobazulora irteera. 7-13 urtekoendako.

ABENDUAK 9

09:00 Aitzulo kobazulora (Ugaztegi) irteera. Edozeinendako.

ABENDUAK 15

Goizean Elizateetara irteera. Antzina urtean behin egiten zen. Gauean afaria. Izena abenduaren 11 baino lehen.

ABENDUAK 18-21

Mendi Asteko hitzaldiak, 19:00etan, kultura etxean

Abenduak 18: Txile

Eski-trabesia, Andoni Ormazabal aretxabaletarra

Abenduak 19: Kanada

Yukoko Las Inescalables eta Flower ibilbidea. Goxerrik.

Abenduak 21: Dolomitak

Aretxabaletako Nerea Ulezia

ABENDUAK 22

09:00 Leixargaratera irteera.

25 urteak iruditan jasoko dituzte CD eta liburu batean

Gazte eta nagusi, Munibe plazara bergarar asko gerturatu ziren erreileno eta tostoiak dastatzera . | ARRITXU BARRUSO

BERGARA

Eskaintza tentagarria: tostoiak, erreilenoak eta txokolate beroa

Raizabal, Mujika eta Larrañaga gozotegien eskutik erreileno eta tostoien dastatzea egin zuten zapatuan

ARRITXU BARRUSO | BERGARA

Tostoiak eta erreilenoak euro baten truke, kafearekin edo nahi izanez gero txokolatearekin. Eskaintza benetan tentagarria zen eta bergararrek, noski, ez zuten hutsik egin.

Iluntze partean, batez ere tenperaturak jaisten hasi zirenean, barrua berotzeko ondo baino hobeto etorri zen txokolate beroa edo kafea.

Ondarearen zatitxo bat

Udalak herriko ondarea ezagutzera eman eta turismoa bultzatzeko hainbat ekintza antolatu ditu azaroan. Horietako bat izan da Debagoieneko Mankomunitatearekin batera zapatuan egindako erreileno eta tostoien dastatzea.

Zalantza barik Bergarako ondarearen zatitxo bat dira erreileno eta tostoaik: "Kanpora joaten garrenean eta opariren bat eraman behar dugunean erreileno eta tostoiak eramaten ditugu beti. Arrakasta ziurtatuta daukazu horrekin", zioen emakume batek zapatuan erreilenoa eskuan zuela. .

Munibeko karpa beteta

18:15 inguruan ireki zituen ateak Munibe plazan ipinitako karpak eta hamabost minutu berandurako jendez beteta zegoen. Jende nagusia gerturatu zen lehenengo, baina apurka-apurka gazteak, eta batez ere guraso eta umeak, hasi ziren iristen.

Aurtengo bigarren edizioa izan da eta bertara gerturatutako herritar guztiek zioten ekimen polita dela eta urtero errepikatu beharrekoa. Gozogileak ere pozik zeuden deialdiak beste behin izandako erantzunarekin.

MIREN BARDECI
BERGARA

"Erreileno eta tostoien artean aukeratu behar badut, nahiago ditut tostoiak. Erreilenoak ez zaizkit gehiegi gustatzen eta ez dut bat ere jan. Amak txokolatea ere eskatu dit baina hozteko zain nago, beroegia dagoelako.

MARI KARMEN CONDE
BERGARA

"Aurreko urtean ere etorri ginen. Erreilenoak eta tostoiak geureak dira, bertakoak, eta bultzatu eta ezagutzera eman behar dira. Cordoba aldera joaten naizenean beti eramaten ditut".

XABIER MUJIKA
GOZOGILEA

"Apurka-apurka hasi da jendea etortzen. Aurtengoa bigarren edizioa da eta badirudi herritarrak zain zeudela. Jende nagusia etorri da lehenengo baina orain gazteak ere hasi dira gerturatzen".

BERGARA

ARRITXU BARRUSO

Bazkari ederra Nagusien Astea amaitzeko

Pasa dena aste bete-betea izan zen Bergarako Mizpirualde zaharren egoitzan; Nagusien Astea ospatu zuten. Astelehenetik zapatura asko izan ziren egoitza girotzeko egindako ekintzak. Ospakizunei zapatuan eman zieten amaiera. Bazkaria egin zuten eta 60 lagun inguru elkartu dira jangelan. Horrez gain Mizpirualdeko batzordeko ordezkariak ere bertan izan dira, baita alkatea ere. Bazkalostean berriz, dantzaldia egin dute eta bat baino gehiago izan dira dantzan egitera animatu zirenak.

ELGETA

ELGETAKO GAZTELEKUA

Gaztelekuko txikien antzerkia

Zapatu arratsaldean aktore lanetan ikusi genituen Elgetako Gaztelekuko neska-mutikoak. Urtean zehar irteerak eta beste hainbat ekintza egin ahal izateko dirua batzeko antzerkia antolatu zuten. 18:30etan hasi zuten emanaldia eta guraso dezente gerturatu ziren gimnasiora seme-alabak ikustera. 10 eta 14 urte bitarteko gaztetxoak igo ziren taula gainera eta hiru antzerki eskaini zituzten.

ESKORIATZA

Kopa guztiak saldu zituzten ardo dastatzean

Aitzorrotz kultura elkartekoak pozik daude izandako erantzunarekin, 20 ardo kaxatik gora banatu ziren

Askotariko ardoak zeuden dastatzeko. | JOSETXO ARANTZABAL

Ardoa hobeto sartzeko txistorra bezalakorik ez dago. | JOSETXO ARANTZABAL

MIRIAN BITERI | ESKORIATZA

Giro paregabea aurkitu genuen zapatu iluntzean Eskoriatzako plazan, Aitzorrotz kultura elkarteak seigarrenez antolatutako ardo dasketari esker. Lehen ardo zaleak 19:00etan heltzen hasi baziren ere, gehienak Pirritx eta Porrotxen emanaldia amaitzean iritsi ziren.

Ordurako dena gertu zuten antolatzaileek: 450 kopa, 600 txistorra pintxo eta hainbat upeltegietako ardoak; hain justu ere, Garcia Olano kriantza eta zuria, Ostatu kriantza, Heras Cordon kriantza eta Casar de Burbia. Kopa, ardo eta pintxo bakoitzarengatik euro bat ordaindu zuten parte-hartzaileek.

Ardo beltza, eskatuena

Dirua ez zen arazo izan. Kopa guztiak saldu ziren, eta gehiago atera behar zituzten; denera, 500 banatu izan ziren. Ardoari dagokionez, 20 kaxatik gora zabaldu ziren. Ardo beltza izan zen eskatuena; tartean, Garcia Olano upeltegiko kriantza.

Aitzorrotz elkarteko kide Iñaki Kortazarrek oso balorazio positiboa egin du. Jakinarazi digu eguraldiak lagun, aurreko urteotan baino jende gehiago izan zen zela. Horrekin batera, nabarmendu du dagoeneko "urteroko hitzordu" bilakatu dela Pirritx eta Porrotx ikusi ostean, plazara joatea, ardo goxoa eta pintxo beroak dastatzera. Parte hartu zutenei eskerrak eman gura izan die.

ARRASATE

OIHANA ELORTZA

Zirkuaren magia eta kolorea

Zirkuaren magiak herritarrak erakarri ditu aste bukaeran. Italiako zirkuan pailazoak, malabaristak, animaliak, kolorea eta magia izan dira protagonista, besteak beste. Atzo, domeka, pertsona asko geratu zen zirkura sartu ezinik. Horiek azken aukera dute gaur 19:00etan.

ARRASATE

JOSETXO ARANTZABAL

Andaluziako doinu eta dantzak

Al-Andalus elkarteak udazkeneko jaia ospatu du aste bukaeran. Musika eta jakiak izan dira protagonista. Ekitaldi guztiak izan dira jendetsuak. Sueños de Andalucia dantza taldeak egindako emanaldia ederra izan zen. Aste bukaera borobiltzeko bazkaria egin zuten.

San Andres Eguna, kulturaz eta gastronomiaz gozatzeko

"Adin eta gustu guztiendako" antolatu dute egitaraua, aste bukaerarako

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Hainbat urtez egin barik egon ostean, 2008an berreskuratu zen San Andres egunaren aitzakian aspaldi antolatzen zen azoka. Aitor Guridi aurreko legealdiko auzo alkateak berpiztu zuen ekimena, ohitura berreskuratu eta auzoarendako egun polit bat antolatzeko asmoz. 2008an egin zen eta baita 2010ean ere; aurten auzo alkatetzak ohiturarekin jarraitu gura izan du.

Maiatz erdialdean, San Andresko jaiak amaitu ostean, izendatu zuten Jon Barriocanal (Arrasate, 1978) auzoko alkate. San Andres eguna dela-eta egitarau zabala prestatu dute: "Adin eta gustu guztiendako egitaraua prestatu dugu", dio. Nobedade nagusia da 80 urtetik gorakoen omenezko bazkaria; auzoko jaietan ez zen egin eta San Andres egunerako atzeratu zuten.

Jaiaren helburua argia da: "Auzoari bizitasuna eman gura diogu, hori da helburu nagusia". Gudarien plazan egingo den azoka izango da egitarauko izarra.

Duela bi urte egindako azokako une bat. | MAITE GARMENDIA

Azokan 20 postu egongo dira

Kanpoko zein bertako produktuak egongo dira, izan ere, herriko estremadurarrek, andaluziarrek eta galiziarrek asistentzia bermatu dute. Eurekin batera, hileko hirugarren zapatuko azokan parte hartzen duten baserritar batzuk ere egongo dira eta baita Aramaioko sagardogileak ere. Artisauak ere ez dira faltako, eta antolatzaileak azken bi azoketan taloak egiten egon diren Ekin emakumeak elkartekoen erantzunaren zain daude. Guztira 20 bat postu espero dira.

80 urtetik gorakoei omenaldia

Esandako moduan, nobedade nagusia da 80 urtetik gorakoen omenezko bazkaria. Normalean auzoko jaietan egiten dute baina aurten jaiak antolatzerako orduan arazo batzuk izan ziren –besteak beste, auzo alkatea izendatu barik zegoen orduan–, San Andres egunerako atzeratzea erabaki zuten.

San Andresen erroldatuta dauden 80 urtetik gorako guztiak daude gonbidatuta; gizonezko zaharrenari txapela oparituko diote eta emakume edadetuenari, aldiz, zapia. Gainerakoek termo bat jasoko dute opari. "40 lagun elkartzea espero dugu gutxienez", adierazi du Barriocanalek.

ESANAK

"Auzoari bizitasuna eman gura diogu, hori da helburua"

JON BARRIOCANAL | SAN ANDRESKO ALKATEA

SAN ANDRES EGUNA: EGITARAUA

EGUBAKOITZA, HILAK 30

17:00 Etxafuegoak.

17:00-18:30 Guraso eta haurren arteko olinpiada gazte txokoan.

19:00 Txistulariekin poteoa.

ZAPATUA, ABENDUAK 1

10:00 San Andres ferixie Gudarien plazan.

12:00 Goikobalurekin poteoa.

14:00 80 urtetik gorakoen omenezko bazkaria Corazon de Encina elkartean.

19:00 Patata-tortila lehiaketa Gudarien plazan

22:30 Kontzertua Gudarien plazan: La Txusma eta Bitter Honey.

Euskararen egoera Jon Sarasuaren ahotik, etzi

'Norabideari buruz dozena bat gogoeta' izeneko hitzaldia eskainiko du Kulturaten, 19:00etan

J.B. | ARRASATE

AEDk antolatutako *Lau begiratu euskararen norabideari* izeneko hitzaldi zikloaren hirugarren gonbidatuak, Jon Sarasua kulturgile aretxabaletarrak, hitzaldia eskainiko du etzi, hilak 28, Kulturateko Jokin Zaitegi gelan (19:00). Lorea Agirre eta Pako Aristiren lekukoa hartuko du Sarasuak, *Norabideari buruz dozena bat gogoeta* izenburu izango duen hitzaldian.

Diagnostikoa eta joera

Sarasuak berak aurreratu digu zeren gainean egingo duen berba: "Euskaltasunaren diagnostikorako elementu batzuk aztertuko ditut lehendabizi eta gero aurrera biderako edo norabideari buruzko estrategia batzuk planteatuko ditut. Izan ere, liburu bat idazten nabil azken urte honetan gai horren inguruan emandako hitzaldi, ikastaro eta bestelakoetan oinarrituta. Hala, liburuko hainbat ideia partekatuko ditut hitzaldian". Aurreko bi saioen antzera, honakoa ere *streaming* bidez ikusiko ahalko da *Goiena.net* atarian. Zikloa Kike Amonarrizek itxiko du, abenduaren 19an.

Jon Sarasua. | ARTXIBOA

'Sexosasun Astea' antolatu du Sexologia zerbitzuak

Formula erotikoen txapelketa, Mihibero eta Hiesaren aurkako eguna, ekitaldi aipagarrienak

J.B. | ARRASATE

Abenduaren 1ean Hiesaren aurkako eguna dela-eta Udaleko Sexologia Zerbitzuak *Sexosasun Astea* antolatu du. Antolatzaileek ekimenaren helburuak azaldu dizkigute: "Sexu harreman osasuntsuak zabaltzea, gorputza zaintzeak dakartzan onurak azaltzea, gure gorputza zaintzeko bideratuta dauden ekintzak, ohiturak eta jokabideak ezagutzea eta erotikaren kontzeptua zabaltzea, koitora edo genitalizaziora bakarrik ez mugatzeko". Bestalde, formula erotikoen txapelketan parte hartzeko aukera egongo da aste osoan; herriko hainbat tokietan kutxa eta inprimaki batzuk egongo dira. Era berean, hilaren 29an Mihibero txapelketa antolatu dute erdiguneko Gaztegunean, 12 eta 17 urte artekoendako. Argibide gehiagorako, Sexologia zerbitzura jo: 943 25 20 66.

Erakusketa gaur eta hitzaldia eguenean, Euskal memoria ardatz

Zuztarrak errotuz taldeak erakusketa irekiko du gaur Kulturaten; Xabier Zubizarreta elkarteko kideak aurreratu duenez, aurre-historiatik gaur arte Arrasaten izan diren gertaera eta mugimendu aipagarrienak erakutsiko dira, "beti ere euskaldunon ikuspegitik". Bestalde, hilaren 29an izango da hitzaldia: *Gernikako seme-alabak. Errepresioaren ondorioak Leintz bailaran eta Euskal Herrian 1960-2010*. Kulturateko areto nagusian izango da, 19:00etan. Azken 50 urteetako errepresioaren biktimei buruz arituko da Joxean Agirre Euskal Memoria fundazioko kidea.

UDAL ARTXIBOA

JON RUIZ DE AZUA

Herri kirolak, aspalditik Santamasetako ikurretako bat

Santamasak ate joka ditugu dagoeneko. Urteko azokarik handiena izango da abenduaren 22koa. Komisiñoak ez du oraindik aurtengo egitaraua aurkeztu; aurten abian jarri duten webgune berrian "laster" egongo dela diote. Hori bai, ziur herri kirolek ez dutela hutsik egingo, ezinbesteko osagai izan dira-eta aspalditik. Horren erakusle dira Udal artxiboak helarazi dizkigun bi argazkiak: ezkerrekoak ez du datarik baina esan digute "aspaldikoa" dela. Eskuinekoa 1998ko Santamasetakoa da eta ikus daitekeenez, Zaldibar pilotalekuaren inguruak egungo itxura du dagoeneko.

Mireia Baz eta Garikoitz Iturbe | Txatxilipurdiko hezitzaileak

"Haurrei autonomia itzuli behar zaie eta aniztasunean hezi"

Gurasolandia azken astean sartu da eta Berramesten egitasmoaz arituko dira Txatxilipurdiko lagunak bihar 18:30ean Kulturateko Jokin Zaitegin

A.A. / Z.V.D.M. | ARRASATE

Txatxilipurdik Berramesten proiektua garatzen dihardu 2011 ezkero, eta aste honetako Gurasolandiaren baitan jorratuko dute gaia, Jokin Zaitegi aretoan.

Zer da Berramesten?

Haurren autonomian, euskaran, harremanetan eta espazioan oinarritzen den egitasmo bat da Berramesten eta bere abiapuntua udal ludotekatan aurkituko genuke.

Arrazoi ezberdinek bultzatuta sortu da Berramesten. Orain arteko ludoteka eredua agortu egin dela iruditzen zitzaigun, izan ere 1991koa da eta ludoteka ekipamenduaren kudeaketan zentratu da batez ere. Bestalde, euskararen erabilera espazio itxi konkretuetara mugatu izan da, eta Berramestenekin, jolaserako espazioak berrekuratzeaz gainera, euskarazko guneak ere berreskuratzea bilatzen dugu.

Hirugarren arrazoi bat, haurrek geroz eta aukera gutxiago daukate kalean jolasteko eta ondorioz, kalea kontsumorako toki bilakatu da, eta hori ikusita kezkatu egin ginen.

Eta zeintzuk dira helburuak?

Orain arteko helburuez gainera hau da, euskararen erabileraren sustapen lana, hezkidetza, kulturartekotasuna eta beste, Berramesten egitasmoak xede gehiago ere baditu.

Haurra eta inguratzen duen ingurunearen arteko harremana sendotu gura dugu, auzoaren bizitzan parte aktibo bihurtuz. Euskarazko zerbitzuetatik abiatuz, haurrentzako berezkoak diren jolaserako ohitura eta espazioak berrekuratzea zein haurrei autonomia itzultzea, aniztasunean heziz dira helburu nagusiak.

Mireia Baz eta Garikoitz Iturbe. | JOKIN BEREZIARTUA

Ardatz nagusiei dagokienez...

Arrasateko ludoteken proiektua berritzeaz gainera, kalearen erabilera sustatzeko sortu zen, esan bezala herria kale jolasen erabilerarako ez dagoelako prestatuta, trafikoagatik edota herriaren beraren antolamenduagatik, esaterako. Hala, hiru ildo nagusi ditugu: Arrasateko udal ludotekak, eskola bidea eta haurren parte hartzea.

Orain arte zein urrats eman dituzue?

Usaetxeko udal ludoteka izan da abiapuntua. Bertan, haurren iritzia ezagutzeko, ideien zaparrada deituriko asanbladak antolatu izan ditugu. Plaza itxuraldatu dugu, labirintoaz eta tirolinaz. Bestalde, auzotarren parte hartzea sustatze aldera, jaialdi eta kanpaldia egin genituen plazan bertan. Aurtengo ikasturtean, egitasmoa gainontzeko ludoteketan ipini da martxan.

Haurren parte hartzea ere bultatu gura dugu, lan metodologiatzat ulertzen dugulako. Oarsoaldean, Irrien lagunekin batera zenbait proiektu eramateko elkarlanean aritu gara eta Bagararekin, haurrek azokaren inguruan duten iritzia ezagutzeko dinamikak egin ditugu.

Hizkuntzaren transmisioaz

Hesiak Gainditu dokumentala estreinatuko dute abenduaren 4an Kulturaten. Txatxilipurdik proposatuta, Gorka Etxabe eta Jon Maiak egin dute gidoia. Hizkuntza transmisioaren garrantzia azpimarratzen da bertan. Arrasate eta inguruan bizi diren gurasoak, euskaraz jakin ez arren seme-alabei euskarara gerturatzeko aukera eman dutenen, euskaraz ikasi duten etorkinen edota euskara galdu eta berreskuratu duten euskaldunen testigantzak jasotzen dira.

1985ekoa primerako uzta dela erakutsiz

1985ean jaiotako 40 lagun inguru elkartu ziren azaroaren 17an euren eguna ospatzeko. Uste baino jende gutxiago elkartu arren, giro ederrean igaro zuten eguna. Trikitilariek girotutako poteoarekin hasi, Al-Andaluz elkartean bazkaria egin eta ordu txikira arte gozatu zuten konpainiaz.

JOKIN BEREZIARTUA

Krissy Mathews eta bere blues-rock arrakastatsua

Kooltur Ostegunak ekimenaren barruan, azaroko azken hitzordua izango da aste honetakoa

Z.V.D.M. | ARRASATE

Tania de Sousak, Ursula Strongek eta Ainhoa Unzuetak osatzen dute Zuloak taldea eta pasa den asteko hiru nesken emanaldiaren ostean, badator azaroko azken Kooltur Osteguneko kontzertua. Oraingo honetan gainera, nazioartean sona duen artista batek bisitatuko du Arrasateko Gaztetxea, Krissy Mathewsek hain zuzen.

"Eskandinavia eta Ingalaterrako odola daukan talentu handiko blues-rock gitarra jotzaile eta abeslaria da Krissi Mathews". Hala adierazi dute antolatzaileek.

Zakur zahar gaztea

Hogei urterekin lau disko ditu dagoeneko kalean musikariak eta gainera, nazioartean bira ugari egindakoa da. "Krissy Mathews Band hirukotearekin kontzertuak eskaini ditu nazioarteko blues jaialdi gehienetan".

Hamabi urte zituela John Mayall & The Bluesbreakers taldeareikin bi gautan aritu zen "eta ordutik Jeff Healey, Robben Ford, Walter Tront edota Joe Bonamasa moduko musikariekin igo da oholtzara gitarra jotzailea".

Euskal Herriko hitzordua

Artista gazteak argi utzi du esperientzia handia duela bere gain eta musikan adituek Jimi Hendrix, Peter Green edota Alvin Lee moduko musikari bikainen nahasketa dela esaten dute. Krissy Mathews gazteak baina, "bluesaren bertsio rockero eta distortsionatuagoaa eginez".

Talenturik falta ez zaiola argi utzi du bisitatu dituen toki guztietan, eta Kooltur Ostegunak ekimenaren barruan ere, halaxe egingo du. Gainera, Euskal Herrira egingo duen lehenengo bisita izango da, eta kontzertu bakarra, gainera.

Krissy Mathews. | KRISSY MATHEWS

Askotariko gaiak jorratufko dituzte aste honetako Tokiko Gobernu Batzordeko bileran

Arrasateko Udalak Tokiko Gobernu Batzordeko bilera egingo du gaur arratsaldean, 16:00etan hasita, ohi bezala, bilera gelan. Askotariko gaiak landuko dituzte bertan. Hainbaten artean, larrialdiko pisurako eskaera egingo dute; semaforo akustikoak jartzeko proposamena; Debagoieneko eta Debabarreneko industrialdeek bat egin izanaren berri emango dute; Santamasetako aurrekontua onartu; edota batxilergoan drogamenpekotasunaren prebentzio saioak izango dituzte hizpide.

Gaztaina erreak dastatzeko aukera egongo da egubakoitz honetan Herri Eskolak antolatuta

Urteroko ohiturari jarraituz, Arrasate Herri eskolak antolatutako gaztaina-erre dastatzea egingo dute azaroaren 30ean, egubakoitz honetan. Hitzordua 18:00etan izango da herriko plazan eta Guraso Elkarteko kideak arratsaldeko 16:00etatik aurrera lanean egongo dira bertan, ordurako jatekoa prest edukitzeko. Udazkeneko ohiko jakiak izaten dira gaztainak, eta aurreko urteetan bezala jende ugari espero dute herri eskolakoek. Deialdia gainera irekia da, eta herritar guztiak gonbidatuta daude.

Agorrosingo tabernako irudia, uztailean ateak itxi aurretik. | EDU MENDIBIL

Gureak-ek kudeatuko du Agorrosingo taberna

Egokitzapenak egin ostean urtarrilean irekiko ditu berriro ere ateak

ARRITXU BARRUSO | BERGARA

Irailean itxi zituen ateak Agorrosingo tabernak eta jabe berria aukeratzeko Udalak bigarren lehiaketa bat egin behar izan zuen arren, azkenean ere adjudikatu da tabernaren zerbitzua. Hain justu ere, Gureak Taldearen Ostalaritza enpresa arduratuko da Agorrosingo taberna kudeatzeaz hurrengo bost urteetan.

Gureak Ostalaritza enpresako ordezkariak bihar, martitzena, elkartuko dira Udaleko ordezkariekin hitzarmena sinatu eta zenbait puntu adostu eta zehazteko. Ostalaritza enpresako arduradun Tomas Urtzelaik adierazi du asmoa dela urtarrilerako taberna zabalik egotea: "Hasierako asmoa zen Gabonetarako irekitzea, baina uste dugu egokitzapenak egin eta langileak kontratatzeak denbora apur bat emango duela. Beraz, lasaiago, Gabonak pasatu ostean irekiko dugu".

Bazkari eta afariak ere bai

Taberna batek eskaintzen dituen ohiko zerbitzuez gain bazkariak eta afariak ere eskainiko dituzte. Ogitartekoez gain, bederatzi euroko menua emango dute eguerdian astelehenetik egubakoitzera. Asteburuan plater konbinatuak ere jan ahal izango dira eta umeendako menu bereziak ere prestatuko dituzte. Astegunetan 22:00ak arte egongo da zabalik eta aste bukaeran berriz 24:00ak arte.

Tailerreko langileei eskaintza

Gureaken asmoa da tabernan lan egingo duten pertsonak Bergarakoak edo ingurukoak izatea. Hori horrela, Gureakek Bergaran daukan tailerreko langileei egingo diete Agorrosinen lan egiteko eskaintza. Sei lagunek jardungo dute tabernan lanean, baina Gureakek oraindik ez du hasi aukeraketa prozesua.

Agorrosingo taberna izango da Gureak Ostalaritzak Debagoienean eskainiko duen bigarren ostalaritza zerbitzua. Arrasateko Garaia Berrikuntza Guneko jatetxea ere kudeatzen dute 2010eko apiriletik. Tomas Urtzelaik azaldu du gainera Debagoienean lanean jarraitu nahi dutela: "Garaiako jatetxea ireki genuenetik gure asmoa izan da Debagoienean beste puntu batzuk ere zabaltzea eta poliki-poliki helburu hori betetzea da asmoa".

Osintxuko gasolindegia ere Gureakeko Gureak Gas enpresak kudeatzen du.

Labegaraietako kopostagailua urte amaierarako prest

A.B. | BERGARA

Labegaraietakoa izango da Bergarak izango duen lehenengo konpostagailu komunitarioa eta urtea amaitu baino lehen martxan egotea da Udalaren asmoa.

Hamaika familiak hartuko dute parte proiektu horretan eta dagoeneko zehaztuta dago konpostagailua ipintzeko lursaila ere. Bidegorriaren aldamenean egongo da eta Udala dagoeneko hasi da lurra mugitu eta lehenengo egokitzapenak egiten. Aurrerago informazio panela ere ipiniko dute bertatik igarotzen diren herritarrak funtzionamenduaren berri izan dezaten.

Kalitatezko konposta egin ahal izateko Labegaraietako bizilagunek ikastaroa jasoko dute lehenengo. Hain justu ere, pasa den egubakoitzean izan zuten ikastaroa.

Komunitarioa izanda konpostagailu bat baino gehiago ipiniko dituzte, tamaina desberdinetakoak; batetik, hondakin kopurua handia izango delako eta bestetik hondakinak konpostagailu txikietatik handietara pasatu beharko dituztelako noizean behin. Giltzaz itxita egongo dira.

Lehenengo baina ez azkena

Labegaraietako esperientzia pilotua izango da, baina Udalaren asmoa da herriko beste zenbait gunetan ere konpostagailu komunitarioak ipintzea: "Uste dugu ondo funtziona dezakeela eta aurreikusten dugu herriko beste zenbait gunetan ere martxan ipintzea", adierazi du Ingurumen zinegotziak.

Bidegorriaren aldamenean ipiniko dituzte konpostagailuak. | OIHANA ELORTZA

Okinaren margolanen ostean taila eskolakoenak datoz Aroztegira

Duela gutxi hil den Celestino Vicenteri omenaldia egingo diote, haren lanak erakutsita

A.B. | BERGARA

Hiru asteren ostean, atzo, domeka, itxi zituen ateak Josu Okina margolari bergararraren *Afizio eta Bizio* erakusketak. Bada, orain Bergarako tailagileek hartuko diote erreleboa. Datorren egubakoitzean, hilak 30, zabalduko da erakusketa eta abenduaren 9ra arte egongo da Aroztegin ikusgai.

Celestino Vicente gogoan

Duela gutxi hil den Celestino Vicente gogoan izango dute Bergarako tailagileek eta erakusketan omenaldi xume bat egin nahi izan diote. Mahai batean Celestino Vicenteren lanak ipiniko dituzte.

25 artista inguru

Nobedade moduan, aurten beste mahai batean egurrarekin egindako antzinako tresnak ipiniko dituzte ikusgai. Antolatzaileen esanetan badira tartean ehun urte inguru dituztenak. Gainontzeko lanak Bergarako tailagileenak izango dira. Aurten 25 artista inguruk erakutsiko dituzte beraien lanak Aroztegi aretoan.gai.

Aroztegiko ordutegia

Aroztegi aretoa zabalik dago astelehenetik egubakoitzera 18:00etatik 20:30era; zapatuetan 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:30era eta domeketan 12:00etatik 14:00etara.

Musikariek Santa Zezilia ospatu zuten egubakoitzean

Bergarako Musika Eskolako neska-mutikoek eta irakasleek musika joaz ospatu zuten Santa Zezilia eguna; nola, bestela... Gazte Bandak kalejira egin zuen Musika Eskolatik plazara eta txistulariak ere erdiguneko kaleetan barrena ibili ziren. Ospakizuna behar den moduan amaitzeko txokolate-jana izan zuten herriko plazan.

BERGARAKO MUSIKA ESKOLA

GPSaren erabilera eta web orri pertsonalen diseinua abenduko ikastaroen artean

- Joskintza eta paketegintza ere egongo dira
- Bizikasik antolatu ditu, Udalaren laguntzarekin

GPSa. | GOIENA

MONIKA BELASTEGI | BERGARA

Oinarrizko joskintza, web orri pertsonal eta korporatiboen diseinu, GPSaren erabilera eta ordenagailu eta paketegintza ikastaroak antolatu ditu abendurako Bizikasik, Udalaren laguntzarekin, eta izena emateko epea zabalik dago.

Oinarrizko joskintza ikastaroari dagokionez, 10 ordukoa izango da. Abenduaren 4an, 11n, 13an, 18an eta 20an izango dira saioak, 18:00etatik 20:00etara, euskaraz eta gazteleraz. Interesa duten herritarrek eman dezakete izena, 15 euro ordainduta. Plaza mugatuak direnez, plaza kopurua baino lagun gehiagok izena emanez gero, izena emandakoen artean zozketa egingo dute.

Web orrien diseinua

Web orri pertsonal eta korporatiboen diseinua ikastaroaren kasuan, bi saio izango dira, abenduaren 10ean eta 17an, 17:30etik 19:30era. Miguel Altuna institutuan izango dira eskolak, euskaraz eta gazteleraz. Ikastaroaren prezioa 10 euro da eta interesa duten guztiek eman dezakete izena; ez da informatika maila handirik behar. Nahikoa da Interneten oinarrizko ezagutzak izatea.

Ikastaroaren antolatzaileen arabera, gaur egun Internet publizitatzeko bitarteko oso erabilia da, eta sarean irudi korporatibo egokia aurkezteak gero eta garrantzia handiagoa du. Horretatik, ez da nahikoa enpresaren izena eta eduki urriak soilik dituen web orria izatea; benetan, garrantzitsuak dira, besteak beste, diseinua eta orrialdearen dinamismoa, lehiakor izateko.

Web orrien diseinua

GPSaren erabilera eta ordenagailua delako ikastaroari dagokionez, abenduaren 10ean, 11n, 12an eta 13an izango dira eskolak, 18:30etik 20:30era, Miguel Altuna institutuan, euskaraz eta gazteleraz. Interesa duten herritar guztiek eman dezakete izena eta prezioa 20 euro dira.

Ikastaroa hiru zatitan banatuko da. Lehen zatian GPSa nondik datorren, nola funtzionatzen duen eta bere koordenada sistema azalduko dute. Atal laburra izango da, ordubetekoa, gehienez.

Bigarren zatian, berriz, GPSaren erabilera, GPS ereduak, kudeatzeko programak, *offline* aplikazioak, *online* aplikazioak eta web orriak nola erabiltzen diren azalduko dute. Oinarrizko lanak egingo dira: ibilbideak igo eta jaitsi, ibilbideak jarraitu, *waypoint*-ak erabili, ibilbide eta interesguneak markatu.

Nola egin paketeak?

Paketegintza ikastaroa ere antolatu dute abenduaren 12 eta 13rako. Bost orduko ikastaroa izango da, 18:00etatik 20:30era, euskaraz eta gazteleraz. Interesa duen edonork eman dezake izena eta prezioa 10 euro dira. Plaza mugatuak direnez, plaza kopurua baino pertsona gehiagok izena emanez gero, izena emandakoen artean zozketa egingo dute.

Ikastaro guztietarako izenematea Bizikasin egingo da, 943 76 93 94 telefono zenbakian edo *info@bizikasi.com* helbidera idatzita.

Euskaraz bizi nahi dut astea egin zenean zapi erraldoia jarri zuten udaletxeko balkoian zintzilik. | ARTXIBOA

Euskararen Egunarekin lotutako zenbait ekintza egingo dira hilaren 1ean eta 3an

Ekintzetan parte hartzeko dei egiteaz gain, gaurtik hasita etxeko leihoetan 'Euskaraz bizi nahi dut' zapia jartzera ere animatu nahi dituzte herritarrak

M.B. | BERGARA

Euskararen Egunaren jiran hainbat ekintza antolatu dituzte Udalaren, Jardun euskara elkartearen eta herriko beste entitate batzuen artean, eta herritarrak animatu nahi dituzte ekintza horietan parte hartzera.

Abenduaren 1ean, zapatua, eta Euskararen Egunean bertan, abenduaren 3an, egingo dira ekintzok. Abenduaren 1ean, 11:30ean, hitz gurutzatuen binakako lehiaketa jokatuko da Munibe eta San Martin plazetan. Bi kategoria egongo dira, gazteena eta nagusiena, eta izena emateko eguna azaroaren 28a da. Lehiaketak bi aldi izango ditu, 11:30etik 12:15era sailkapena jokatuko da eta 13:00etatik 13:45era, berriz, finala.

Sariei dagokienez, Bedelkar merkatarien elkarteko dendetan erosteko bonuak izango dira eta kategoria bakoitzeko lehenengo lau sailkatuek jasoko dute. Bestetik, parte-hartzaileen artean zenbait kultura produktu ere zozketatuko dira.

Oinarriak, informazio zehatzagoa eta izena emateko orria hemen eskura daitezke: *http://www.bergarakoeuskara.net/euskararen-eguna-hitz-gurutzatuak*.

Arratsaldean jolasak egongo dira San Martin plazan. 17:00etan hasita, lehenagoko eta oraingo jolasetan jarduteko aukera egongo da: toka, tortolosak, zapi-jokoa, aulki-jokoak, kanikak, papiroflexia... ordenagailuko eta mugikorretako jokoak... Eta amaieran txokolate-jana egongo da guztiendako.

Egunari amaiera emateko, 19:00etan kantu-jira egongo da San Martin plazatik abiatuta, herriko kaleetan barrena.

Euskararen Egunean gehiago

Abenduaren 3an, astelehena, hizkuntza normalizaziorako bi esperientziaren aurkezpena egongo da, 19:00etan. Batetik, Eskua proiektua – Errespetua Sustatzeko Kirola Ulertuz Aretxabaletan– aurkeztuko du proiektuaren bultzatzaileetako batek, Igor Arenazak, Aretxabaleta futbol taldeko kirol zuzendariak. Bestetik, Bergarako Udaleko teknikariek Agorrosingo ikastaroen hizkuntza kudeaketaren berri emango dute.

Manifestazioa eta zapia

Euskararen Nazioarteko Egunaren testuinguruan, Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseiluak *Euskaraz bizi nahi dugu* manifestazioa antolatu du abenduaren 1erako, euskaraz bizitzeko nahia adierazteko eta eskubide hori errespetatzea eskatzeko.

Hori dela eta, Bergarako Udalak bat egin nahi du Kontseiluaren ekimen horrekin eta herritarrak animatu nahi ditu, alde batetik, azaroaren 26tik abenduaren 3ra bitartean lelo hori daraman zapia balkoietan jartzera; eta bestetik, manifestazioan bertan parte hartzera; eta, azkenik, *www.euskarazbizinahidut.org* webgunean aldarrikapenari atxikimendua ematera.

Euskaraz bizi nahi dut zapia Jardunek kultura etxean duen bulegoan eskura daitezke gaurtik, astelehena, 3 eurotan.

Erabiltzaileen iritzia ezagutu nahi dute Agorrosinen

M.B. | BERGARA

Agorrosingo ikastaro eta ekintzak baloratzeko galdetegiak egingo dituzte Agorrosin Ekintza Gunean.

Gaur, azaroak 26, hasi eta abenduaren 17ra bitartean bete ahal izango dituzte erabiltzaileek inkestok. Ekintza Guneak eskaintzen duen zerbitzua baloratzeko eta hobetzeko, erabiltzaileen parte hartzea ezinbestekotzat jotzen dute, eta, horregatik galdetegia betetzeko dei egiten diete erabiltzaileei. Galdetegiak osorik betetzea eskatzen dute, gainera. Emaitza urte bukaeran emango dute aditzera.

Erreal Zaleen loteria salgai dago herriko denda eta tabernetan

Gabonetako Loteriako txartelak dira, 94.557 zenbakidunak –Bergaran bakarra–. Saldutako loteria sortak Matxiategi dendara eraman behar dira. Bada, horrekin batera, San Sebastian egunean Amara Plaza hotelean bi lagunentzako egonaldia, bazkaria ala afaria barne, eta egun horretan jokatuko den Real-Bartzelona partidurako bi sarreraren zozketarako zenbakiak ere banatzen ari dira.

www.baserrisarea.com atariaren azala. | BASERRISAREA

Oñatiko baserritarrek 'on line' dituzte produktuak

Bihar aurkeztuko dute 'www.baserrisarea.com' ataria, kultura etxean

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Debagoieneko landa eremuaren gaineko informazioa jasotzen duen ataria da *www.baserrisarea.com*. Bailarako baserritarrek zer eta nola ekoizten duen erakusten du, batetik, eta, tartean, Oñatiko hainbat baserritarren produktuak ere eskaintzen ditu.

Bailarako 23 baserri datoz webgune horretan. Horietako sei Oñatikoak dira: Gomiztegi, Arrazola, Azkarreta, Iraban, Irazabal eta Ortuzabal. Sei horietako lehen hirurak, gainera, *on line* dituzte euren produktuak. Izan ere, baserritarren produktuen denda birtuala ere bada *www.baserrisarea.com* ataria.

'On line' zerbitzua

"Denda birtualaren bitartez, edozein herritarrek aukera du baserritarraren produktuak bertatik bertara erosteko. Frutak, esnekiak, haragia, kontserbak edo edariak izan litezke", dio Itziar Urizarbarrenak, webgunearen dinamizatzaileak.

Orain, gainera, produktuen lote ezberdinak prestatzen ari dira sarean salgai jartzeko, Gabonei begira. "Oraintxe ari gara hori guztia prestatzen, baina ideia hori da, bai, produktu anitzak dituzten lote ezberdinak jartzea", baieztatu du Urizarbarrenak.

Denda baino gehiago

Dena dela, baserritarren produktuak salgai jartzeaz gain, beste zerbitzu batzuk ere eskaintzen ditu *www.baserrisarea.com* ataria. "Herritarrek baserritarrekin zuzenean harremanetan jartzeko aukera dute. Herriz herri egiten diren azoken egitaraua ere badator eta baita Debagoieneko kontsumo taldeen inguruko informazioa ere. Tartean, Oñatiko Ortuzabala taldearena. Bestetik, baserri-auzo bakoitzari buruzko informazioa ere jasotzen du eta tramiteak online egiteko aukera ere bai. Hau da, Jaurlaritzan, Aldundian edo udaletxean egin beharreko tramiteak saretik egin ahal izateko aukera. Baita nekazaritza eta abeltzantza arloekin lotura duten erakunde eta elkarteen inguruko informazioa ere", dio Urizarbarrenak.

Bihar, kultura etxean

Atari horren aurkezpena bihar, martitzenea, izango da, 18:30ean, kultura etxean. Landa Garapeneko bulegoko eta Udaleko ordezkariak izango dira.

ELKAR HEZI

Jaurlaritzaren Bikain agiria jaso du Elkar Hezik

Ostegunean jaso zuen Elkar Hezik Euskararen Kalitatearen Bikain Urrea ziurtagiria Jaurlaritzaren eskutik, Gasteizko Europa jauregian. JuanCar Olaeta zuzendariak jaso zuen saria, ikastetxearen izenean. Argazkian, Elkar Heziko ikasle eta irakasleak daude ikastetxean, agiria esku artean dutela. Zorionak!

Gazteei ere zabaldu diete tratu onaren gaineko mezua

AMAIA TXINTXURRETA | OÑATI

Oñatiko udaletxeko osoko bilkuren aretoan izan ziren egubakoitz eguerdian herriko ikastetxeetako 14 eta 16 urte bitarteko gazteak. Marrazki eta lelo lehiaketako sariak banatu zituzten, eta, bide batez, hitzordua aprobetxatu zuten Udalak azaldu duen tratu onen gaineko mezua gazteei zabaltzeko.

Saridunak

Genero indarkeriaren kontrako egunaren harira antolatutako marrazki eta lelo lehiaketako irabazle taldea neska hauek osatu zuten: Sara Gomez, Lur Paramos eta Jone Etxeberriak. *Jai giroan piropoak ahoan* leloaren egileak dira eta datorren urteko San Migel jaietan aterako diren txapetan euren leloa eta marrazkia agertuko dira.

Bigarren geratu zen Itsaso Guridi, Itsaso Martinez eta Amaiur Bolinagak osatutako taldea. Euren leloa hauxe izan zen: *Apurtu itzazu behingoz sokak eta izan zaitez LIBRE*.

Hitzaldia eta filma

Bestalde, genero indarkeriaren aurkako nazioarteko egunaren bueltan, bi hitzordu antolatu dituzte aste honetarako: batetik, eguaztenean tratu onaren aldeko hitzaldia egongo da kultura etxean, 18:30ean; eta bestetik, eguenean, *La redención* izeneko filma ikusteko aukera egongo da, 20:00etan.

Sari banaketan izan ziren partaide, Udal ordezkari eta irakasleak. | A.T.

Artisau-gazta dastatzea dago Arantzazun abenduaren 1ean

O.E. | OÑATI

Euskal artisau-gazten dastatzea egingo dute Arantzazuko parketxean abenduaren 1ean, Gipuzkoako Parketxe Sarea Fundazioak antolatuta.

Euskal Herriko 12 artisau gazta dastatzeko aukera egongo da. Aiako Ramon Lizeaga gaztagileak gidatuko du dastaketa. Gazta bakoitzaren ezaugarriak azpimarratzeaz gain, gazta guztiak banan-banan ikusi, zatitu, usaindu eta dastatuko dituzte. Jardunaldi gastronomiko horretan, parte-hartzaileek ere aukera izango dute gaztak probatzeko. Herritarrei gazta mundua ezagutzera ematea du helburu jardunaldi honek, eta aldi berean gazta onak aukeratzen eta identifikatzen ikasten laguntzera.

Bisita gidatua ere bai

Jardunaldia goizeko hamaiketan hasiko da, eta publiko osoari dago zabalik. Gazta dastatzea hasi aurretik, artzantzari buruzko hogei minutuko bisita gidatua egingo da.

Artisau-gazta. | ARANTZAZUKO PARKETXEA

Arrano eta Ona tabernetan daude salgai bertso txapelketa finalean egingo den bazkariko txartelak

Abenduaren 15ean egingo da Oñatiko bertso txapelketako finala eta dagoeneko salgai daude finalaren aurretik egingo den herri bazkarirako txartelak. Finalaren eguna egun osoko festa izango da; besteak beste, triki-poteoa eta bazkaria egingo dituzte. Bazkarirako txartelak Ona eta Arrano tabernetan daude salgai, 10 eurotan. Zapatuko kanporaketan ere eros daitezke.

ESKORIATZA

Begiek komunikatzen duten gaitasunez jardungo dute gaur, Ibarraundin

Minusbaliotasuna dutenak nola tratatu erakutsiko dute Arrieta ahizpek

MIRIAN BITERI | ESKORIATZA

Mentxu eta Lourdes Arrieta ahizpek berbaldi interesgarriak eskainiko dituzte gaur, astelehena, Eskoriatzan. Askotariko minusbaliotasuna duten ahizpa donostiarrek begiek komunikatzeko duten garrantziaz hitz egingo dute, *Begiek hitz egiten dutenean* izeneko berbaldian. Goizean Huhezin arreta goiztiarra ikasten ari direnei azalduko diete beraien esperientzia; eta arratsaldean, 18:00etan, eskoriatzar guztiei. Ibarraundi museoan izango da berbaldi hori.

Begiekin gauza asko esan daitezke. | AMAIA TXINTZURRETA

Marisol Andrade eskoriatzarra ibili da antolatzaile lanetan. Haren esanetan, medikuek eta bestelakoek aholkatzen dutena "oso garrantzitsua" da minusbaliotasuna duten senitartekoendako. Bada, egunerokotasunean lagun horiek zelan tratatu behar diren ere ikasi behar dute gertukoek eta bereziki herritarrek.

Ezjakintasuna

Horren harira, honakoa azaldu du: "Minusbaliotasuna duen alaba daukat, eta jende asko ez da umearengana gerturatzen ez dakielako zelan tratatu. Beste batzuk beldurrarekin joaten dira berarengana, eta umeek beldur hori igartzen dute. Ezjakintasuna da arazo nagusia; jendeak ez daki beraiengana heltzen. Horren harira, jakin behar du normaltasunez tratatu behar ditugula ume horiek; Arrieta ahizpen berri izan nuen eta harremanetan jarri nintzen beraiekin".

Begien garrantzia

Hain justu ere, minusbaliotasuna zer den eta horren aurrean zelan jokatu behar duten azalduko diete Lourdes eta Mentxu Arrietak eskoriatzarrei. Besteak beste, begiekin gauza asko esan daitezkeela erakutsiko diete.

Gaurtik eman daiteke izena Eingeinkek antolatutako 'Ti-Tau!' film laburren rallyan

Eingeinke mugimenduak *Ti-Tau!* film laburren rallya antolatu du hirugarrenez, eta gaurtik zabalik dago horretan izena emateko epea, *www.eingeinke.org* webgunean. Aurten berrikuntzekin dator lehiaketa, umorezko film laburrak egin beharko direlako. Lehiaketa abenduaren 15ean izango da, eta betiko moduan, egun osoa izango dute parte-hartzaileek film laburra prestatzeko: 09:30ean ongi etorria eta gaiaren banaketa egingo dute, eta jarraian, lanen grabaketa eta edizioarekin hasiko dira lehiakideak. 19:00ak arte izango dute denbora, ordu horretan aurkeztu beharko dira-eta lanak. Jarraian, luncha egingo dute, eta amaitu aurretik, lanak ikusi eta sariak banatuko dituzte.

OHARRAK

BREAK DANCE IKASTAROA
Gaur, astelehena, break dance ikastaroaren azken saioa dago kiroldegian, 19:00etatik 20:30era bitartean.

MANIPULATZAILE TXARTELA
Manipulatzaile txartela ateratzeko ikastaroa izango da gaur eta bihar, kultura etxean. Hiru orduko saioak egingo dituzte, 14:00etatik 17:00etara.

SENDABELARRAK
Alberto Altubek sendabelarren gainean eskainitako ikastaroa amaituko da bihar, martitzena. 18:00etatik 20:00etara izango da, kultura etxean.

KZGUNEA
Interesatuek KZguneko dinamizatzailea topatuko dute etzi liburutegian, 16:30etik 20:00etara.

WATERPOLO IKASTAROA
Etzi waterpolo ikastaroa amaituko da. Ordubeteko saioa 20:30ean hasiko da igerilekuan.

WATERPOLO IKASTAROA
Eguenean, Maite Franco ipuin kontalaria izango da liburutegian, 18:00etan.

MIRARI ALTUBE

ARETXABALETA-ESKORIATZA
ENERITZ KORUJO

Musikagaileen zaindarien eguna

Santa Zezilia egunaren harira, musika eskolako ikasleek kontzertuak eskaini zituzten eguenean. Aretxabaletan, Leizarrako bandak abestiak jo eta gainerako ikasleek kantuan egin zuten Herriko plazan. Eskoriatzakoak ere herriko plaza aukeratu zuten; 45 ikaslek hartu zuten parte. Kontzertuaren ondotik, txokolate jana izan zuten.

ARETXABALETA

Ortubos eta Copreci izango dituzte berbagai osoko bilkuran

Gaur, astelehena, ohiko osoko bilkura dago udaletxean, 18:00etan. Oraingoan honako gaiak landuko dituzte udal ordezkariek: Udalaren eta Ortubos enpresaren hirigintzako hitzarmena behin betikoz onartzea, Copreciren 20C zonaldeko xehetasun azterlanaren behin betiko onarpena eta galdera-eskariak.

OHARRAK

EUSKARA KALEAN
Aretxabaletako euskararen kale erabileraren neurketaren emaitzen aurkezpena egingo dute bihar Arkupeko Zaraia aretoan, 18:00etan. Herritarrak gonbidatuta daude.

PILOTALEKUA HARTZEA
Iturrigorri pilotalekuko erreserba orduak zozketatzeko batzarra dago etzi udaletxean, 18:00etan.

MATUTEREN BERBALDIA
Alternatibak lotuz, ezkerra eraldatzearen erronka izeneko berbaldia eskainiko du Alternatiba alderdiko Oskar Matutek etzi, 18:30ean, Arkupen.

JOLASEN HITZALDIA
Itsaso Pagoagak bideratuta, jolasaren gaineko hitzaldia dago eguenean, 17:30ean, Kuku Mikuren lokalean.

ARETXABALETA
MIRARI ALTUBE

Marga Aranburuzabalaren oparia

Aretxartek bezeroak saritzen dihardu, eta azaroan opari mordoa dabil banatzen. Marga Aranburuzabalak, esaterako, Begi Ondo optikan betaurrekoak erosteagatik jaso zuen oparia, Zubia zapata-dendarako 50 euroko balioa duen txartela. Argazkian Marga, Bikene Zubiarekin.

ARETXABALETA-ESKORIATZA
LEINTZ UDAL EUSKALTEGIA

Udazken jaia euskaltegian

Urtero egin ohi duten moduan, joan den eguaztenean Udazken jaia antolatu zuten Leintz Udal Euskaltegian. Giro aparta izan zutela jakinarazi dute hango arduradunek. Umorea lagun, txistorra eta gaztaina jana egin zuten, goizez zein arratsaldez euskara ikastera doazenekin.

ARAMAIO

Iñigo Jimenez | Argazkilaria

"Martin arrantzalearen argazkia lortzeko hamar aldiz joan nintzen errekara"

Udalaren argazki lehiaketa irabazi du Eskoriatzan bizi den Iñigo Jimenez arrasatearrak; 2013rako egutegi ofizialeko argazki nagusia izango da harena

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Urriaren 19ko Goiena papereko kontrazalean eman genuen Iñigo Jimenezen (Arrasate, 1984) zaletasun bereziaren berri. Hegaztien ehiztaria baina eskopeta beharrean argazki kamera da bere *arma*; hamasei ordu itxaroteko gai da ezkutaleku edo *hide* delakoan argazki onena lortzeko. Bada, zaletasun horrek diru apur bat emango dio oraingoan, Udalaren argazki lehiaketako irabazle nagusia izan da-eta aurten.

Hasteko, zorionak! Saria jasotzea espero al zenuen?

Eskerrik asko! Aurkeztu nintzenean esan zidaten azaroaren 20an -edo emango zutela irabazleen berri. Ez nuen deirik jaso eta horregatik pentsatu nuen besteren batek irabaziko zuela.

Gainera, urtaroetako argazki onenak saritzen dituen lehiaketa izanik, paisaiak bakarrik sarituko zirela usten nuen. Hori kontuan hartuta, albistea pozik jaso dut, bai horixe.

Nola izan zenuen Aramaioko argazki lehiaketaren berri?

Goiena paperean ikusi nuen Udalak argazki lehiaketa antolatu zuela eta aurkeztea erabaki nuen. Lanak aurkezteko epea amaitzen zen egun berean entregatu nituen argazkiak. Hiru argazki aurkeztu nituen, guztiak hegaztienak. Hegaztien argazkiak ateratzeko zaletasuna daukat eta hori aprobetxatu nuen lehiaketarako.

Martin arrantzalearen argazkia saritu du lehiaketako epaimahaiak. Noizkoa da argazkia?

2012ko udaberrian atera nuen, bailarako erreka baten. Martin arrantzale emea da argazkiko protagonista eta akordatzen naiz argazki hori lortzeko hamar aldiz joan behar izan nintzela erreka horretara.

Bestalde, duela zenbait hilabete ateratako arrano beltzaren argazki bat banuen, baina ez zen erabat nik gura nuena. Hala, lehiaketa honetara aurkeztu baino egun bat lehenago lortu nuen gura nuen argazki hori, Sorian; arrano beltza azeri baten gainean agertzen da. Kasualitate ederra izan zen: lehiaketarako propio bilatutako argazkia izen-emate epea baino egun bat lehenago lortu nuen. Sariduna izan nintzela jakin nuenean argazki hori sarituko zutela uste nuen, baina pozik nago bestela ere.

Iñigo Jimenez eta bere argazki irabazlea. | JOKIN BEREZIARTUA

200 euroko saria. Atrebentzia handia ez bada, zer egingo duzu diruarekin?

Argazki kamerarendako aparailu berriak erosteko erabiliko dut sariaren zati bat, eta akaso neskalagunari afaltzera ere gonbidatuko diot... Baina oraindik ez dut erabaki, ikusiko da.

"Miru gorria dut begiz jota orain, neguan irtengo naiz haren bila"

Etorkizun hurbilerako proiekturik?

Neguan beste hegazti baten bila irtengo naiz. Miru gorria dut begiz jota, ea harrapatzea lortzen dudan...

Urtaroetako argazki onenak

2013rako egutegi ofiziala osatuko du Udalak lehiaketara aurkeztu diren argazki onenekin. Sari nagusiaz gain, lehiaketa honetan urtaro bakoitzeko argazki onena ere saritzen da. Udaberriko onena Iker Altunarena da, udakoa Nuria Altunarena, udazkenekoa Jose Angel Isasirena eta negukoa, azkenik, Iker Altunarena. Iker eta Nuria Aramaiokoak bertakoak dira. Epaimahaiak beste zazpi argazki aukeratuko ditu egutegia osatzeko.

ELGETA

Bost lagunek hartu dute parte domekan egindako Elgetaklik lehiaketan

Pintxo lehiaketako publikoaren saria zein argazki rallykoa egunotan emango dira jakitera

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Parte-hartzaile gutxi izan ditu aurten ElgetaKlik argazki lehiaketak. Atzo, domeka, 11:00etan banatu zituen gaiak Udalak, eta bost lehiakideek 14:30ak arteko epea izan zuten sei argazki aurkezteko. Elgetako iturriak, tabernetako giroa, San Roke oste, udazkena, plaza eta gai librea izan ziren banatutako gaiak.

Udalak jaso ditu argazki bilduma guztiak, eta adierazi dute epaia egun gutxi barru emango dutela jakitera.

Azken pintxo-domeka

Eta atzoko eguna izan zen azkena herriko tabernariek Elgetako V. Pintxo lehiaketara aurkeztutako pintxo onenak dastatzeko. Euro baten truke askoratiko pintxoak dastatzeko aukera izan da, eta laster ezagutuko dugu Publikoaren saria. Izan ere, Pintxo lehiaketako aurtengo nobedadea hori izan da; publikoak boto bidez ondoen baloratutako pintxoak ere saria jasoko duela.

Antolatzaileek positiboki baloratu dute Pintxo lehiaketaren bueltan antolatutako ekintzek emandakoa. "Jendea ibili da herriko tabernetan, eta hori zen helburuetako bat", adierazi du turismo zinegotzi Patxi Basaurik. Dena den, lehiaketa egunean gainera bietan baino jende gehiago ibili dela adierazi du.

Mikel Ormaetxea ElgetaKlik lehiaketarako argazkia ateratzen. | L.Z.

ANTZUOLA

Atzerritartasun Legearen gaineko hitzaldia izango da eguenean Olaranen

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

Bideberri mankomunitateak antolatuta, Atzerritartasunaren Legeari buruzko informazioa emateko taldekako saioa izango da eguenean, hilaren 29an, hain justu ere.

Helburua

Hitzaldi horren bidez, legearen edukia azaldu nahi izango dute antolatzaileek. Baina atzerriko biztanleen gizarteratze-prozesuari dagokion legearen eragin praktikoa ere argitu eta azalduko da saioan.

Nork gidatuko du?

Eusko Jaurlaritzako Biltzen izeneko elkarteko legelari batek atzerritartasunaren araudiari buruzko galderak erantzungo ditu bertan. Besteak beste, bizitzaren arlo desberdinetan legeak duen eraginari buruzkoak: bizitzeko eta lan egiteko baimenak, berritzeak, familiak elkartzea, ikasketa-egonaldiak, nazionalitatea, pertsona komunitarioen senideen araudia, zigorrak, kanporatzeak...

Nori zuzenduta dago?

Hitzaldia atzerritarrei nahiz atzerriko pertsonekin harremanetan daudenei dago bideratuta. Baina atzerritartasun kontuetan informazioa behar duten pertsonendako ere bada solasaldia.

Olaran etxean

Atzerritartasunaren gaineko legeari buruzko solasaldia eguenean 10:00etatik 12:00ak bitartean izango da Olaran etxean, azaroaren 29an.

LEINTZ GATZAGA

Ortuak herritarrei eskaintzeko oinarriak gertatzen dabiltza

Hilabete barru gertu izango dutelakoan daude udal ordezkariak, eta orduan egingo dute deia

MIRARI ALTUBE | LEINTZ GATZAGA

Lurrak eskaini gura dizkie herritarrei Udalak ortuak egin ahal izateko. Horretarako oinarriak gertatzen dabiltza azken hilabeteotan, eta abendu erdirako bukatuta izango dituztelakoan daude udal ordezkariak. Orduan deialdia egingo diete herritarrei, izena eman dezaten.

Ez da oraingo kontua; izan ere, urte hasieratik dauka Udalak lurrak herritarrei eskaintzeko asmoa: "Badakigu herritar batzuk interesatuta daudela, hiru bat eskaera jaso ditugu eta", dio Imanol Saez de Viteri zinegotziak. Lurrak eskaini aurretik, baina oinarriak ondo zehaztu gura dituzte: zeinek erabili ahal izango duen lur hori; zenbat denboran; zertarako; zein betebehar izango dituzten erabiltzaileek... Eta horiek lotutakoan egingo dute deialdia. Asmoa da urtea bukatu aurretik egitea, eta eskaeren arabera banatu. Hala, udaberrian lanean hasteko moduan izango dira ortu horietan.

Ehizaren plana geldi

Bestalde, ehizaren gaineko plan teknikoaren berririk ez dagoela jakinarazi du Saez de Viteri zinegotziak. Plan hori orain hilabete batzuk egin zuen Udalak, eta orain Aldundiaren oniritziaren zain daude. Hori gertatu bitartean ez da egongo indarrean.

AZAROKO IRABAZLEAK

Pendrive
- Jesus Belamendia Agirre (Elgeta)

Umeentzako jokua
- Oihana Agirre Inza (Bergara)

Liburuak eta DVDa
- Maria Lazkano Balanzategi (Arrasate)

DVD erreproduktore bat
- Oihana Jausoro Agirre (Aretxabaleta)

Eureka! Zientzia Museoa
- Aitor Urzelai Arrizabalaga (Oñati)
- Ramon Osinaga Egidazu (Arrasate)
- Nekane Gabilondo Ugarte (Bergara)
- Joseba Ezpeleta Irizar (Arrasate)
- Bilaitz Marzan Usandizaga (Bergara)

Zarzuelarako sarrerak
- Imanol Aginagalde Aranzabal (Aretxabaleta)

Concierto Conceptorako sarrerak
- Maite Arana Osinaga (Arrasate)

Zuloak kontzerturako sarrerak
- Ane Loidi Astigarraga (Antzuola)

Txarango + D-pintxos kontzerturako sarrerak
- Arantzazu Uribesalgo Muxika (Arrasate)

Urteko kuota: **50 €**. | Tel.: **943 25 05 05**
e-posta: *kluba@goiena.com* | *goienakluba.com*

goienakluba" Abantailaz betetako kluba!

Atera etekina txartelari

goienakluba" 2012

AQUARIUM
Donostiako aquarium-a
Donostia, 943 44 00 99

ARGIA
euskarazko aldizkari orokorra
Lasarte-Oria
943 37 15 45 - 943 37 34 03

AVIA MECA
gasolindegia
Arrasate, 943 79 13 39

BEGIONDO
optika
Aretxabaleta, 943 79 98 21

GAHIR
fisioterapia-osteopatia
Eskoriatza, 943 71 43 41

ESKO SPORT
kirol denda
Eskoriatza, 943 71 52 96

GAES
entzumen zentroa
Arrasate, 943 71 27 93
Bergara, 943 76 94 55

GUZTIZ EDER
edertze zentroa
Oñati,
943 78 01 46.

IKER
SUKALDEAK
sukaldeak
Arrasate, 943 79 00 43
Oñati, 943 53 35 48

LASTAI
haurtzaintza eta atseden gunea
Gasteiz, 945 35 85 59

LILURA
edertze zentroa
Bergara, 943 76 31 71

JAIXAK
denda
Bergara, 943 76 31 45

MULTIOPTICAS
optika
Arrasate, 943 79 29 95
Bergara, 943 76 15 75

NAREN
fisioterapia zentroa
Aretxabaleta,
943 08 21 89

RENAULT AUTOBERRI
kontzesionarioa
Arrasate, 943 71 24 72

TXURI URDIN
izotz jauregia
Donostia,
943 46 44 00

EUREKA!
zientzia museoa
Donostia, 943 01 24 78

IZENADUBA BASOA
parke tematikoa
Mungia, 94 674 00 61

KIROLA

EBA

Bosgarrenean kale egin zuten

- Natra Oñatik luzapenean galdu egin zuen Burgosko taldearen kontra, Zubikoan
- Kanpokoek, azken jaurtiketa, partidu amaierako txirrinarekin batera egin zuten

EMAITZA

NATRA OÑATI

67-68

MIGUEL ANTONIO ROBLEDA

FITXA TEKNIKOA

Natra Oñati: Jagoba (8), Imanol (2), Ander (13), Josean (4), Zabaleta (6), Asier (15), Gorka (5), Iban, *Xabo* (7), eta Biain (7).

Robleda: Fernandez (5), Rodriguez, Ortega (1), Lozano, Anton, Arnaiz (13), Gomez (17), Liparteliani (4), Barriuso (12), Txomin (15) eta Moro (1).

Oharrak: Beste behin, Zubikoako harmailak bete ezin ziren EBA mailako bosgarren jardunaldiko partidua ikusteko.

Iñigo Biain eta Asier De la Iglesia errebotea lortu guran, burgostarren defentsaren aurrean. | JOSETXO ARANTZABAL

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Partiduak modu askotara galdu daitezke: merezita, merezi gabe, ondo jokatuta, epaileek erabaki okerrak hartuta... Eta partidua nola galdu, halako gorputzaldia geratzen da. Natra Oñatiko jokalari eta zaleei gorputzaldi txarra eta tonto aurpegia geratu zitzaien, Miguel Antonio Robleda taldearen azken jaurtiketa saskian sartzen zela ikusi zutenean. Luzapeneko azken segundua zen. Jaurtiketa, partidu amaierako txirrinarekin batera egin zuen. Bi puntu haiek, oñatiarren lehen porrota ekarri zuten. "Partidu osoan ez badugu %100 ematen, galdu egin dezakegula erakutsi dugu gaur", esan zigun partidu bukaeran Gorka Kintanak.

Akaso oñatiarrek ez zuten partidua irabazteko merezimendurik egin –ez behintzat bigarren zatian–, baina luzapenean zuten zazpi puntuko desabantailari buelta eman, eta aurretik ipini ondoren (67-66), ez zuten ondo defendatu azken erasoa. Hiru segundu geratzen ziren. Akaso emaitza justuena berdinketa litzateke, baina saskibaloian ez dago halakorik.

Aurpegi eskasa bigarrenean

Larregiko konfidantza, kontrarioak partidu bakarra irabazita izatea, lehen lekuan egotea... Ez dakit zer pasa zitzaien burutik Natra Oñatiko jokalariei atsedenetik bueltan. Ordurako 14 puntuko aldea zuten (35-21), eta bosgarren garaipena lortzeko aukera eskutan.

Baina, hirugarren tartean beste aurpegi bat erakutsi zuten. Arreta faltagatik oñatiarren jokoa asko nahastu zen, bai erasoan eta baita defentsan ere. Hori baliatu zuen burgostarrek 9-19ko partziala egiteko, eta bost puntura ipini ziren: 48-43. Hirugarren tartean Eneko Blancok eskatu zuen hutsarteak arreta handiagoa eskatu zien. Nahi eta ezin. Beste partidu batzuetan erasoan fin ibili izan diren jokalariak, ez zuten ardurarik hartzen erasoan. Gainera, erasoko jokaldi askotan 24 segunduak agortzeraino mugitzen zuten baloia, jaurtiketa garbiak topatu ezinik, eta azkenean, edozelan botatzen zuten baloia.

Burgostarrak aurretik

Akast horiek guztiek zuzentzeko asmoz, hainbat agindu eman zizkien entrenatzaileak azken tartea hasi aurretik, baina ez zien ezertarako balio izan. Burgosko taldea lehenengoz ipini zen aurretik markagailuan lehia bukatzeko sei minutu geratzen zirenean: 48-50. Handik aurrera gorabehera handiak izan zituen partiduak: biek ala biek agindu zuten markagailuan.

Natra Oñatik hiru puntuko abantaila izan zuen (56-53) eta Burgosko taldeak baloiaren azken jabetza. Hiruko batekin berdindu eta luzapenerako txartela lortu zuten.

Puntu bat aurretik

Hirugarren eta laugarren laurdenetan oñatiarrek erakutsitako joko eskasa errepikatu ezin zen luzapenean. Partiduko une erabakigarrienean ez zuten asmatu eta Miguel Antonio Robleda taldeak zazpi puntuko aldea hartu zuen (57-64), bukaetako bi minutu geratzen zirenean. Eneko Blancoren taldeak ez zuen etsi. Gamarrak hiruko batekin eta De la Iglesiaren 2+1eko batekin, puntu batera ipini ziren.

Azken minutua amaigabea izan zen. Baloia jokoan ipini orduko faltak egiten zituzten, jaurtiketa libreekin abantaila hartzeko asmoz. Oñatiarrek lortu zuten hiru segunduren faltan, baina ez zuten aprobetxatu.

GORKA KINTANA
NATRA OÑATI

"Lehia osoan %100 ematen ez badugu, galdu egin dezakegu"

M.B.

Triste somatu genuen Gorka Kintana partidu bukaeran.

Bosgarrenean, galdu.

Ez dugu ondo jokatu, eta, teorian, gu baino maila txikiagoa duen taldearen kontra galdu dugu, eta, gainera, etxean. Gaurko porrotak erakusten du multzo honetan dauden edonoren kontra galdu dezakegula %100 ematen ez badugu.

Zer gertatu zaizu atsedenean? Lokartuta irten zarete kantxara.

14 puntuko tartea genuen, baina arreta galdu dugu. Erasoan ez dugu asmatu, eta luzapenera heldu gara. Nik uste nuen luzapenean beste aurpegi bat erakutsiko genuela, baina ez da horrela izan. Saskiratze zaila lortu dugu azken segunduetan eta aurretik ipini gara. Baina, azken segunduko jaurtiketa Burgosek egin du. Puntu bateko abantailarekin pentsatu dugu partidua bukatu zegoela, eta argi geratu da ezetz.

SENIOR NESKAK

Hirugarren tarteko kontraerasoei esker irabazi zuten Eskoriatzako neskek

Fernando Rasoren taldeari hiru partidu geratzen zaizkio lehen fasean

EMAITZA

ESKORIATZA
69-42
TAKE ARALAR

MIREIA BIKUÑA | ESKORIATZA

Eskoriatzako neskek aise irabazi zuten Take Aralar taldearen kontra, batez ere, hirugarren tartean egindako kontraerasoei esker. "Defentsan asko estutu dugu, eta horrek aukera eman digu kontraerasoak egiteko. Azkar jokatu dugu eta hor zabaldu dugu tartea", esan zigun partidu bukaeran Fernando Rasok.

Laugarrenean mantendu

Eskoriatzak ondo jokatu zuen partidua, baina azpimarratzekoa da Take Aralar, multzoko talde ahulena dela. Hori horrela, lehen zatian erdi-purdi jokatuta 10 puntuko tartea zabaldu zuten eskoriatzarrek. Atsedenaldira 34-24 heldu ziren. Hirugarren laurdeneko kontraerasoei esker 18 puntuko aldea hartu zuten eskoriatzarrek. Laugarrenean abantaila mantendu ez ezik, handitu ere egin zuten.

Eskoriatzako jokalaria barneraketa egiten. | ARTXIBOA

Geratzen diren lehiak irabazi behar dituzte

Eskoriatzako neskek lehen fasean geratzen diren hiru partiduak irabazi beharko dituzte, lehen hiruren artean geratu eta lauko finalerako txartela ematen duten faserako sailkatzeko. "Sei taldeko hiru multzo gaude. Bakoitzeko lehen hirurak sailkatzen dira bigarren faserako, eta hor banatuko dira lauko finalerako txartelak", dio Rasok. Azken txanpan Andraitz legazpiarrak izango dira eskoriatzarren arerio zuzenak. "Abendu erdialdean jokatuko dugu. Irabazten duena sailkatuko da".

LEHENENGO NAZIONALA

Garaipena eskutan izan zuen MUk lehia bukatzeko lau minuturen faltan

EMAITZA

LA PEÑA
71-70
MONDRAGON UNIBERTSITATEA

M.B. | ARRASATE

Eskutan izan zuen garaipenak ihes egin zion Mondragon Unibertsitateari zapatuan. "Lehia kontrolatuta genuen 36. minutuan. Baina azken lauretan erlaxatu egin gara, eta puntuek ihes egin digute", esan zigun Josu Larreategik.

Bigarren zatian, hobeto

Lehen zatian La Peñak kontrolatu zuen partidua. Arrasatearrak motel irten ziren kantxara eta hori baliatu zuten bilbotarrek 12 puntuko abantaila hartzeko. "Jaurtiketa errazak egin dituzte erasoan. Gure defentsa oso txarra izan da", zioen entrenatzaileak. Atsedenean zazpi puntuko abantaila zuen La Peñak.

Hirugarren tartean beste itxura bat erakutsi zuen MUk. Defentsan lerroak estutu eta mentalitatea aldatuta, partiduan sartu ziren. Azken tartean markagailua alde ipini zuten, eta bost puntuko tartea zabalduta, lasai asko heldu ziren azken lau minutuetara.

Bada, une hartan, akaso beldurraren poderioz, pauso bat atzera eman, eta abantaila galtzen hasi ziren. Lehia bukatzeko zortzi segundo geratzen zirenean, bi jaurtiketa libre izan zituen La Peñak. Biak sartuta 71-70 ipini ziren. Azken erasoa MUk izan zuen: jaurtiketa eta ondorengo errebotea huts egin zituen.

GIPUZKOAKO SENIORRAK

Soraluze Bergarakoak oso haserre daude epaileek Donostiako partiduan egindako lanarekin

Soraluze Bergarakoek 83-47 galdu zuten Internacional taldearen kontra. Donostiarrek mahoneroek baino talde hobea dute, eta erakutsi zuten "epaileen laguntzarekin". "Talde gaztea gara, baina ez dugu onartuko epaileek gura dutena egitea. Ez zuten bi taldeen lana modu berean epaitu. Harroputz jokatu zuten gurekin", esan zigun Asier Murua entrenatzaileak.

AUKERAZKO IBILGAILUAK SALGAI

23.900€-tik aurrera

> FORD Kuga
2012 | Diesela | 0 Km

MUGARRI
Araba etorbidea, z/g ARRASATE
943790744 • www.mugarri.es

- Ford Focus 18.500 €
2012 | Diesela | Km 0
- Ford Transit 21.700 €
2012 | Diesela | Km 0
- Ford Focus Tdci 110 12.500 €
2011 | Diesela
- Citroën Picasso Td 92 Zp 7.800 €
2007
- Toyota Land Cruiser Td 3 Ate 125 Zp 7.800 €
2000 | Diesela
- Ford Fiesta Tdci 70 Zp 6.800 €
2007 | Diesela
- Ford Connect Tdci 90 Zp 7.900 €
2009 | Diesela
- Kia Sportage Td 12.500 €
2008 | Diesela
- Land Rover Td Freelander 5.500 €
2000 | Diesela
- Mercedes Vito Cdi 8 jarleku 14.500 €
2004 | Diesela

11.300 €

> Renault Laguna Automatiko
2008 | Diesela | 15.500 Km | Nautilus urdiña

RENAULT AUTOBERRI
San andres auzoa 8
ARRASATE • 943 71 24 72

HAINBAT AUTOTAN 2012KO PIVE PLANA AUKERAN

- Volkswagen Caddy kombi 9.500 €
2010 | Diesela | 81.400 Km | Txuria
- Renault Kangoo Kombi 10.200 €
2010 | Diesela | 33.800 Km | Txuria
- Renault Scenic 17.500 €
2011 | Diesela | 0 Km | Marroia
- Renault Clio Automatiko 8.250 €
2009 | gasolina | 17.934 Km | Urdina
- Renault Clio 9.500 €
2010 | Diesela | 17.015 Km | urdina edo beix
- Renault Megane 12.800 €
2010 | Diesela | 20.787 Km | Grisa edo Urdiña
- Renault Megane Sport Tourer 15.500 €
2011 | Diesela | 10.610 Km | Beix
- Dacia Stepway 11.450 €
2012 | Diesela | 11.250 Km | Gorria edo Grisa
- Dacia Sandero 8.950 €
2012 | Gasolina | 4.500 Km | Gorria

37.000 €

> Citroen DS5 Hybrid Sport
2012 | Diesel elektrikoa | 6.500 km | Zuri nakaratua

CHAPIME
CITROËN
Debagoieneko kontzesionario ofiziala
San Andres auzoa 5
ARRASATE • 943 79 45 22

- Citroen C3 1.4HDI Cool 8.000€
2010 | Diesela | 40.500 km | Beltza
- Citroen C3 Picasso 1.6HDi SX 10.500€
2010 | Diesela | 57.400 km | Beltza
- Citroen C4 Aircross 1.8HDI Exclusive 2WD 150 31.000 €
2012 | Diesela | 500 km | Marroi iluna
- Citroen C5 2.0 HDI Business 14.500€
2010 | Diesela | 38.000 km | Gris argia
- Citroen DS3 eHdi Grapic Art 17.500 €
2011 | Diesela | 50 km | Urdin iluna
- Citroen DS4 1.6e-HDi Design STT 18.500 €
2011 | Diesela | 3.000 km | Urdin iluna
- Citroen DS4 1.6e-HDi Style CMP STT 21.500 €
2012 | Diesela | 3.000 km | Gris iluna
- Citroen Berlingo Hdi MULTISPACE 110 14.500€
2012 | Diesela | 21.350 km | Gris argia
- Citroen C8 22HDi SEDUCTION 160 23.000 €
2011 | Diesela | 44.985 km | Gris iluna

Iragarkia jartzeko: **943 25 05 05**

Eskaintza baliagarria, akats tipografikorik ez dagoen neurrian.



Gasteizko Kendo Shindokai-koak irudian; elkarren artean egindako borroka saioan. | JOSETXO ARANTZABAL

BORROKA ARTEAK

Arrasateko altzairuari keinua, borroka galan

- Ikusle asko Euskadiko Borroka Arteen XII. galan
- Ezpata eta sableak dantzan ibili ziren Uarkapen

XABIER URTZELAI | ARRASATE

Arrasateko Aikido Elkarteko lagunek antolatuta jende asko batu zen zapatu goizean egin zuten Euskadiko XII. Borroka Arteen galan: "Gu ere Realekoak moduan hasi gara. Gaztetxoenei sarrerak oparitzen dizkiegu, eta eurekin batera gurasoak erakartzen ditugu", adierazi zigun barrez Aikido taldeko arduradun Jose Manuel Matasek.

Antolatzaileek pozik egoteko motiboak zituzten, Uarkapen jende dezente batu zelako ekitaldia ikusteko: "Nik esango nuke 500 lagun inguru batu garela; gainera, ekitaldian bertan teknikoki maila ona egon da".

Motorrak berotzen lehenak Arrasate Dragoi Taldekoak izan ziren, ekitaldira gonbidatutakoak. Eta ondoren Gasteizko Kendo Shindokai klubekoen txanda izan zen: "Erakustaldi baterako oso aproposak dira, janzkera ikusgarriak dituztelako, eta euren artean kontaktu fisikoa egoten delako". Jarraian etxekoak igo ziren tatami gainera, Arrasate Aikidokoak: "Arrasaten 40 lagun inguru ibiliko gara eta ekitaldian 12 lagun inguruk hartu dugu esku. Txarto dago esatea, baina uste dut teknikoki etxekoek oso lan ona egin dutela. Akaso beste borroka arteetakoak fisikoki hobeto zeuden, baina arlo teknikoan oso lan txukuna egin dugu, eta gainera jende berria genuen taldean". Hala ere, Arrasateko maisuak azpimarratu zuen borroka arte horiek aldera ezinak direla: "Batak bestearekin ez du zerikusirik. Batzuk kirol lehiaketara bideratu dituzte, beste batzuk, aldiz, klasikoak dira, biziraun dezaten praktikatzen direnak".

"Proiektu interesgarria da"

Ekitaldian batutako dirua Mugarik Gabeko Medikuei emango diete Aikidokoek: "Orain arte inguruko Gobernuz Kanpoko Erakundeekin lan egin izan dugu, baina lantegiko medikuarenean nengoenean izan nuen proiektu honen berri, eta interesgarria iruditu zitzaidanez eurekin jarri nintzen harremanetan. Beno, bi euroko sarrera kobratuta batzen duguna ez da asko, baina...".

Hala, Euskadiko Borroka Arteen Galan batutako 420 euroak erabiliko dituzte Saharako hegoaldean dagoen Sahel herrian duten desnutrizio arazoaren kontra egiteko.

DATUA

420

EURO

Mugarik Gabeko Medikuen proiektuari diru kopuru horrekin lagunduko diete Arrasate Aikido Elkartekoek.

JOSE MANUEL MATAS
ARRASATE AIKIDO

"Ezpatak omendu nahi izan ditugu ekitaldian"

J.ARANTZABAL

Antolatzaile, esatari, eta tatami gainean izerdia botatzen, zapatu goizean Arrasate Aikido Taldeko Jose Manuel Matas ez zen aspertu.

Zer moduz joan da?

Oso ondo, esango nuke jendeak gozatu egin duela.

Zergatik aukeratu dituzue ezpatak? Gainera, Arrasateko altzairuari ere aipamena egin diozu ekitaldian.

Aurrekoan Arrasate Zientzia Elkartekoek antolatutako berbaldian izan nintzen, Udalatxetik ateratzen zuten altzairuak izan zuen izen onaren gainekoa, eta txundituta geratu nintzen. Uste dut errepikatzeko moduko berbaldia izan zen. Hala, Arrasateko altzairuaren izen ona Japoneraino iritsi zen, eta han ere ezpadak egiteko erabili zuten. Aikidoa Japonetik datorren borroka artea da, eta horregatik omendu dugu ezpata.

Gimnasia erritmikokoak izan ziren ekitaldian lehenak esku hartzen. | J.A.

Kendo Shindokaikoen janzkera ikusgarria zen. | J.A.

Aikidoko maisu Jose Angel Matas, taldekide batekin. | J.A.

OHOREZKO ERREGIONALA

Hernani sendoaren aurrean Aloñak ezin izan zuen batere etekinik lortu (3-0)

Bergarak eta Aretxabaletak irabazi egin zuten etxetik kanpora; Mondrak, ostera, galdu egin zuen Irunen

XABIER URTZELAI | ARRASATE

Liderraren kontra jokatzea txapelketari tenperatura hartzeko modua izaten da, termometroa hartu eta gauzak ondo egiten dituenari neurria hartzea. Eta oñatiarrek zapatuan ikusi ahal izan zuten Hernani apartekorik egin barik zergatik dagoen lider: "Esango nuke futbolean jokatzeko ahalegin handiagoa geure partetik etorri zela", adierazi zigun Andoni Azkargorta entrenatzaileak. "Emaitzak ez du berdegunean gertatu zena erakusten. Hernanik egiten dituen bizpahiru gauzak oso ondo egiten ditu, etxean batez ere, eta horregatik daude lider", zioen Antzuolakoak. "Igartzen da Hirugarren Mailatik jaitsi berri direla. Guk ez dut uste txarto jokatu dugunik; baliteke jokaldi jakin batzuetan gogorrago jokatzea falta izan zaigula, eta Hernani, berriz, horretan oinarritzen da. Sendo jokatzen dute, atzealdean ez dute zirrikiturik uzten, eta aurrean jokalari garaiak eta indartsuak dituzte. Euren jokoa ez da oso erakargarria, baina ez diet meriturik kenduko". Bolada txarrean daude, baina egoerari buelta emateko esperantzaz: "Iaz erasoan galduago ibiltzen ginen, ez dut taldea txarto ikusten, eta pazientzia badugu emango diogu buelta egoerari".

Aretxabaletak eta Bergarak, berriz, hiru puntuak ekarri zituzten kanpotik, eta sailkapenean aurrealdera begira daude jada. Mondrak, berriz, 3-1 galdu zuen Irunen.

ERREGIONAL PREFERENTEA

Antzuolak lider jarraitzen du Mutrikun galdu arren (2-1)

Bi penalti kontran, eta jokalari bat kanporatuta ere partidua berdintzeko puntuan egon ziren

X.U. | ARRASATE

Mutrikutik esku hutsik itzuli arren Juanina Garai entrenatzailea pozik zen jokalariek egindako lanaz: "Ezin diet gehiago eskatu. Askotan gauza batzuk ez dira gure esku egoten". Garai ez zegoen pozik epaileek egindako lanaz: "Hamaika lagun izan genituen kontrario, hamaika eta beste hiru", epaileei buruz ari zen. Mutrikuk penalti bidez egin zituen bi golak, eta epaileak jokalari bat egotzi zuen: "Bigarren penaltian ez dago zalantzarik, garbia izan zen, baina lehenengoa oso zorrotza izan zen. Eta hala ere partidua irabazteko gauza izan ginen, gutxienez, berdintzekoa".

Aukera garbia azken unean

Partidua amaitzear zela Julen Sanzek 2-2koa egiteko aukera garbia izan zuen, baina ez zuen aukera aprobetxatu: "Gainera, gure atezainak ez zuen apenas lanik izan, eta eurenak laupabost geldiketa ikusgarri egin zituen".

Lider dauden antzuolarrek bide beretik jarraitu nahi dute, itsutu barik: "Gauzak momentu batetik bestera alda daitezke, baina guri irabazteko kontrarioek ondo egin behar dute lan".

OHOREZKO GAZTEAK

Mondrako gazteek ezin Beasainekin

Mondrako ohorezko gazte mailako jokalariek 0-2 galdu zuten sailkapenean bigarren dagoen Beasainen kontra. Zuri-moreek baja asko izan dituzte ikasturte hasieran, eta igarri egiten da hori. Orain momentuan zuri-moreak 8. postuan daude sailkapenean, 13 puntu batuta. Datorren astean Billabona izango dute kontrario.

X.U.

EMAKUMEZKOEN 2. MAILA

Balio handiko puntua ekarri zuten Mondrakoek Bizkaitik

Mondrako neskek 1-1 egin zuten Bizkaiko Abanto taldearen kontra: "Pozik geratu gara emaitzarekin, jokalari kopuru aldetik justu samar joan garelako Zierbana aldera", adierazi zigun Andoni Ezkurra entrenatzaileak. Izan ere, atezain faltan jokalari batek bete behar izan zuen ate azpiko hutsunea: "Eta oso ondo, gainera". Abantok egin zuen 1-0ekoa, eta Ainhoa Alonsok egin zuen berdinketaren gola: "Olatzek 1-2koa ere sartu du, baina epaileak balio gabe utzi du gola, jokoz kanpo adierazita. Dena dela, azken minutuetan sufritu egin dugu, hortan, pozik gaude".

TXIRRINDULARITZA

Txirrindularitza eta psikologiaren inguruko berbaldia bihar

Aurreko astean *Segurtasuna Errepideetan* berbaldia eskaini zuen Euskadiko Txirrindularitza Federazioko Jose Mari Laskurainek. Bergarako Lokatza Ziklismo Eskolak antolatuta, bihar 19:00etan berbaldia eskainiko du Aitziber Aierdi psikologoak Irizar Jauregian. Psikolagun gabinete psikologikoan egiten du lan Aierdik eta txirrindularitzaren eta psikologiaren inguruan egingo du berba. Lokatza Ziklismo Eskolakoak antolatutako berbaldia doako saioa da, eta gura duten herritar guztiek daukate berbaldira joateko aukera.

ATLETISMOA

Asier Cuevas onena ibarreko ordezkaritza handiko maratoian

Eguraldia lagun 3.100 gizon-emakume animatu ziren maratoia egitera

ZURIÑE V.D.M. | ARRASATE

Atzo egin zuten 35. DKV Maratoia Donostian, eta beste urte batez, Debagoieneko ordezkari ugarik hartu zuten parte Gipuzkoako hiriburuko hitzorduan: oñatiarrak, antzuolarrak, bergararrak... Hitzordu nagusiaz batera, 10 kilometrotako lasterketa paralelo bat ere egin zuten.

Maratoiko 42 kilometroak egiteko, gainera, eguraldi bikaina izan zuten lagun parte-hartzaileek; ateri egon zen denbora gehiena, nahiz eta lasterketaren hasieran eta amaieran euria egin zuen.

Maratoiko azkarrenak

Maratoian 3.100 gizon-emakumek hartu zuten parte. Gizonezkoetan Asier Cuevas eibartarra izan zen atzokoan azkarrena (2.23.23) eta emakumezkoetan aldiz, Maria Yolanda Gutierrez galiziarra izan zen (2.45.43). Debagoiendarren artean, Asier Urdanpilleta oñatiarra iritsi zen aurrena (2.41.42). Bestalde, 10 kilometrotako lasterketan 1.000 parte hartzailek eman zuten izena eta gizonezkoetan Antonio Etxeberria (31.29) eta emakumeetan Nerea Abrego (36.19) iritsi ziren aurrenak helmugara.

Asier Urdanpilleta, Anoeta inguruan. | OIHANA ELORTZA

Talde argazkian daude Jose Mari Anduaga bergararra (2796) eta Andoni Aizpuru (3126). | O.E

ERRUGBIA

La Unicaren kontra bistaratu da sailkapenaren 'gezurra'

XABI URTZELAI | ARRASATE

Lehenengo fasea zapore gozoz amaitu dute Arrasate Errugbi Taldeko mutilek. Urteko lehen zatiaren balorazioa ezin da positiboa izan, baina bai zapatuko partiduarena (20-20). Eta etxekoek merezi zuten halakorik.

Zapatuan zuri-moreek ez zuten aspaldiko partidurik onena egin, ez ziren kontrarioaren gainetik pasa eta ez zituzten entseguak bata bestearen ostean lotu. Ez. Baina hori guztia egin barik ere posible da kontrarioa estu hartzea, sailkapenaz ahaztu eta aurrez aurre jokatzea, eta horrek batzuetan garaipen batek baino balio handiagoa izaten du.

Talde gogorraren itxura

Orain arte sailkapenak erakusten zuen Arrasatekoak zirela talde makalena zutenak, eta atzo erakutsi zuten, ligako kontrario gogor baten kontra, hori ez dela egia. Igor Isasiren mutilek La Unica taldea izan zuten aurrean, hurrengo fasean goiko multzoan egongo den taldea. Eta etxekoak garaipena posible zela pentsatuta zelairatu ziren, eta halaxe jokatu.

Lehia oso parekatua izan zen. Kanpotarrek erakutsi zuten zergatik dauden aurrean, eta egia da Arrasatekoek zailtasun handiak izan zituztela baloia lapurtzeko. Baina, Iruñeakoak berehala konturatu ziren partidua irabazteko ondo jokatzeaz gain izerdia egin beharko zutela.

Bigarren zatia zaleak harrapatzeko modukoa izan zen; markagailuan parean Andyk entsegua egin eta talde zuri-morea aurreratu zuen –Arrasateko bi entseguak izan ziren bereak; azken minutuetan, baina, kanpokoek ez zuten amore eman, eta orduan ikusi zen La Unicaren indarra. Hala, partidua amaitzeko bost minuturen faltan partidua berdintzeko gauza izan ziren nafarrak (20-20): "Pozik gaude egindako partiduaz. Lan kontuengatik astero ezin izaten dugu guztiok entrenatu, eta partiduetan igarri egiten da hori. Horregatik gorabehera handiak izaten ditugu, baina, gaur erakutsi dugu La Unica moduko talde sendo bati aurre egiteko kapaz garela", adierazi zuen taldeko kapitain Beñat Salaberrik.

Arrasateko taldekoak, tartean Servi, Beñat eta Aztiria, zapatuko lehian. | XABIER URTZELAI

ESANAK

"Gorabehera handiak izaten ditugu, baina gaur La Unicaren kontra partidu ona egin dugu"

BEÑAT SALABERRI | KAPITAINA

ESKUBALOIA

Soraluce BKEk kategoriako liderra 'jan' zuen Leioan

X.U. | ARRASATE

"Ikusgarria izan da, ez sinistekoa. Bigarren zatian 25 gol egin ditugu, atera botatako guztia barrura joan da. *Plaza* -ren eta Iñaki Manuelen artean 23 gol egin dituzte!". Bergarako entrenatzaile Josetxo Muniategik aspaldi ez du partidu bat horren gustura amaitu, egunero ez zaiolako liderrari halako eraso erakustaldiaz irabazten (35-39). Askartza Quiron taldeko atezainari kostako zaio zapatu arratsaldeko partidua tarte baten ahaztea, lehen zati parekatuaren ostean bigarrenean Bergarakoen joko azkarrak eta definizio mailak erabat erotu zituelako bizkaitarrak.

Ford Mugarrik ere irabazi

Eta Iturripen Ford Mugarrik ere aldeko emaitza izan zuen, 34-28 Basauriren kontra. Hala, Bergarakoek mesede ona egin diete arrasatearrei, liderrak kale eginda Arrasatekoek aurrean egoteko hautagaitza aurkeztu duelako. Adi, baina, datorren astean derbia izango delako Bergaran.

FUTBOLA

OHOREZKO ERREGIONAL MAILA

EMAITZAK

Ostadar-Aurrera	2-3
Lagun Onak-Aretxabaleta	0-1
Hondarribia-Trintxerpe	2-2
Berio-Oiartzun	---
Urola-Beti Gazte	0-1
Real Union-Mondra	3-1
Tolosa-Touring	3-1
Hernani-Aloña Mendi	3-0
Zarautz-Bergara	0-2

SAILKAPENA

	TALDEA	P	J
1	Hernani	27	10
2	Touring	22	10
3	Oiartzun	19	10
4	Tolosa	18	10
5	Real Union	18	10
6	Berio	16	10
7	Bergara	16	10
8	Hondarribia	16	10
9	Aretxabaleta	14	10
10	Lagun Onak	13	10
11	Zarautz	13	10
12	Aloña Mendi	11	10
13	Trintxerpe	10	10
14	Urola	9	10
15	Aurrera	9	10
16	Mondra	9	10
17	Beti Gazte	6	10
18	Ostadar	6	10

HURRENGO JARDUNALDIA

Aurrera-Zarautz
Aretxabaleta-Ostadar
Trintxerpe-Lagun Onak
Oiartzun-Hondarribia
Beti Gazte-Berio
Mondra-Urola
Touring-Real Union
Aloña Mendi-Tolosa
Bergara-Hernani

EUSKAL LIGA, GAZTE GIZONEZKOAK

Aretxabaleta-Anaitasuna	1-0

ERREGIONAL PREFERENTEA

Mutriku-Antzuola	2-1

1. ERREGIONALA

Soraluze-Aretxabaleta	1-5
Urki-Bergara	2-1
Ar izmendi-Ikasberri	---

OHOREZKO GAZTEAK

Mondra-Beasain	0-2
Amaikak Bat-Bergara	2-2
Aloña Mendi-Urola	---

GAZTEEN 1. MAILA

Soraluze-Bergara	8-2
Eibartarrak-Aretxabaleta B	5-2
Arizmendi-Eibartarrak	2-2

OHOREZKO KADETEAK

Aloña Mendi-Tolosa	1-3
Bergara-Amaikak Bat	---
Aretxabaleta-Ordizia	1-2

GAZTE EMAKUMEAK

Amaikak Bat-Aloña Mendi	3-1
Mutriku-Mondra	3-5
Bergara-Eibar	1-2

EMAKUMEAK, 1. KADETEAK

Lagun Onak-Bergara	9-0
Arizmendi-Ikasberri	0-2
Beasain-Aloña Mendi	5-0

ESKUBALOIA

EUSKADIKO TXAPELKETA

Ford Mugarri-Basauri	34-28
Askartza Quiron-Soraluce BKE	35-39

GIPUZKOAKO TXAPELKETA

Tolosa-Bergara	29-23
Arrasate-Talleres Ondo	28-22

GAZTEAK, GIZONEZKOAK

Bergara-Ordizia	31-32
Katilu-Aloña Mendi	29-10

KADETEAK, GIZONEZKOAK

Soraluze BKE-Usurbil	32-27
Orereta-Arrasate	13-21

KADETEAK, EMAKUMEZKOAK

Usurbil-Aloña Mendi B	36-8

ERRUGBIA

EUSKADIKO TXAPELKETA

Arrasate-La Unica	20-20

SASKIBALOIA

EBA MAILA

Natra Oñati-Burgos Robleda	67-68

LEHEN NAZIONAL MAILA

Servical La Peña-MU	71-70

SENIOR GIZONEZKOAK

Alde Zaharra-MU	78-52
Internacional-Soraluze BKE	83-47

SENIOR GIZONAK, 2. MAILA

Cafes Aitona-Aloña Mendi	52-50

SENIOR GIZONAK, 3. MAILA

Internacional-Mondr. Unib.B	50-23

SENIOR EMAKUMEZKOAK

Eskoriatza-Take Aralar	69-42

GAZTEAK ERRENDIMENDUA

MU A-Atletico S.S.	-

GURE KIROLA
GOIENA TELEBISTA | HARMAILATIK ASTELEHENERO, 20:03, 23:56

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA goiena

SASKIBALOIA

Ander Gartzia | Natra Oñati taldeko jokalaria

"Zubikoako zaleekin zorra nuen: taldea sailkapenaren goialdean ikustea merezi dute"

- Ander Gartzia bergararrak bigarren denboraldia du EBA mailan diharduen taldean
- Hura da Oñatiko saskibaloi sailekoen bazkide kanpainaren aurpegi eta irudi

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Ander Gartzia (Bergara, 1989) Natra Oñati taldeko jokalaria da. Zornotzaren kontrako partiduan min hartu zuen sudurrean, baina zapatuan jokatzeko aukera izan zuen. Talde oñatiarrak kantxan duen erreferente nagusia da, eta baita bazkide kanpainako bideoko protagonista ere.

Liga ondo baino hobeto hasi duzue, zapatuan galdu arren.

Ez genuen halako hasiera gozorik espero, kontuan hartuta Santurtziren eta Zornotzaren kantxetan jokatu behar genuela. Bi garaipenok taldearen izaera indartu dute, eta orain, badakigu edozein talde mendera dezakegula.

Dena den, zapatuan, Burgosen kontra ez genuen asmatu. Jaurtiketa asko huts egin, baloiak galdu eta defentsan motel ibili ginen.

Talde sendoa dago, orduan.

Egunetik egunera hobetzen. Entrenamendu saio onak egiten ditugu, eta entrenatzailea oso ondo moldatu da taldera, edo gu oso ondo moldatu gara haren esanetara. Taldea ondo kontrolatzen eta babesten du, eta jokalari bakoitzaren papera ondo definitu du Blancok.

Nolako giroa duzue aldagelan?

Ona. Liga hasiera onak eragina dauka, duda barik. Iaz giro ona zegoen, baina emaitzek asko markatu zuten. Aurten lasaiago gaude, eta bide on honetatik jarraitzeko asmorekin. Dena den, badakigu egunen baten lehen partidua galduko dugula, eta horretarako prest egon behar dugu.

Bigarren urtez diharduzu Natra Oñatirekin.

Maila galdu genuenean, denboraldi berrirako aukeren bila hasi nintzen. Proposamen batzuk banituen, baina Asier de la Iglesiak deitu zidan saskibaloi sailak EBAko plaza bat erosiko zuela esanez. Ez nuen bitan pentsatu. Iaz, Oñatira heldu nintzenerako taldea zuloan zegoen, baina talde eta zale-multzo polita topatu nituen. Azken lekuan egon eta Zubikoako kantxan 500 lagun elkartzen zirela ikusteak ez dauka preziorik. Maila galtzeak min egin zidan. Zaleekin zorra nuen, eta hori ordaintzeko asmoz etorri naiz. Zaleek sailkapenaren lehen lekuetan ikusi behar gaituzte.

Momentuz, hala da, liderrak zarete. Helburua oraindik ere maila mantentzea da?

Bai. Iazko denboraldian taldeak sufritu zuena ikusita, hori izan da, eta hori da dugun helburua: maila mantentzea. Egia da emaitzek nor bere lekuan ipintzen dutela, eta gu lehenengoan gaude orain. Baina partidu asko falta dira eta egoera asko alda daiteke. Akaso, aurrerago, helburuak aldatu beharko ditugu, baina oraingoz, ez.

Bost partidu bakarrik jokatuta goragoko mailei begira ipintzea arduragabekeria litzateke. Lanean jarraitu behar dugu.

Taldeak hainbat fitxaketa egin ditu, eta, kanpotik begiratuta, iazkoa baino indartsuagoa dela dirudi. Barrutik nola ikusten duzu zuk?

Iazko zailtasunetatik ihes egiteko hiru fitxaketa on egin ditu taldeak, eta hori nabari da kantxan. Taula azpian indartsuagoak gara, jaurtitzaile onak ditugu, eta barruko eta kanpoko jokoak ondo menderatzen ditugu. Nik esango nuke iaz baino errekurtso gehiago ditugula, bai erasoan eta baita defentsan ere.

Eta zuk nola ikusten duzu zure burua?

Udan lan handia egin dut, bai fisikoki eta baita baloiarekin ere. Ondo nago, gustura. Entrenatzaileak ardura batzuk eman dizkit kantxan, eta horiek betetzen saiatzen naiz. Pisua daukat taldean eta horrek poztu egiten nau. Dena den, ez naiz ni bakarrik. Garrantzitsuena talde lana da, eta, astez aste, ondo jokatu eta garaipenak lortzea.

Zubikoara hurbiltzen diren zaleei buruz zer esan dezakezu?

Ikaragarria da. Oñatiko zaleek duten jarrera txalogarria da. Sailkapeneko azken lekuan geundenean harmailak bete egiten ziren. Beste kantxa batzuk ez dira betetzen.

Zaleen berotasuna eta animuak kantxan nabaritzen dituzue?

Bai, eta asko eskertzen ditugu. Une jakin batzuetan, markagailuari buelta emateko orduan edo epaileen erabakiekin ados ez daudenean, euren oihuak, txistuak eta txaloak guregana heltzen dira.

Natra Oñati taldearen erreferenteetako bat izateaz gain, bazkide kanpainaren aurpegia zara. Kirolari eta aktore?

Kirolari bai, aktore... ez horrenbesterako. [Barrea] Egia esan, bideoa grabatzeko proposamena egin zidatenean ez nuen bitan pentsatu. Bideoaren eta kanpainaren nondik norakoak azaldu zizkidatenean harrituta geratu nintzen. Ideia oso ona zen: saskibaloia eta txokolatea eskutik saldu behar genituen, eta bideo polita irten zitzaigun. Batez ere, profesionalak diren lagunak ibili zirelako antolatzen, argazkiak egiten eta grabatzen. Oso ondo pasatu genuen, eta emaitza agerikoa da.

Oraingoz, urtebeterako konpromisoa daukazu taldearekin.

Bai. Liga bukatzen denean ikusiko dugu non gauden eta etorkizunari begira ze aukera dauden. Babesleak zeresan handia dauka taldearen etorkizunean.

Orain EBA mailan diharduzu, baina ACB gertutik ezagutu duzu. Baskoniarekin entrenatzen eta jokatzen ikusi zaitugu. Nola bizi duzu gasteiztarren egungo egoera?

Pena handiarekin. Lagun asko ditut han eta egun bizi dutena latza da: txarto ligan eta Europatik kanporatuta, Dusko Ivanovic bota egin dute, eta hori oso gogorra da jokalariendako. Dena den, taldeak bidea zuzenduko duela ez daukat zalantzarik. Aldika Buesa Arenara joaten naiz Baskonia ikustera, eta, taldeak betidanik izan duen jarrera ikusita, egoerari buelta emango dio.

Ander Gartzia, Natra Oñatiko jokalaria, baloiarekin jokatzen. | FELIX SANCHEZ

"Goiko mailei begiratzea arduragabekeria litzateke"

"Iaz baino errekurtso gehiago ditugu, erasoan eta defentsan"

Amen ardura nagusiak: umeen osasuna, denbora eta zoriontasuna

Ikerketa bat egin berri dute Europa mailako 11.000 emakumerekin

LARRAITZ ZEBERIO | ARRASATE

Europa mailan MMM Europa erakundeak egindako ikerketa batek erakutsi du ama diren emakumeen ardura nagusiak seme-alaben ongizatea, eta eskaintzen dieten denbora direla. Europa osoko 11.000 emakumek hartu dute parte ikerketan, eta emaitzetatik atera daitekeen beste ondorioetako bat da haur baten jaiotzak goitik behera aldatzen dituela emakume baten lehentasunak. Amatasunarekin lotutako ardura berriak agertzen dira, eta egoera berria erronka handi moduan ikusten dute emakumeek. Exijentzia maila ere altuena da emakumeendako.

Umearen osasuna

Amarendako berebiziko garrantzia du umearen osasunak. Osasun arazo larriez ari gara, izan ere, ez da inoiz desagertzen haurrak gaixotasun edo istripu larri bat izateko beldurra. Beldur horri aurre egiteko modu egokiena egoera arriskutsuak saihestea da, eta osasun kontrol guztiak fin betetzea.

Eskainitako denbora

Seme-alabei eskaintako denbora ez da inoiz nahikoa, eta ikerketak jaso du amen %89-k pertsonalki arduratu gura lukeela bere haurren zaintzaz. Aldi berean, aldiz, lau emakumetik hiruk onartzen dute lan merkatuan jarraitu nahi dutela. Eta hemen, errudun sentitzen dira emakume asko. Betiko auzia da: familia eta lana bateragarri egitea, alegia.

Haurraren zoriontasuna

Ama guztiak ahalegintzen dira, bestalde, haurrak zoriontsu hezten; umearen ongizate emozionala ziurtatzen. Kezka nagusietako bat da, eta helburua betetzen ez dela iruditzen zaienean erruduntasuna agertzen da. Orduan, permisibitatean jausten dira. Umea zoriontsu izango da harreman maitekorrak dauden familia batean, eta arauak eta mugak argi dauden ingurune batean.

Ama, haurrari so. | BOSSPETTA

Umea, margotzen, aitaitaren laguntzarekin. | RODRIGO MARQUEZ DE LA PLATA

Etxeko guztien inplikazioa haurren ikasketa prozesuan

Mentes Brillantes kongresuan esan dute haur txikiek etxean ikasten dutela ikasitakoaren %80

L.Z. | ARRASATE

Madrilen egin berri dute Mentes Brillantes kongresuaren III. edizioa, eta, bertan aditzera eman dutenez, bizitzako lehenengo 10-12 urteetan ikasitakoaren %80 etxean ikasten dugu. Eskolaratutako haurren eta eskolak etxean gurasoengandik jasotzen dituzten haurren artean alde handiak daude. Criar Con el Corazon elkarteko presidente Mireia Long-ek bigarren heziketa formula hori lehenesten du. "Ikasteak asko du intuiziotik eta bizipenetik, eta garrantzitsua da prozesu hori gogoz egitea, eta modu pertsonalizatuan", dio. "Ikasitakoa eskolan proposatzen da, baina ikasi etxean egiten da", gaineratzen du.

Ibarreko guraso gehienen aukera haurrak eskolaratzea da, eta, kasu horretan ere, gurasoek jokatzen duten papera garrantzitsua dela ohartarazten du Long-ek. "Zuen haur txikiek ikasitakoa ze neurritan da soilik eskolan jasotakoa?", galdetzen du. "Gauza asko eskolan jasotakoak izango dira, noski. Baina beste asko gurasoengandik edo etxekoengandik ikasitakoak".

Etxekoen inplikazioa

"Etxekoengandik gauza asko ikasten dituzte haurrek, eta heziketaren alor hori ezin da beste inoren esku utzi", dio Long-ek. "Ardura hori erantzukizunez hartu behar da, eta prestatu egin behar dugu egiteko horretarako". Gurasoen inplikazioaz mintzo da Long, baita formazioaz ere. "Gurasoen formazioak, eta batez ere amarenak —denbora luzeagoa egon ohi da haurrekin— berebiziko garrantzia du. Kultura maila ona duten gurasoen haurrek aukera gehiago dituzte euren formazioan aurrera egiteko".

Transmisioaz eta motibazioaz hitz egiten du Long-ek; azken finean, jakin-min kulturalaz. "Baina ez da ezinbestekoa ikasketa maila goreneko guraso izatea: interesa eta jarrera baikorra erakustearekin asko egin daiteke haurren formazioan".

Adin-muga ez da jada adoptatzeko irizpide

L.Z. | ARRASATE

Eusko Jaurlaritzak ezabatu egin du adingabeak adoptatzeko orain arte irizpide gisa agertzen zen adin-muga. Hala, gurasoen eta adingabeen artean 44 urtetik gorako aldea ezin dela izan ezartzen zuen eskakizuna ezabatuta gelditu da. Aurrerantzean, beraz, 45 urteko pertsona batek ez du jaioberri bat adoptatzeko legeak ezarritako oztoporik izango.

Dekretu berriak, Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak proposatuta onartu denak, foru aldundiek zer jardun jarraitu behar duten arautzen du, haiek baitira adingabeak adoptatzeko kudeaketa-arloko arduradunak. Adin-aldea irizpide baztertzaile gisa ezabatzea eta adopzioaren egokitasunari buruz erabaki behar duten teknikariendako balorazio -irizpide gisa uztea erabaki da, bereizkeriazko neurri bat dela ikusirik.

Adingabearen interesa

Neurri horrek adingabearen interesik hoberena izango du beti muga, eta bat dator adinagatik bazterketa-faktoreak ezabatzera zuzendutako jardunekin.

Arartekoak bermatzen du jarrera hori, eta baita adopzioari buruzko Europako Batasunaren hitzarmenak ere, hark ere adin-aldea ezabatzea ezartzen baitu.

Azaro bukaeran haurrendako masaje tailerra Bergaran

Azaro bukaeran haurrendako masaje tailerra eskainiko du Jone Beitialarrangoitiak. Guztira zazpi saio izango direla jakinarazi dute antolatzaileek, eta Bergarako Baraka zentroan egingo dituzte guztiak. Zabalik dago dagoeneko izena emateko epea, eta interesatuek 657 72 00 49 telefono zenbakian eska daiteke informazio zabalagoa.

Salgai daude Zuberoako ikastolei laguntzeko otarreak

Zuberoako ikastolei laguntzeko bertako produktuz egindako otarreak erosteko dei egin dute. 37 euroren truke, kilo bat ardi gazta, kilo erdi ezti, ahate gibelarekin egindako 200 gramo pate eta bizkotxo poltsa bat emango dute. Azaroaren 30a baino lehen egin behar da eskaera *zuberoako.ikastola1@orange.fr* helbide elektronikoan.

Jolasaren gaineko hitzaldi-tertuliak Itsaso Pagoagarekin

Aretxabaletako Kuku Miku elkarteak jolasaren gaineko bi hitzaldi-tertulia antolatu ditu. Itsaso Pagoaga aretxabaletarrak bideratuko ditu biak: bata, azaroaren 29an, eguena, 17:30ean; eta bestea, abenduaren 13an, eguena, 17:30ean. Kuku Mikuren Durana kaleko lokalean egingo dituzte bi hitzaldi-tertuliak. Umeekin joan daiteke.

Testu hauek osorik irakurtzeko eta erantzuteko, **zatoz gure webgunera**

guraso.com

KULTURA

Poxpolin Mari Sorgin ere Eskoriatzan izan zen. | MIRIAN BITERI

Pirritx ume batekin. | JOSETXO ARANTZABAL

Amona Josefina eta otsoa, gainerako pailazoekin. | MIRIAN BITERI

Otsoak ez zuen zapuztu irrien lagunen festa koloretsua

- Pirritx, Porrotx eta Marimotots Eskoriatzan izan ziren beste behin
- 'Sentitu, pentsatu, ekin!' izeneko ikuskizun berria estreinatu zuten

MIRIAN BITERI | ESKORIATZA

Udaltzainak trafikoa kontrolatzen eta kiroldegi inguruan eskuan sarrera altxorra balitz moduan gordetzen zuten ume eta gurasoen ilara luzeak. Horixe izan zen zapatu arratsaldean Pirritx, Porrotx, Marimotots, Pupu eta Lorek Eskoriatzan eragin zutena. Pailazo ezagunenek *Sentitu, pentsatu, ekin!* izeneko ikuskizun berria ezagutaraztera etorri ziren, eta horiekin batera, zoramena iritsi zen beste behin ere.

Kiroldegia leporaino bete zenean argiak itzali eta oihuak eta urduritasuna heldu ziren, ume zein gurasoen pailazo kuttunenak taularatzear zeuden-eta. Amona Josefinak 100 urte bete zituela-eta, guztiek zoriondu gura zuten Pupu eta Loreren birramona, eta festa giroan haren baserrira joan ziren. Baina, urtebetetzea zapuzteko asmoa zuen ustekabeko bisita heldu zen baserrira: otsoarena. Pailazo eta lagunena ez, baina hainbat umeren alaitasuna zapuztea lortu zuen horrek; asko izutu ziren, eta bat baino gehiago kalera ere irten behar izan zen. Azkar pasa zitzaien guztiei, eta irrien lagunek barre algarak eta oihuak eragin zituzten ostera ere kantuen bidez.

Pailazoak eta antolatzaileak batera kantatzen. | JOSETXO ARANTZABAL

Antolatzaileak agertokian

Emanaldia amaitu aurretik, antolatzaileak taularatu ziren, eta guztiak batera, *Maite zaitut* abestu eta dantzatu zuten, txalo artean. Ospakizunetan murgilduta daude aurten Pirritx, Porrotx eta Marimotots, 25 urte bete dituzteeta agertoki gainean; hori dela -eta, ikuskizunaren antolatzaileei -Eskoriatzako guraso elkartekoei eta Udalekoei- taula gainera igotzeko eskatu zieten pailazoek. Gustura igo ziren guztiak. Agertokia kolorez beteta, eta harmailetan eta kantxan batutako 1.500 lagun inguru zutik gorputza astindu zuten.

Urtero moduan, ikuskizuna amaitzean, pailazoei patxo emateko aukera egon zen. Dagoeneko datorren urteko estreinaldia noiz iritsiko zain daude gaur debagoiendar asko eta asko.

AMAIUR, OIHANA, HAIZEA ETA JANIRA
ESKORIATZARRAK

"Asko gustatu zaigu Pirritx, Porrotx eta Marimototsen aurtengo emanaldia. Txanogorritxuren ipuinarekin lotu dute ikuskizun berria, eta hori da, agian, gehien gustatu zaiguna; otsoa ere irteten da. Urtero-urtero etortzen gara lagunartean pailazoen ikuskizun berria ezagutzera; ikastolan ematen dizkigute sarrerak. Zalantza barik, datorren urtean ere hemen izango gara".

JON, IÑAKI ETA UNAX
ESKORIATZARRAK

"Oso gustura gatoz pailazoak ikustera; urtero etortzen gara ikuskizun berria ezagutzera. Ez daukagu pailazo kuttunik, guztiak ditugu gustuko; dena dela, jakin badakigu Pupu eta Lore pailazo txikiak ez direla benetakoak, eskuekin mugitzen dituztela".

AMAIA ETA MALEN
ESKORIATZARRAK

"Lehenengo aldia da ikustera etorri naizela eta merezi du. Lobarekin etorri naiz, laguntzera. Txikiena hasieran otsoarekin beldurtu egin da, baina gero gustura egon da. Neba urtero dator".

MIKEL ETA ALABA
ARRASATEARRAK

"Giro ona egon da, eta ikuskizuna ere gustura ikusi dugu; beste hainbat urteotako kantuekin etorri dira. Gure umea ere otsoarekin beldurtu da. Bigarrenez etorri gara Eskoriatzara; txikiarendako, ostera, lehen aldia da".

Ilegorri, haren aita, Txomin eta erizaina, *Hareazko ipuinak* antzezlaneko une batean. | JOSETXO ARANTZABAL

Minbiziaren aurrean, irribarrea

Markeliñe taldeak 'Hareazko ipuinak' antzezlana egin zuen Oñatiko Santa Ana antzokian, umeendako

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Onkologiko bateko gelan kokatzen da istorioa. Neskato ilegorri bat eta haren aita daude oholtza gainean. Umea da gaixo dagoena: minbizia dauka, baina antzezlaneko protagonista aita da. Alabaren egonaldia alaitzeko egiten duen guztia kontatzen du Markeliñek *Hareazko ipuinak* antzezlanean.

Jon Kepa Zumalde eta Sandra F. Agirre dira haragizko pertsonaiak: lehena aitaren paperean eta bigarrena, heriotzarenean. Musika ere Sandraren txeloak ipintzen du. Taula gainean dauden gainerako protagonista guztiak txotxongiloak dira: onkologikoan dauden neska-mutikoak, alegia.

Aitaren bizipenak

*Ilegorri*ren aita hasieratik zuzentzen zaie aretoan dauden ikusleei. "Hau ez da nire alabaren istorioa, nirea baizik. Ospitaleko egonaldi luzean bizi izandako gora-beherak kontatuko dizkizuet. Bizi izandako istorioak eta ezagututako laguntxoak", esan zien.

Egunero ospitalera heltzerakoan etxekoen marrazkiak eramaten dizkio alabari, eta baita horrenbeste gustatzen zaion hondartzako harea. Horiek baliatzen ditu ipuinak asmatu eta alaba eta Txomin izeneko mutikoa alaitzeko. Hark erakusten dio I*legorri*ri minbiziaren ondorioetako bat: burusoil dago, ez dauka ilerik. "Nik txapela janzten dut. Hiru alditan erori zait ilea, baina eder nago", kontatzen du.

Markeliñeren helburua da minbiziaren gaineko tabuak apurtzea, eta drama bat egin barik, "itxaropena, irribarrea eta baikortasuna" transmititzen duen lana egin dute. Antzezlanaren une batzuetan barre algarak entzun ziren Oñatiko Santa Ana antzokian.

Dena den, minbizia eta heriotza eskutik heldura daude une askotan, eta heriotzak ere presentzia dauka antzezlanean. Aitak izaten duen makalaldietan, antzokiko argiztapena jaitsi, eta heriotzak lekua hartzen du taula gainean: musikarekin eta gorri kolorearekin.Une larri horiei aurre eginez, bizitzaren kolore zuria gailendu zen *Ilegorri*ri alta ematen diotenean.

JON KEPA ZUMALDE | AKTOREA

"Minbiziari buruz normaltasunez berba egitea izan da zailena"

M.B.

Jon Kepa Zumalderen alabak minbizia izan zuen txikitan. Esperientzia horretan oinarrituta idatzi zuen *Hareazko ipuinak* antzezlana.

Minbizia duzue oinarri.

Nire alabarekin izandako esperientzian dago oinarrituta. Txikia zenean minbizia izan zuen eta ordu asko pasa genituen ospitalean. Hori guztiori aintzat hartuta idatzi nuen istorioa. Gogorra bezain hunkigarria eta polita.

Erraza izan da hori guztia kontatzea?

Ez. Urte asko pasa da ordutik. Une gazi-gozoak bizi izan genituen. Zailena, minbiziaz normaltasunez berba egitea da. Puntu horretan animatu nintzen lana idaztera. Erronka izan da niretzat. Gizarteak minbizia heriotzarekin lotzen du. Askotan hala da, baina beste askotan ez. Minbiziak dituen tabuak apurtzen laguntzeko bideak erakusten ditugu.

JOSETXO ARANTZABAL

Liburuak trukatzen, Bergaran

Jardunek antolatuta liburuak trukatzeko aukera izan dute bergararrek aste bukaeran, egubakoitzean eta zapatuan. "Ekimen parte-hartzailea" dela diote Jarduneko, eta horregatik "balorazio positiboa" egin dute. Truke azokarako liburuak eman zituzten herritarrek izan dute aukera sailkapen bereko beste bat hartzeko.

JOSETXO ARANTZABAL



JOSETXO ARANTZABAL

Santa Zeziliaren omenezkoak

Aste bukaeran Santa Zeziliaren omenezko kontzertuak egin dituzte gurean; besteak beste, Arrasaten eta Aramaion. Arrasate Musikaleko kideek emanaldi bikoitza egin zuten aste bukaeran, egubakoitzean eta atzo. Bestalde, Aramaioko Bizente Goikoetxea abesbatzak kontzertua egin zuen atzo, domeka, San Martin elizan.

Asturias aldetik bi sari ekarri ditu Ganbara Abesbatzak

Aviles Hiria lehiaketan lehenengo saria eta jatorrizko herrialdeko kantu baten interpretazioagatik sari berezia ekarri dute etxera oñatiarrek

ZURIÑE V.D.M. | OÑATI

Laugarrenez aritu da Oñatiko abesbatza Aviles Hiria abesbatzen topaketan, eta bigarrenez eskuratu du lehenengo postua asteburu honetan. Gainera, sari berezia ere eman diote, jatorrizko herrialdeko kantu baten interpretazioagatik, hain zuzen ere.

Bost kantu, bi sari

Zapatuan izan zen finala, eta Ganbara Abesbatzarentzat izan zen Avileseko lehiaketan sari nagusia, eskainitako erakustaldi bikainagatik. Bigarren berriz Urdaitzeko (Nafarroa) Aizaga abesbatza geratu zen, eta hirugarren saria Gli Passiorati taldeari eman zioten. Antolatzaileen esanetan, ez zen erraza izan erabakia hartzea, maila altua erakutsi baitzuten hirurek.

Aviles Hiria topaketako 1.go saria eskuratzeaz gainera, Josu Elberdinen *Segalariak* kantuarekin jatorrizko herrialdeko kantu baten interpretazioagatik sari berezia eman diote talde oñatiarrari.

Baina *Segalariak* kantuaz aparte, Tomas Luis de Victoriaren *Lauda Sion Salvatorem*, Vytautas Miskindisen *Gloria*, Albert Alcatraz konpositorearen *Fariñona y Marañueles* eta Pedro Brañaren *Avilés Romántico* ere interpretatu zituzten Avilesen.

Oso pozik eginiko lanaz

Nazioarteko txapelketa da Avilesen egiten dena. Maila bikaina erakutsi zuten bertan Aitor

Ganbara Abesbatzako kideak, lehiaketa irabazi ostean. | GANBARA ABESBATZA

Biainen zuzendaritzapean Ganbara Abesbatzako hogeita hamabi lagunek eta Oñatira oso pozik itzuli direla adierazi digute: "Oso gustura geratu gara egindako lanaz. Primeran abestu dugu, eta maila ona erakutsi dugula iruditzen zaigu".

Ez da sariketa arrotza oñatiarrentzat. Laugarren aldiz aritu baitira bertan. Hala adierazi digu Miren Arregi kideak: "Oso lehiaketa polita da, eta gainera, etorri garen guztietan, oso ondo tratatu gaituztela esan behar dugu".

ESANAK

"Primeran abestu dugu eta maila ona erakutsi dugu"

MIREN ARREGI | GANBARA ABESBATZA

Bestalde, finkatutako helburua erdietsi dutela gaineratu dute: "Hain zuzen ere, irabaztera joan ginen, eta lehenengo saria ekarri dugu etxera".

Amets eginez Minimonekin

Z.V.D.M. | BERGARA

Zapatu arratsaldea da Zabalotegi aretoan; taula gainean Nats Nut talde kataluniarra eta jendaurrean aktore bakarra. Sarah Anglada da bera eta aurreneko unetik lortzen du etxeko txikienak sarean harrapatzea.

Alegiazko laguna

Ume baten alegiazko laguna da Lua deitutako protagonista, eta mutikoaren gela jolas-parke bilakatzen du obran: hala, ohea itsasontzi bihurtzen du, tiraderetatik burbuilak ateratzen ditu, baita oihaneko soinuak eta zein landareak ere...

Ia berba barik, eta argien, zein imintzioen bidez eta musikak lagunduta, Minimon ikuskizunak forma hartze du poliki-poliki. Nats Nut taldeak bikain maneiatzen du argien jokoa gainera, arrainak eta marrazoak ageri dira ikuskizunean, eta marrazki bizidun batekin jolas ere egiten du protagonistak.

Amets egiteko eta irudimena dantzan ipintzeko aukera polita.

Antzezlaneko une bat. | J.A.

Betekada Espaloian doinu goxoez gozatzeko

Sortuko dira besteak kantaldiak ikusle asko erakarri zituen atzo iluntzean Espaloira. Petti, Arantxa Irazusta, Alex Sardui, Mikel Urdangarin eta Pier Paul Berzaizek emanaldi bikaina eskaini zuten, eta bertaratutakoek euskal kanta ezagunak interpretatzeaz gainera, Cohen edo Rolling Stones-en zenbait bertsio eskaini zituzten.

JOSETXO ARANTZABAL

JOSETXO ARANTZABAL

Debagoieneko **PROFESIONAL LIBERALAK**

ABOKATUAK

BERNARDINO MAIZTEGI
BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

JUAN ANTONIO SIERRA
BERGARA / Irizar 2
Tel.: 943 76 03 35

BEGOÑA LASAGABASTER
ARRASATE / Iturriotz 15, 1 A
Tel.: 943 79 98 86
Faxa: 943 77 01 08
blasaga@conet.es

RAFAEL ARANBURU
BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

ROSA BEITIA / ATXEN MUNGIA / NAIARA MENDIBIL (ZENBAKI)
ARETXABALETA / Basabe ind. f-0-10-pab.
Tel.: 943 71 21 12
zenbaki@zenbaki.es

AHOLKULARITZAK

AIERDI AHOLKULARITZA
BERGARA / Artekale 1
Tel.: 943 76 03 50

ANDRA MARI AHOLKULARITZA
ARETXABALETA / Andra Mari auzunea 3
Tel./Faxa: 943 79 29 26
andrama@arrakis.es

ASEGI AHOLKULARIAK
ARRASATE / Otalora Lizentziaduna 4
Tel.: 943 71 25 49
Faxa: 943 71 17 79
asegi@asegim.com

TBG AHOLKULARITZA
BERGARA / Matxiategi 36
Tel.: 943 76 90 83

ZENBAKI AHOLKULARIAK
ARETXABALETA / Basabe ind. F-0-10 pab.
Tel.: 943 71 21 12
Faxa: 943 71 22 68
zenbaki@zenbaki.es

ARKITEKTOAK

BIARK ARKITEKTOAK
ARRASATE / Usaetxe plaza 1, behea
Tel.: 943 79 80 33
www.biark.net

ARKITEKTO TEKNIKOAK

JESUS LASKURAIN PEREZ
BERGARA / Zurradero 4
Tel.: 943 76 53 53

ETXE ADMINISTRAZIOAK

URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK
ARRASATE / Otalora 16, solairuartea esk.
Tel.: 943 79 51 25
Faxa: 943 71 19 85
uribesalgo@telefonica.net

PROKURADOREAK

JOSE M. BARRIOLA ETXEBERRIA
DONOSTIA / Easo 57-3 esk.
Tel.: 943 45 27 26 / 656 41 55 49

Iragarkia jarri nahi baduzu,
deitu **943 25 05 05** zenbakira.

GURE MUSIKA TALDEAK

"Ez dugu sentitzen edo pentsatzen duguna esateko konplexurik izan"

- Gosek bosgarren lana kaleratu berri du, izenik gabekoa eta laranja kolorekoa
- Lehenengo aldiz, ekoizle talde batekin lan egin du, SPAM taldeko Juan Sueiro eta Molirekin

Goseren bosgarren lanaren argazki promozionala. | DAVID HERRANZ

ANDER MONEDERO | ARRASATE

2004an sortu zen Gose taldea trikitiaren eta techno musikaren arteko nahasketa egiteko. Lehenengo urtean, ideiak finkatu zituzten eta 2005an lehenengo lana grabatu zuten. Ordutik, beste lau disko eta enkarguz egindako hainbat abesti kaleratu dituzte. Orain, *IIIII* (bosgarren diskoa) edo laranja kolorekoa kaleratu berri dute, eta horretaz gehiago jakiteko eurekin izan gara.

Oraingoan laranja izan da aukeratu duzuen kolorea.

Disko guztiak egin baino lehenago kolorea aukeratu izan dugu. Diskoa grabatu, kaleratu eta elkarrizketa batzuk egin ostean, justifikazio poetiko bat bilatu dugu. Egia esan, ez dugu arrazoi konkreturik, momentuan sortzen den gauza bat da. Horregatik ez diegu diskoei izenik jartzen. Bakoitzari kolore bakoitzak gauza desberdin bat iradokitzen dio.

Disko hau inoiz baino *Goseago* dela esan duzue.

Bai, inoiz baino gehiago. Gaur egun dagoen egoerarekin, urteetan zehar egin dugun apustua ona izan dela uste dugu. Bai letretan eta baita musikan hustu egin gara. Letrak inoiz baino gogorragoak dira, ez dugu sentitzen edo pentsatzen duguna esateko konplexurik izan. Badira bi edo hiru urte kantu berriekin disko bat egiten ez duguna, eta barruan gauza asko gordeta genituen.

Orain arte zuek ekoiztu dituzue zuen lanak, eta oraingoan, Madrilgo SPAM taldeko Juan Sueiroren eta Moliren laguntza izan duzue. Zergatik?

Kantuak guk sortu ditugu, baina hasieratik SPAM taldekoak lan honetan asko inplikatu dira. Prozesu progresiboa izan da, lan gehienak elkarrekin egin ditugu. Apustu pertsonala izan da, inertzia batean lan egiten sartuta geundela ikusi genuen eta gauzak beste era batera egiteko beharra sentitu genuen.

Espainiako techno eszenan aski ezagunak diren ekoizleengana jo duzue.

Asko begiratu dugu, aukera diferenteak izan ditugu eta genuen techno munduko norbait izan behar zela ekoizlea. Azken finean, gauzak egiteko moduan, batez ere, Gose techno taldea da: abestiak ordenagailuko sekuentziaren aurrean egiten ditugu. Laborategiko lana egiten dugu eta SPAMi gure aukerak eta baliabideak zeintzuk ziren azaldu, eta, gustatu egin zitzaienez, aurrera egin genuen.

Trikiarekin harritu egingo ziren.

Bai, ez zuten instrumentua ezagutzen eta hizkuntza ere oso arraroa egiten zitzaien. Abestien letrak grabatzerakoan beti egoten ziren eztabaidak, baina horrek asko aberasten du. Hala ere, gertuko jendeak ez du diferentzia askorik nabaritu, baina, guk bizi izandakoarengatik, guztiz desberdina izan da.

Kasualitatea edo ez, diskoaren zazpigarren abestiak *SPAM* du izena.

Patuaren gauza izan da! Diskoa egin aurretik abesti hori egin behar genuela argi genuen. Duela denbora bat komunikabide batek Gose Euskal Herriko spam sortzaile handienetako bat zela esan zuen, eta kantu bat egiteko sekulako gaia eman ziguten. Gaur egun, sarearen anonimatuak babestuta, gauzak oso erraz esaten dira eta albisteak azkar esatean eta ez kalitatean oinarritzen direnei buruz hitz egiten du.

Abesti horretan Arkaitz Biainen laguntza duzue.

Nahiz eta musikalki desberdinak izan, oso gertukoak sentitzen ditugun talde batzuk ditugu eta horietako bat Anger da. Beti bezala, plazera izan da Arkaitzen laguntza izatea.

***Zaborra* izeneko kantuan ere kolaborazioa duzue.**

Eneko Barberenak egin du abestiaren letra. Egia esan, ez gara besteen hitzak abesten dituen talde bat, hori ez dugu gustuko. Eneko da guri abesti baten letra egin digun pertsona bakarra, disko gorrian gurekin kolaboratu zuen eta honetan ere errepikatu du.

"Bakoitzari kolore bakoitzak gauza bat iradokitzen dio"

Bad F-line taldearen abesti baten moldaketa egin duzue.

Gustuko dugun abestia da, soinu oso industriala du. Musika Bad F-line-ena da, baina hitzak gureak dira. Iñaki talde horren parte izan zen eta guregan eragina izan duen talde bat da.

Autoekoizpenaren alde egiten jarraitzen duzue.

Duela bi hilabete lanez gainezka geundenean, agian beste gauza bat esango nuen... "nazkaturik gaude, dena guk egin behar dugu..." [Barre], baina orain, oso harro esaten dugu oraingo egoera ikusita, autoekoizpena bide duinena dela. Diskoetxeekin izandako esperientzia eta eskaintzak ez dira gure beharretara moldatu eta horregatik egiten dugu autoekoizpenaren aldeko apustua. Ez gaude diskoetxeen aurka, gure alde apustu zintzoa eta interesgarria egiten badigute gustura onartuko genuke, baina, tamalez, ez dugu gure beharretara moldatzen den eskaintzarik jaso.

Durangoko Azokako Ahotsenean aurkeztuko duzue diskoa.

Urtean behin kulturzale edo kultura militante bihurtzen gara! Behintzat kulturan kontsumitu eta saltzeko lekua dugu, nahiz eta hori euskal kulturan oasi bat izan. Autoekoizpenaren apustua egiten dugunontzat gure musika saltzeko leku bakarretarikoa da eta aurten, bertan egingo dugu gure lehenengo kontzertua. Gainera, Ahotseneak azoka dinamizatu egin du eta erakusleiho bikaina da. Kontzertua formatu txikiago batean da, baina duen garrantzi guztia eman nahi izan diogu.

Noiz hasiko zarete kontzertuak ematen?

Urtarriletik aurrera zuzenekoak egiten hasiko gara. Orain diskoa aurkeztu eta elkarrizketak egiten gabiltzan bitartean, ikuskizun berria prestatzen ari gara. Diskoaren ekoizpenean bezala, ikuskizunari ere buelta bat emango diogu. Zerbait desberdina emateko beharra sentitzen dugu.

ZERTZELADA

IIIII

Estiloa: Techno, trikitia.

Egilea: Gose (Arrasate, 2012).

Argitaletxea: Jangura produkzioak.

Iraupena: 39 minutu.

Technoan murgildu, baina emaitza aberastu dute

Hirukoteak Madrilera jo du bosgarren diskoaren ospakizunerako jantzi naranja technoagoa janzteko. Hala, diskoaren aurrerapentzat aukeratutako Bang! oso dantzagarria da; Ezetz elektronika eta trikia ezinhobeto ezkontzen dituen hit!-a da; Bad F-Lineren Desolé bertsioan esperimentatu dute; Zaborra ia musika industrialera eraman dute; 80ko hamarkadako discoa (XXX) eta DZ with Patrol Destroyersek Naizena izateko-ren remix borobila egin dute. Bestalde, bada Maurizia berpiztuko lukeen kantu siziliano-balkaniko ederra (Kamarada); drum&bass eta raggamuffira hurbiltzen den Spam; eta makinak gitarren agindutara jarritako ospakizun-iraultzaileko Hil da Europa, hau ere hit!-a

IKER BARANDIARAN

1. ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Almeria (Almeria). 80m2-ko etxebizitza salgai. 2 logela handi, komun bat, balkoi bat, sukaldea eskegitokiarekin. Igerilekua eta hondartzatik 50 metrotara. Guztiz jantzi barik eta estreinatu barik. Oso argitsua. Prezioa 110.000 euro. 608 19 73 17.

Arrasate. Zarugalden. Bi logela eder, egongela zabala, sukaldea eta komuna. Horrez gain, terraza zabala, balkoia, trastelekua, igogailua eta berokuntza indibiduala. Sukaldea eta komuna guztiz jantzita. 2006ko eraikina da. Interesatuok, idatzi zarugalde26@yahoo.es helbidera informazio edo argazki eske, edo deitu telefono zenbaki honetara: 660 20 58 92.

Arrasate. Krisira egokituriko prezioa. Etxe eraberritua salgai. Altzariz hornitua eta oso eguzkitsua, denak kanpoaldera ematen du. Hirulogela, bikomun, egongela eta sukaldea. Hiru igogailu eta gas naturala. Interesatuok deitu telefono honetara: 650 01 05 15.

Arrasate. Juan carlos Guerra kalean etxebizitza saldu edo errentan ematen da. Larrañaga optika gainean. 90 m2koa. Prezio oso onean. Hiru logela, egongela eta komun batekin. Bi balkoi ditu etxeak. Etxea egoera onean dago eta bizitzen hasteko moduan. 616 50 67 28, 665 72 46 12.

Asturias. Asturias-en bi pisuko etxea eta lur saila salgai. 649 40 26 22.

Bergara. Bidekurutzeta kalean etxebizitza salgai. Sukaldea, egongela, bi logela, bainugela eta trastelekua. Guztiz berritua. Aukera oso ona. 114.000 euro. 618 44 38 44.

Bergara. Bergarako erdialdean apartamentu berria salgai. Lursail txiki bat dauka. Deitu 695 70 11 72 telefonora.

Berriz. Olakueta auzoan, etxe argitsua eta bista ederrekin. 3 logela haundi, balkoiarekin lotutako egongela eta sukaldea. Komun bi. Igogailua eta ganbara. Garraio publikoetatik minutu batera. Harremanetarako: 685 72 46 90 / 675 71 23 69.

Berriz. Berrizen pisua salgai. 3 logela, 2 komun, sukalde berriztua, 2 balkoi, egongela handia, ganbara eta garaje itxia. Oso eguzkitsua. Egoera ezin hobean. Tel: 647 77 73 92.

Cuzcurrieta del rio Tiron (Errioxa). Hiru logela, garagea eta igerilekua eta lorategia komunitarioak. Prezioa: 100.000 €. 692 99 43 51.

Durango. 86 m2 ko etxebizitza salgai, Murueta Torre 7n. 2 logela, 2 komun, sukaldea eskegitokiarekin, ganbara eta garajea. Solairua: 5. Prezioa: 270.000 euro. 688 64 26 43 (Jaione).

Durango. Askatasun etorbidean pisua salgai. Dena hegoaldera, oso eguzkitsua egun osoan, 83m2 erabilgarri, 3 logela, 2 komun, 2 garaje handi, trasteroa, igogailua garajeraino, oso ondo zaindua eta modernoa. 652 75 54 46.

Elorrio. Duplex etxebizitza, 78 m2 erabilgarri (90 m eraikiak). Argitsua eta isila, errekara begira. Egongela nasaia, logela bi eta bainugela bi. Errekakale, 10 bigarren solairua. ziortzaloizate@hotmail.com 605 72 29 45.

Elorrio. Elorrio erdigunean estreinatu gabeko etxea salgai. 77m2, 3 logela, 2 bainu eta garajea, altzariekin. Prezioa, 230.000euro. 634 45 72 01.

Eskoriatza. Apartamentu eroso eta eguzkitsua salgai. Prezio negoziagarria. Aukera paregabea. 653 71 53 58 edo 637 42 70 12

Iurreta. Pisu bat salgai Arriaundin, Iurretan. 66.000 euro. 685 72 80 42.

Mallabia. Pisu eguzkitsua, 3 logela haundi, 2 komun, terraza, sukaldea eta egongela. 112m2 azalera eraikituak. Aukera bikaina. 695 77 31 41.

Mallabia. Pisu eguzkitsua, 3 logela haundi, 2 komun, terraza, sukaldea eta egongela. 112m2 azalera eraikituak. Aukera bikaina. 695 77 31 41.

Oñati. 68 metro koadroko etxebizitza salgai erdigunean. Sukaldea, egongela, bi logela eta komuna. Guztiz jantzia eta bizitzera sartzeko moduan. Berokuntzarekin. 237.000 euro. 35 metro koadroko garajea aukeran. Egoera oso onean. Inigo. 659 72 06 64.

Oñati. Lau logelako etxebizitza salgai. Bi komun, sukaldea, egongela eta trastelekua. Igogailua eta berokuntza indibiduala. Oso eguzkitsua. Prezio interesgarria. 635 06 24 79

Otxandio. Otxandion apartamentua salgai. Trastelekua eta igogailuarekin. 675 71 72 83.

103. ERRENTAN EMAN

Altsasu. Logela bat, terraza eta balkoia, argitsua, altzariekin eta aparkalekuarekin. Tel: 616 07 52 68 eta 639 46 07 86.

Altsasu. Sukaldea, jangela, komuna bat, igogailua, garaje plaza eta trastelekua. Telef: 948 18 53 75 eta 607 91 33 28.

Aretxabaleta. 95 metro koadro erabilgarri. Etxebizitza berria, hirugarren solairuan. Igogailuarekin. Hiru logela eta bi bainugela. Dena kanpoaldera begira. Hilean 680 euro, komunitate gastuak barne. Argazkiak ikusteko: www.euskalnet.net/aguirre 630 60 47 75

Arrasate. Erdialdean apartamentu berria ematen da errentan. Logela, bainugela, sukalde-egongela. Trastelekua. Pertsona batentzat edo bikoteentzat apartekoa. 639-17 49 52.

Arrasate. Musakola auzoan, etxea alokagai. Hiru logela, argitasun asko eta egoera onean dago etxea. 679 97 76 46.

Bergara. Etxebizitza ematen da errentan San Lorentzo auzoan. Bi logela, egongela, sukaldea, komuna, trastelekua, balkoia. Ganbara jabearekin partekatua. 550 €. 653 70 22 55

Donostia. Lokal moduko etxebizitza bat alokatzen det Donostian, Antiguo auzoan bertan. Persona bat edo bintzako egokitua,bi planta dauzka. Eguskitzua da eta lasaia. Prezio 500 euro. 609 48 11 24.

Durango. Durangon logela bat alokatzen dut. 630 76 18 28 (deitu arratsaldez).

Durango. Durangoko erdigunean logela biko etxea alokagai. Guztiz berritua. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 695 78 75 35.

Elorrio. Elorrion pisu bat alokagai. 3 logela, altzariz jantzia. Bizitzeko prest. Prezioa 500 euro. 94 658 20 18.

Iurreta. Iurretan logela alokagai. 200 euro, gastuak aparte. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 633 23 38 48 Jon.

Oñati. Etxebizitza ematen da errentan Kurtzebide kalean. Hiru logelakoa. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 615 73 29 83.

ZURE IRAGARKIAK

IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.com | www.goiena.net/sailkatuak

Egueneko 16:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.
GOIENAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

ORDAINTZEKO ATALAK DIRA: **PREZIO BEREZIA** GOIENA KLUBEKO BAZKIDEENDAKO

- Etxebizitza Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan. Irakaskuntza eman. Motorra Saldu/Alokatu.
Egubakoitzean + Astelehenean: 22 € (BEZ barne).
Astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.

- Profesionalen moduluak.
Modulu bakarra egubakoitzean EDO astelehenean: 22 € (+BEZ).
Egubakoitzean + Astelehenean: 29 € (+BEZ).

Debagoienetik kanpoko iragarkiak, web gune honi esker eman dizkizugu: iragarkilaburrak.com

Otxandio. Otxandioko erdigunean etxe bakarra alokagai. 605 77 37 21.

Santo Domingo de la Calzada (Errioxa). Pisu berria alokatzen da Santo Domingo herri erdian. Ezkaraitik hurbil. Denboraldietarako. 2 4 pertsonentzako. 657 77 26 13

Zaldibar. Erdialdean, guztiz berriztua, jantzi barik, 2 logela. 660 45 87 56.

104. ERRENTAN HARTU

Arrasate. Etxebizitza hartuko nuke errentan. Ahal bada erdialdean edo gertu. Hiru logelakoa. 679 60 08 48.

Arrasate. Etxebizitza txiki edo apartamentu baten bila nabil errentan hartzeko. Deitu zenbaki honetara: 653 72 43 19.

Arrasate. Bikote euskalduna eta arduratsua. Arrasaten pisu txiki baten bila gabiltza. Urtarrilean sartzeko. 636 38 81 00.

Bergara. 2 edo 3 logelako etxebizitza alokairuan hartu nahi dut. 600 29 05 24.

Bergara. Bi edo hiru logelako etxebizitza errentan hartu nahi dut. Prezio onean. Deitu zenbaki honetara: 671 84 71 71.

Elorrio. Pisu baten bila nabil alokatzeko, 3 logelarekin eta altzariekin. 94 658 21 91.

105. ETXEAK OSATU

Arrasate. Logela ematen da errentan erdigunean. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 657 55 81 15.

Arrasate. Hiru neska euskaldun gara eta Arrasaten pisukide bila gabiltza gela bat betetzeko; neska zein mutil. Pisua alde zaharrean dago, handia eta argitsua da, lau logela, bi komun, sukaldea eta egongela handi eta eguzkitsua ditu. Alokairua, wifia, telefonoa eta gastuak, 220 230 euro hilean, pertsonako. Animatu eta deitu! 608 57 97 70 / 665 71 69 10.

INMOBILIARIA
Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com

ETXEBIZITZAK SALGAI

BERGARA:
- 150.000€ baino gutxiagotan pisuak salgai egoera onean.
- Bidekurutzeta 60 m², 2 logela. Erabat berriztua. Igogailuarekin. 154.761€.
- San Pedro 70 m², 4 logela. Erabat berriztua. Garakea aukeran. 150.000€.
- Bolu 66 m². 2 logela. Trastelekua. Garajea aukeran. Oso ondo. 150.250€.
- Bidekurutzeta 65 m². 2 logela. Trastelekua. 120.000€. PREZIO JEITSIERAREKIN
- Matxiategi 65 m², 3 logela. Berogailua, igogailua eta trastelekuarekin. 150.000€.
- Koldo Eleizalde 74 m². 3 logela. Trastelekuarekin. 160.000€. Aukera ona
- Zabalotegi 80 m². 3 logela. Igogailua. 154.760€.
- Azkarruntz 75 m². 3 logela. Berrituta. Oso ondo. 144.243€.
- Zubieta 60 m², 3 logela. 126.213€.
- Zubieta 70 m², 2 logela. 150.253€.
- Masterreka 45 m². Logela bat. 150.253€.
- Ibarra 65 m². 3 logela. Berriztua. 150.000€.
- Bolu 66 m². 2 logela. Trastelekua. Garajea aukeran. Oso ondo. 150.250€.
- Artzamendi 70 m². 2 logela. Igogailu eta berogailuarekin. 154.760€.
- Zubiaurre 82 m². Igogailu eta berogailuarekin. Egoera onean. 132.223€.
- Zabalotegin 2 eta 3 logeletako pisuak 120.000€ baino gutxiagotan. AUKERA BIKAINA.
- Bidekurutzeta 147 m². Igogailuarekin. 180.000€.
- Martzial Agirre 60 m², logela bat. Terraza eta trastelekuarekin. Garajea aukeran.
- Matxiategi 60 m². 2 logela. Igogailua. Erabat berriztua.
- Fraizkozuri 100 m², 4 logela, 2 balkoirekin. Igogailua. Prezio jeitsierarekin.
- Fraizkozuri 78 m². 3 logela. Balkoia, trastelekua eta garajearekin. 205.000 €.
- San Lorenzo 85 m², 3 logela. Balkoia, trastelekua eta garajearekin. 210.354€.
- Boni Laskurain 90 m², 3 logela. Trastelekua eta garajearekin. Oso ondo.
- Ibargarai 90 m². 3 logela. Igogailua eta berogailuarekin. 240.405€.

ANTZUOLA:
- Beheko Auzoa 60 m². 2 logela. Oso ondo. Prezio jeitsierarekin.
- Errekalde 94 m². 3 logela. Igogailu eta berogailuarekin. 120.202€.
- Zurrategi 83 m². Oso ondo. Prezio ona.
- Sagasti 90 m². 3 logela. Oso ondo. Prezio jaitsierarekin.
- Buztinzuri, Sagasti, Antigua, Zurrategi, Beheko auzoa, Ibarre auzoa, San Josepe, Aierra eta Errekalde. Etxe onak.

SORALUZE:
- Sagar Erreka, Rabal, Atxuri eta Rekalde. Etxe onak.

ELGETA:
- Domingo Iturbe 90 m², 4 logela. 126.212€. Prezio jeitsierarekin.
- Torrealdea 77 m². 3 logela. Berria. Oso ondo.
- Domingo Iturbe, adosatua 150 m² + 45 m² garajea + 90 m² lursaila.

Arrasate. 250 euroan Erguinen logela ematen da errentan. Gastuak erdibana. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 610 62 65 04.

Arrasate. Logela ematen da errentan erdigunean. Iñaki. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 608 49 89 93.

Arrasate. Logela handi bat emango nuke errentan, Arrasateko erdialdean. 629 80 77 73

Arrasate. Erdialdean gela ematen da errentan. 225 euro, gastuak barne. Hobeko emakumea bada. 943 77 13 02

Bergara. Lagun bat behar da etxea osatzeko Bolun. Prezioa: 250 euro, dena barne. Wifiarekin. 670 85 86 68.

Berriz. Gela bat alokatzen da Berrizen. 662 92 69 11.

Durango. Pisukide bila gabiltzan bi lagun gara. Hizkuntza Eskola aurrean dago pisua, alde zaharretik oso gertu, eta Tabirako lasaitasunagaz gozatzeko aukera aproposa. Animatu! 679 62 04 47.

Durango. Durangon logela bat alokatzen dut. Madalenoste kalean, autobus geltokiaren ondoan. 650 73 87 24.

Durango. Bi pertsona hirugarren Baten bila tabiran behe pisu bat konpartitzeko. 3 logela, 2 komun. 637 29 24 65.

Gasteiz. Logela ematen da errentan. Unibertsitate inguruan. 651 55 36 29.

Mutriku. Logela bat alokatzen da mutrikun. Etxe eguzkitsua eta lasaia. Itxasoari eta mendiari begira. Tel:. 649 51 88 15.

2. GARAJEAK

201. SALDU

Durango. Durangon Fray Juan de Zumarraga kalean (Euskaltel dendaren azpian), garaje/trastero itxia salgai. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 629 41 43 63.

Durango. Fray Juan de Zumarraga kalean, 8m2 ko trasteroa alokatu edo saltzen da. 629 41 94 11.

Durango. Durangon partzela bat salgai, Antso Estegiz kalean. Motorretarako eta atoietarako. 666 33 35 72.

Elorrio. Garaje itxia salgai Elorrio erdialdean, 20.000 euro. 660 45 87 56.

Elorrio. Elorrioko Berrio Otxoa kalean garaje itxia saltzen da. Interesa baduzu eta informazio gehiago nahi baduzu, deitu! 658 75 92 64.

Elorrio. Garaje itxia salgai Elorrio erdialdean, 20.000 euro. 660 45 87 56.

Otxandio. Bi garaje salgai, bat itxia. 675 71 72 83.

203. ERRENTAN EMAN

Arrasate. 15,5 metro koadroko garaje itxia saldu edo errentan ematen da erdigunean. Kontzezino Iturbide egoitza artean. Deitu 628 14 92 74 edo 943 77 08 02 telefono zenbakietara.

Bergara. Ibargarai kalean garaje itxia ematen da errentan. Maniobra egin barik sartzeko modukoa. 679 74 00 61

Durango. Garajea alokagai. Askatasun etorbidea, 35. 50euroan. 675 71 95 54.

Durango. Durango erdigunean, Ezkurdi inguruan kokatuta dagoen garajea errentan. 629 24 07 23.

Durango. Garaje itxia errentan Durangon, erdigunean kokatua. 629 24 07 23.

Elorrio. Garajea alokatzen dugu Elorrion. Kiroldegiko lehen solairuan. 40 euro hilean. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 94 623 14 02.

3.LOKALAK

301. SALDU

ARRASATE
Taberna salgai alde zaharrean.
666 40 65 19

Durango. 25 m2 ko eraikuntza berriko lonja, Durangon. Bulego baterako edo komertziorako aproposa. Zonalde komertzial onean kokatua. Gutxienez bilogela dituen etxebizitza batengatik aldatzen dut. 688 81 85 92.

Gasteiz. Azken erabilera: Tailer mekanikoa. Garbitzeko, engrasatzeko eta ibi lizentzia ditu. Bulegoko altzariak eta garajeko atea. Portero automatikoa eta alarma. 2 komun ditu, bat mugikortasun urriko pertsonei moldatua. Hiri erdigunekiko komunikazio onak ditu. Autobus geltokiak hurbil daude. Alokatzea ere posible da: 800 euro/hil. 665 75 78 07 (Ana).

303. ERRENTAN EMAN

Durango. Bulego bat alokatzen dut Durangon. 42 m2. Durango erdian. 656 78 02 15.

Durango. 65 m2 ko lokal komertzial egokitua. Eraikuntza berria. Madalena zonaldean. 609 15 92 45 edo 655 24 03 27.

Elorrio. 170 m ko lokal zoragarria Elorrio erdian alokatzeko prest, 4 eskaparate haundiak, autobus geltokiaren ondoan edozein negozio ipintzeko prest primerako baldintzekin. 606 39 00 09.

304. ERRENTAN HARTU

Arrasate. Lagun koadrila batendako 50 metro koadro baino gutxiagoko lokal bat nahiko genuke errentan. 689 37 31 43 (Ander)

4. LANA

401. ESKAINTZAK

Bergara. Pertsona bat behar da etxeko lanak egin eta emakume bat zaintzeko. 669 53 97 03.

ABADIÑO
Administraria behar da. Postuarekin zerikusia duten ikasketak eta euskara beharrezkoak.
administrazioa@gmail.com

402. ESKAERAK

Arrasate. Emakume euskalduna garbitasunak eta plantxa egiteko gertu. Baita umeak zaintzeko ere. 699 54 17 27.

Arrasate. 54 urteko emakumea gertu lanerako. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 943 79 60 89.

Arrasate. Eskoriatza eta Aretxabaletan. Neska euskalduna esperientzia handia duena, prest haurrak zaintzeko, eskolara eramateko edota etxerako lanak egiten laguntzeko. Magisteritzan diplomatua eta hezkuntza berezian espezialista. 600 39 47 77.

Arrasate. Edo Bergaran. Neska gertu lanerako. Nagusiak edo umeak zaitzen eta garbitasun lanetan. Erreferentziaduna. 636 47 64 92.

Arrasate. Bergara edo Aretxabaletan, neska lan bila etxeko lanak egiten edo nagusiak zaintzen. Tabernatan sukaldari. Oso langilea. 697 20 00 86.

Arrasate. Daniela naiz eta pertsona nagusiak zainduko nituzke debagoienan. Esperientzia handia dut. Garbiketa lanak ere egingo nituzke. Egunez eta gauez lan egingo nuke. 698 79 33 87.

Arrasate. Neska arduratsua eta esperientziaduna nagusiak eta umeak zaintzeko gertu. Etxean bertan zaintzeko edo pasioan ateratzeko. 626 35 66 90.

Arrasate. Neska gertu lanerako debagoienan. Nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbitasun lanak egiteko ere bai. Etxean bertan bizi izateko gertu nago, asteburuak barne, edo orduka lan egiteko ere. Erreferentziak ditut. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 636 41 98 14.

Arrasate. Neska gertu pertsona nagusiak zaintzeko, bai etxean bertan bizitzeko edo orduka, baita garbitasun lanak egiteko ere. 682 31 97 37.

Bergara. Esperientziadun emakumea lanerako prest. 617 12 61 44.

Bergara. Pertsona arduratsua behar da etxeko lanak egiteko. Hasieran, astean 2 ordu. Interesatuek deitu 19:00etatik 21:00etara. 654 05 91 77.

Bergara. Arratsaldetan nagusiak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. 665 75 41 32.

Bergara. Umeak zainduko nituzke. 22 urteko neska euskalduna naiz eta umeekin esperientzia handia daukat. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 681 73 361.

Debagoiena. Sukaldaria, esperientziaduna, lan egiteko prest. Lorea. 677 64 84 82 / 943 53 34 24.

Debagoiena. Asteburuetan lan egingo nuke nagusiak zaintzen edo garbitasun lanetan. 699 09 46 26.

Debagoiena. Emakumea gertu nagusiak zaindu edo garbiketak egiteko. Tituluduna. 680 77 06 46.

Debagoiena. Neska gertu nagusiak zaindu, denetariko garbiketak egin edo bestelako lanetarako. Etxean bertan bizi izaten, orduka, gauetan zein asteburutan. Esperientziaduna. 626 91 49 04.

Debagoiena. Neska gertu nagusi eta gaixoak zaintzeko. Klinika laguntzaile tituluarekin, egoitza eta abarretan esperientziaduna. Ospitale zein etxean gauak egiteko ere gertu. 943 25 02 96, 662 58 96 11.

Debagoiena. Hondurasko 22 urteko neska bat naiz. Berehala lanean hasteko prest nago, langile fina naiz eta arduratsua. Pertsona nagusi zein haurrak zaintzen eta garbiketa lanak egiten esperientzia daukat. 616 84 89 26.

Debagoiena. Neska gertu lanerako: nagusiak zaintzen, etxeko lanak egin, garbiketak, sukalde zein tabernatan. 610 99 70 46.

Debagoiena. Neska gertu nagusiak zaindu, garbitasun lanek egin edo bestelako lanetarako debagoienan. 722 14 42 86.

Debagoiena. Neska gertu ume eta nagusiak zaintzeko edo garbitasun lanetan jarduteko. 691 03 25 02 / 943 54 09 41.

Debagoiena. Emakumea gertu nagusiak eta umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Nagusiak zaintzen eskarmentuduna. 688 69 07 28.

Debagoiena. Emakumea lan egiteko gertu, garbiketa lanak, etxean bertan nagusiak zaintzen... Fatna. 638 26 98 40.

Debagoiena. Mutil arduratsua lanerako gertu. nagusiak zaindu, garbitasun lanak edo beste edozein lan. 633 28 81 24.

Debagoiena. Neska arduratsua lanerako gertu. Orduka, etxean bertan bizi izaten zein bestela. Esperientzia eta erreferentziaduna. 617 64 08 48.

Debagoiena. Neska euskalduna etxeak garbitzeko, ospitaletan gauak egiteko edo umeak zaintzeko gertu. Kotxea daukat. Disponibilitate osoa, esperientzia eta informeak. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara;: 671 35 22 60.

Debagoiena. Neska gertu ume eta nagusiak zaintzeko, etxean bertan bizi izaten edo bestela. Baita garbiketa lanak egiten ere, atari eta abarretan. Erreferentziak ditut. Deitu telefono zenbaki honetara;: 636 41 98 14.

Debagoiena. Neska gertu umeak edo nagusiak zaintzeko, orduka. Baita garbitasun lanetarako ere. 672 70 71 25.

Debagoiena. Pertsona nagusiak edo umeak zainduko nituzke, baita garbiketa lanak egin ere. 679 30 65 28.

Debagoiena. Etxeko lanetarako zein pertsonekin jarduteko gertu. Umeak edo adineko pertsonak zaintzeko gertu. Orduka, etxean bertan bizita edo edonola. Etxeak, atariak... Garbitzeko prest. Debagoiena osorako. 699 14 17 38 (Karen),

Debagoiena. Emakumea gertu pertsona nagusiak eta umeak zaintzeko. Etxean bertan bizi eta lan egiteko. Ospitalean gauez gaixoak zaintzeko. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara;: 602 37 14 43.

Debagoiena. Emakumea gertu, arduratsua eta esperientziaduna, umeak zaintzen, garbiketak orduka egiteko edo nagusiak zaindu edota paseoan laguntzeko. 943 71 53 74 / 695 73 87 95.

Debagoiena. Mutila gertu nagusi zein umeak zaintzeko eta baita baserriko lanetarako ere. 622 77 60 65.

Debagoiena. Nagusiak edo umeak zaintzeko gertu nago, baita ospitalean gaixoak zaintzeko ere. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 618 13 46 15.

Debagoiena. Emakume gaztea eta lana egiteko behar handiarekin, gertu pertsona nagusiak eta haurrak zaintzeko edota garbiketa lanak egiteko. 616 62 85 91.

Debagoiena. Mutila gertu nagusiak edo menpekotasuna duten pertsonak zaintzeko. Geriatrian espezializatua. Arduratsua eta berehala hasteko moduan. 634 75 52 61.

Debagoiena. Neska gertu nagusi eta gaixoak zaintzeko. Klinika laguntzaile tituluarekin, egoitza eta abarretan esperientziaduna. Ospitale zein etxean gauak egiteko ere gertu. 943 25 02 96, 688 80 27 01.

Debagoiena. Emakumea lanerako gertu. Garbiketan zein nagusi edo umeak zaintzen. Legezko paperak ditut. 672 96 08 22.

Debagoiena. Pertsona heldu bat behar da etxeko lanak egin eta nagusi bat zaintzeko. 669 53 97 03.

Debagoiena. Neska arduratsua etxe, atari eta abarren garbiketa lanak egin zein nagusiak zaintzeko gertu. 616 62 85 91.

Debagoiena. Mutila gertu harakin laguntzaile lanetarako. Esperientzia daukat hezurrak kentzen eta aurrekozinatutan. Edozein lanetara moldatzen naiz. 610 91 33 40.

Debagoiena. Emakumea lanerako gertu. 943 79 96 25/647 10 58 72.

Debagoiena. Mutila gertu lan egiteko: garbiketak, nagusiak zaindu eta abar. Orduka ere bai. 633 28 81 24.

Debagoiena. Esperientziadun neska edozein motatako lanak egiteko prest. 639 08 86 33.

Debagoiena. Mutila lan bila: peoi, gidari, zaindari eta abar. 651 55 36 29.

Debagoiena. Gaztea lanerako gertu: peoi lanak, gidari lanak. 651 55 36 29.

Debagoiena. Igeltsari, margoketa zein arotz lanak egingo nituzke. Esperientziaduna. Javid. Deitu telefono zenbaki honetara: 632 20 19 41.

Debagoiena. Lan bila nabil: garbiketak, banaketak, edo beste edozein lan. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara;: 679 60 08 48.

Debagoiena. Mutil gaztea, arduratsua, lanerako gertu. Nagusiak eta ospitalean gaixoak zaintzen edo garbitasun lanetan arituko nintzateke. Etxean bizi izaten edo bestela. Wilber. 618 85 12 85.

Debagoiena. Margolari gisa lan egingo nuke. 18 urteko esperientzia. Lehen mailako ofiziala, margoketan. 637 52 89 91.

Debagoiena. Neska arduratsua eta esperientzia duena lan bila dabil. Pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko, baita garbitasun lanak egiteko ere. Etxean bertan bizi izateko gertu nago edo orduka lan egiteko. 633 49 62 53.

Debagoiena. Prest edozein lan egiteko 13:00etatik aurrera: gaixoak edo adineko pertsonak zaintzen zein atari edo elkarteak garbitzen. Tel. 632 88 27 92.

Debagoiena. Sukaldean laguntzaile lanak egiteko edo pertsona nagusiak zaintzeko gertu nago. Gidatzeko karneta daukat. 663 46 93 60.

Debagoiena. Eraikuntzako ofiziala eraikuntzan lan egiteko gertu; edozein motako garbitasun lanetan jarduteko prest ere bai. Autoa eta gidabaimenarekin. Debagoiena osorako. 639 41 68 38 (Rolando).

Debagoiena. Emakumea gertu etxe, lokal, taberna eta abarrak garbitzeko, orduka. 696 88 93 73.

Debagoiena. Emakumea prest orduka edozein motatako lanak egiteko. 600 29 05 24.

Debagoiena. Mutil gaztea lan egiteko gertu: tabernak eta elkarteak garbitzen edo pertsona nagusiak zaintzen. Etxeko lanetan aritzeko eta elikagaiak maneiatzeko ziurtagiria. 622 77 60 75.

Debagoiena. Emakumea gertu orduka lan egiteko. 634 78 19 54.

Debagoiena. Igeltsari, zerbitzari, lorazain edo segurtasun zaintzaile gisa lan egingo nuke. 622 59 92 14.

Debagoiena. Neska gertu orduka, asteburu zein egun osoz lan egiteko. Etxeko lan eta garbiketak egiten edo sukalde laguntzaile. 662 26 71 41.

Debagoiena. Neska gertu nagusiak eta umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Esperientziaduna. 943 25 05 72 / 658 70 56 94.

Durangaldea. Lan bila nabil. Etxeak garbitzen, umeak edo edadekoak zaintzen. Lanaldi osoan edo orduka. Erreferentzia onekin. 638 43 79 01.

Durangaldea. Pertsona arduratsua lan bila, pertsona nagusiak zaintzen, garbiketan, lorezaintzan, baserrietan ere aritzeko prest. 622 47 39 41 // 632 37 28 87.

Durangaldea. Pertsona arduratsua lan bila, 09:00etatik 14:00etara. Zaintzan zein garbiketan. 632 72 43 23.

Durangaldea. Haur Hezkuntza ikasketak dituen neska euskalduna Durangaldean umeak zaintzeko lan bila. 625 70 78 31.

Durangaldea. Emakumea, nagusiak edo umeak zaintzeko lan bila. 24 orduz, egunez edo gauez. Erreferentziekin. 616 78 80 33 Luz Adilia.

Durangaldea. Neska arduratsua eta erreferentziekin nagusiak edo umeak zaintzeko edo etxeko lanetarako lan bila. 24 orduz, egunez, gauez. 608 24 85 54.

Durangaldea. Pertsona nagusiak zaintzeko lan bila. Edozein ordu eta egunetan. Deitu 660 87 53 60 telefonora.

Durangaldea. Lan bila garbiketan edo pertsona nagusiak zein umeak zaintzen. 680 29 66 76.

Durangaldea. Umeen zaintzan, dendari lez, hosteleritzan,... Lan egiteko prest. Deitu 672 69 91 52 zenbakria.

Durangaldea. Asteburuetan edo 24 orduz, pertsona nagusiak zaintzeko lan bila. Deitu 602 12 22 45 zenbakria.

Durangaldea. Nagusiak edo umeak zaintzeko edo garbiketan aritzeko lan bila. 24 orduz, egunez edo asteburuetan. 631 02 29 82.

Durangaldea. Emakume euskalduna Durangaldean eta egunean bi hiru orduz, nagusiak zein umeak zaintzeko prest. 618 40 58 79 (Izaskun).

Durangaldea. Nagusiak zein umeak zaintzeko edo garbiketarako lan bila. 24 orduz edo egunez. 631 24 26 07.

Durangaldea. Orduka zein gauez pertsona nagusiak zen umeak zaintzeko lan bila. 633 93 41 06.

Durangaldea. Neska euskaldunak pertsona nagusiak zaintzeko edo garbiketarako eskaintzen du bere burua. Asteburuetan edo astegunetan. 652 72 02 29.

Durangaldea. Asteburuetan, 24 orduz edo egunez pertsona nagusiak zaintzeko lan bila. 690 68 73 95.

Durangaldea. Pertsona nagusiak zein umeak zaintzeko lan bila. 644 63 51 45.

Durangaldea. Durangaldean pertsona nagusiak zein umeak zaintzeko lan bila. Deitu 631 02 29 32 telefonora.

Durangaldea. Durangaldean 24 orduz pertsona nagusiak zaintzeko lan bila. Deitu 602 12 22 45 telefonora.

Durangaldea. Durangaldean garbiketan, umeak, nagusiak zaintzeko lan bila. Deitu 652 13 00 41 telefonora.

Durangaldea. 24 orduz nagusiak zaintzeko lan bila. Esperientziarekin eta papelekin. Deitu 631 25 09 98 telefonora.

Durangaldea. 24 orduz nagusiak zaintzeko lan bila. Esperientziarekin eta papelekin. Deitu 679 53 01 60 telefonora.

Durangaldea. Nagusiak zein umeak zaintzeko edota garbiketarako prest. Paperekin eta erreferentziekin. Deitu 620 82 85 79 telefonora.

Durangaldea. Esperientziadun neska lan bila. Pertsona nagusiak zein umeak zaintzen edo garbiketan. Paperekin. Deitu 602 81 12 63 telefonora.

Durangaldea. Neska zaintzan edo dendari lez lan egiteko prest. 24 orduz, egunez edo orduka. 618 01 61 99.

Durangaldea. Pertsona nagusien zaintzan 24 orduko lan bila. Esperientzia eta erreferentziak. Deitu 608 12 22 45 edo 632 86 92 82 zenbakietara.

Durangaldea. Esperientziadun emakumea pertsonak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko lan bila. 686 19 00 24.

Durangaldea. Emakumea pertsona nagusiak zaintzeko prest. 24 orduz, egunez edo orduka. 632 05 16 65.

Durangaldea. Esperientziadun emakumea asteburuetan eta jaiegunetan lan egiteko prest. Pertsona nagusiak zaintzen zein garbiketan. Erreferentziaduna. 666 75 21 47.

Durangaldea. Emakume arduratsua arratsaldetan zein gauetan pertsona nagusiak zaintzeko prest. 696 75 35 30.

Elorrio. Neska gazte eta euskalduna, Durangaldean haurrak zaintzeko prest, esperientziarekin. Yanire. 657 77 54 37.

Elorrio. Lehen hezkuntzako edozein kurtsora zuzenduta, arratsaldez klase partikularrak emateko prest. Hezkuntza berezia eta Haur hezkuntza ikasketak ditut eginak. Interesa baduzu jarri harremanetan nirekin: 688 64 06 04.

Oñati. Goi mailako ingenieritza amaitu berri duen mutila eskola partikularrak emateko prest, o„fflatin. Dbh zein batxilergoko ikasleei (fisika, matematika, kimika, mekanika, teknologia,...). Interesatuok deitu zenbaki honetara: 636 00 18 22.

Villabona. Ingles eta frantseseko klaseak ematen dira gipuzkoa mailan. Taldeka edo bakarka. Maila ezberdinak. Irakasle tituluduna. 664 16 02 68 continental56@hotmail.com

5. IRAKASKUNTZA

501. JASO

Arrasate. "Google sketch up" eko hastapen mailako eskola partikularrak jaso nahi nituzke. 652 55 88 31

502. EMAN

Bergara. Irakaslea den mutil euskalduna lehen hezkuntzako edozein mailatako ikasleei klase partikularrak emateko prest. Ingelesezko klaseak ere ematen ditut. Esperientziaduna. Interesatuak deitu: 645 72 01 50.

Donostia. Frantseseko klase partikularrak ematen ditut. Taldeka edo bakarka. Experientzia duen irakaslea. Hizketaldiak,azterketen prestaketa. Ikus entzunezko metodoa. Bakarkako klaseak zure etxean eman ditzazket edo gure estudioan. Lehendabiziko eguna proba moduan izanik,gero zuk erabaki. Tel: 664 16 02 68.

Durangaldea. Gazte euskalduna Durangaldean eskola partikularrak emoteko prest. Lehen Hezkuntza, DBH zein batxilergoko ikasgaiak. 650 90 06 53 (Jon).

6. MOTORRA

601. SALDU

Aukera. Ford Focus Ghia Sport Break auto familiarra salgai. 1800 TDCI. 35.000km. Ia berria. 617 13 17 51

Rover 45 comfort 1.4 gasolina. 4 ate. Alarma, ABS, Airbag, Pioneer 4x40w irrati CDa, lapurreten kontrako inmobilizadorea. Tomtom one bat opari. Probatu ezazu konpromezurik gabe. Transferentzia nire kontura. Interesatuok deitu telefono honetara: 607 15 24 03.

7. ANIMALIAK

701. SALDU

Ardiak salgai Oñatin. Deitu 943 78 12 94 telefonora.

Indioilar beltzak. Hiru hilabetekoak eta urtebetekoak. Bikotea, 70 euro. Interesatuok deitu: 943 79 96 55 edo 690 65 39 37

Katu pertsak. Hiru hilabetekoak. Deitu 17:00etatik aurrera mesedez. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 620 60 73 40

702. EROSI

Ehizako txakurkumea saldu edo emateko baduzu, deitu: 619 87 95 57

703. EMAN

Katuak opari. Urtebeteko katuak oparitzen dira. Deitu 669 72 08 93 telefonora.

704. BESTELAKOAK

Etxeko katua aurkitu dut Arrasaten. Etxeko katu bat aurkitu nuen ostiralean, gris kolorekoa (europear arrunta arrazakoa), emea eta gaztea. Ferrerias kale inguruan azaldu zen. Interesatuok deitu telefono honetara: 653 72 43 19

8. DENETARIK

801. SALDU

Autorako segurtasun aulkia salgai debagoienan. 0 13 kilorako «maxi cosi» etxeko segurtasun aulkia salgai, easyfix oinarriarekin. Quinny, bugaboo zein bestelako aulkietan jartzeko bi egokigailu ere bai. Prezioa: 100 €. Interesatuok deitu telefono honetara: 606 21 37 18.

Gitarra elektroakustikoa. Ovation cc24 gitarra elektroakustikoa salgai. Atzealde biribildua. Gutxi erabilia. 240 €. Interesatuok deitu telefono honetara: 646 37 76 57.

Kristalezko mahaia. Bulegorako kristalezko mahaia salgai. Berri berria. 619 87 95 57.

Nintendo DS lite. Kolore zuria. Osagarri guztiekin (zorroa, etxerako zein kotxerako kargagailuak...). Egoera oso onean dago. Oso gutxi erabilia. 100 €. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 670 52 58 74.

Soinu handia. Delicia etxekoa, gorria. Piano itxurako tekladuna. 80 baju. 165 €. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 697 25 92 48.

Trialeko botak. Botak hebo zurixak dira,egoera onian eta gutxi erabilita, 37 zenbakia.55 euro 630 66 07 19.

Umearendako aulki t olesgarria. Castle etxekoa. 30 euro. Interesatuok deitu telefono honetara: 606 78 30 30.

Umeendako karroa. Mutsy 4 rider modeloa. Beltza. Euritarako plastikoarekin. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 677 52 56 27.

Umeendako karroa. Mutsy Urban Rider karroa. Traveller aulki eta osagai guztiekin. Prezio oso onean. 656 74 94 40

Xurgagailua. Akaroen aurkakoa eta kontsumo baxukoa. Gutxi erabilitakoa. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 659 62 02 49.

Xurgagailua. Ap7010 modeloa. 2.000 wattiokoa. 30 euro. Orbegozo etxekoa. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 606 78 30 30.

802. EROSI

Antzinako gauzak jaso edo erosi. Antzinako gauzak jaso edo erosten dira: bizikletak, josteko makinak, argazki kamarak, idazteko makina... Egoeraren arabera ordaintzen da. Emailez edo watsapp bidez argazkia bidali edo deitu. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 678 47 43 54.

Estetikako materiala. Estetikako bigarren eskuko materiala erosteko prest. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 619 87 95 57

803. EMAN

Bidali zure ordenagailua Boliviara. Bidali zure ordenagailua Boliviako eskoletara. Ordenagailua hondatuta badaukazu, zaharra bada edo zaborretara bota behar baduzu, nik jaso, konpondu eta kainaberaren bitartez bialduko dugu Boliviako bigarren mailako eskoletara. 655 71 76 66.

804. HARTU

Bizikletak. Bizikleta botatzeko moduan badaukazu, nik jasoko dizut. Berdin da zein egoeratan dagoen eta zein motakoa den. Jasotzera joango nintzateke. Iñaki. 699 06 23 95

Butanozko berogailua. Martxan dagoen butanozko berogailua hartuko nuke. Ordaintzeko prest nago. 658 71 44 37 / 943 76 40 87.

806. GALDU

Bizikleta Urkulun. Azaroaren 3an, zapatua, umeen bizikleta txikia galdu genuen Urkulun. Pedalik gabekoa eta Kokua etxekoa da. Aurkitu baduzu, deitu mesedez: 637 98 08 76

Telefonoa Aretxabaletan. Telefonoa galdu nuen Aretxabaletan, San Migel jaietan. Nokia E72 modeloa, beltza eta zilar kolorekoa. Aurkitu duenari eskertuko nioke SIM txartela besterik ez bada itzultzea. Eskerrik asko. 608 17 00 00

Patinetea galdu Arrasaten. Urriaren 17an oxelo etxeko patinetea galdu nuen arbolapetan. 669 31 88 44.

Zilarrezko pultsera. Arrasaten zilarrezko pultsera galdu nuen urriaren 21ean, domeka. Deitu 664 35 75 15 telefonora.

808. BESTELAKOAK

Doctor Deseo taldeari buruzko lan bat egiten nabil. Sarrerak, elkarrizketak eta duzun materiala jasoko nuke, originalak edo fotokopiak. Eskerrik asko! 639 03 25 97

9. HARREMANAK

904. BESTELAKOAK

Mutil atsegin bat neska atsegin baten bila. Mutil atsegin bat naiz eta neska atsegin baten bila nabil,45 urte ditut,altua eta morenoa naiz,ez ditut kargarik. Harreman iraunkor baten bila nabil. Alaia naiz eta bidaiatzea gustatzen zait. Deitu 609 48 11 24 telefonora.

Ekologista zein feministeei. Kaixo lagun! Atxabaltako edota inguruko ekologistak eta feministak ezagutu nahi ditut lagunak egiteko, elkarrengandik ikasteko eta ekimenak aurrera eramateko. *putoogle@gmail.com* 644 59 03 23.

Etxebila higiezinak
943-44 61 66
ALOKAIRUAN
ERDIALDEA: Artzain Onaren plazan. Igogailua. 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. 850 €.
ERDIALDEA: logela, sukaldea, egongela, bainugela. Kanpora. Oso polita. 750 €.
PASAI DONIBANE: 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Balkoia. 590 €.
TRINTXERPE: 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Hutsa. 600 €.
AMARA: 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Terraza. Aparkaleku pribatua. 690 €.
AMARA: 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Polita. 700 €.
AMARA: 2 logela, sukaldea, egongela, 2bainugela. Balkoia. Oso ederra. 780 €.
AMARA: 2 logela, sukaldea, jangela, egongela, bainugela. Terraza. 750 €.
SALMENTAN
MARTUTENE: dena kanpora. 65 m2. 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Guztiz berritua. Eguzkitsua. 126.000 €.
MARTUTENE: Polita. 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Dana kanpora. Aparkalekua. 137.630 €.
AMARA: Altua. Igogailua. 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Terraza. 190.000 €.
AMARA: 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Balkoia. Hegoa. 198.000 €.
AMARA: Guztiz kanpora. 3 logela, sukaldea, egongela, izkinan, 2 bainugela. Sartzeko. 279.000 €
AMARA: altuak. 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Terraza. 205.000 €.
AMARA: 2 logela, sukaldea, egongela bikoitza, bainugela. Terraza. Oso ongi dago. 215.000 €.
GROS: 80m2. 3 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela. Igogailua. 330.000 €.
ERDIALDEA: Prim kalea. Atiko berritua. Leihoak. Igogailua. 249.420 €.
EGIA: Mandasko dukearen pasealekua. 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Igogailua. Balkoia. 237.400 €.
EGIA: igogailua. 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Balkoia. 160.000 €.
ATEGORRIETA: Hondartzatik 10 minutura. Apartamentua. Kalera. 138.200 €.
INTXAURRONDO: Pisu ederra. Oso bista politak. 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Terraza. 215.000 €.
LEZO: Igogailua. 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Balkoia. 146.000 €.
www.etxebila.net
Felipe IV etorb. 4 - DONOSTIA

www.inmosalbide.com
Salbide
SALBIDE
Higiezinen zerbitzuak
Aia. Baserria berritu berria. 125 m2-ko bi solairu ditu. 25 m2-ko terraza. Terrenoa, 110.000 m2. 50.000.000 pezeta.
Aizarnazabal. 3 logelako etxebizitza. Oso prezio onean. 28.500.000 pezeta.
Bergara. Askarruntz auzoa. Guztiz berritua: bi logela, diseinuzko sukaldea, berokuntza sistema gasarekin. **150.000 euro!.**
Bergara. San Lorentzo auzoan. Duplex bat, estreinatzeko, garaje plaza eta guzti. 45.000.000 pezeta. Prezio Berria!!
Donostia. Amara-Amezketa kalea 3 logela, 2 bainugela eta terraza. Igogailua eta gasa. Zazpigarren solairua. Izkina. Ezin hobea. 59.898.960 pezeta.
Iraeta. Etxe berria. 2 logela, terraza eta lorategia. Garaje handia. Komunitateko igerilekua. Prezio berria: 35.000.000 pezeta.
Getaria. Herrerieta kalean. 3 logela eta 2 bainugelako etxebizitza. Trastelekuarekin. Egoera onean. Oso prezio onean. 39.000.000 pezeta.
Zarautz. Itxasmendi. 3 logela, egongela, sukaldea, 2 bainugela eta terraza. Argitsua. Prezio berria: 46.000.000 pezeta.
Zarautz. Azken Portu. 92 m2 ditu. 4 logela, Terraza, Trastelekua eta Igogailua. Erreforma behar du. Prezio Berria. 54.000.000 Ptas.
Zarautz. SALBIDE. 3 logela, 2 bainugela, Terraza, Trastelekua eta Garaje itxia. Oso egoera onean. 75.000.000 pezeta.
Bizkaia kalea, 6 • 20800 Zarautz
Telef.: 943-01 07 00 • Mug.: 665- 71 85 96

SUKALDARI/SUKALDEKO ARDURADUNA

Bergarako Mizpirualde zaharren egoitza aldi baterako sukaldari/sukaldeko arduradun bat kontratatu eta lan-poltsa osatzera doa.

Lehiakideen baldintzak:

a) Sukaldaritzan goi mailako teknikari titulua edo parekoa den tituluaren jabe izatea.
b) Bigarren HE, derrigorrezkoa
c) Oinarrietan jasotako besteak.

Instantziak:
Instantziak aurkezteko epea bukatuko da 2012/11/30ean.

Oinarriak:
Mizpirualde egoitzan eta Bergarako Udaleko webgunean.

Bergaran,2012ko azaroaren 19an
GOBERNU BATZORDEKO LEHENDAKARIA

Nokiaren mapak orain ere iOS-etan eskuragarri

Aplikazio berria debaldekoa da eta iOS 4.3 bertsioa eskatzen du erabili ahal izateko

MIRIAN BITERI | ARRASATE

Orain arte Nokia Here Maps, Nokia enpresaren mapa zerbitzua, iPhone eta Android eta edozein ordenagailutan erabil zitekeen, web nabigatzailetik. Bada, zerbitzua berritu egin du eta gaur egun Applen iOS dispositiboendako aplikazio moduan ere aurki daiteke; hain justu ere, iPhone, iPod Touch eta iPadendako.

Aplikazioa debaldekoa da eta Applen App Store-n dago eskuragarri. Aplikazio berriak iOS 4.3 bertsioa eskatzen du, eta iPhone 5 berrian erabiltzeko optimizatuta dago.



Nokia Here Maps. | APPLE

Garraio publikoen ibilbideak

Nokia Here Maps-ek mapak gordetzea ahalbideratzen du, eta hainbat herrialdetan, erabiltzaileek gaurkotutako mapetara sartzea ere bai; eta erabiltzaile bakoitzaren bildumetan biltzeko asmoz, mapak aukeratzeko aukera eskaintzen du. Horretaz gainera, aplikazio horrek sare sozial edo posta elektronikoaren bidez tokiak topatzeko eta partekatzeko zerbitzua ere eskaintzen du. Sistema berriak, gainera, garraio publikoaren ibilbideak zehazteaz gain, estaldura txarra duen herrialdeetan erabili ahal izateko mapak aurretik deskargatzea ere ahalbideratzen du. Horrez gain, ahotsarekin gidatutako oinezkoendako ibilbideak ere baditu.

Nokiaren ustetan, Here Mapsek mapa digitalen gaur egungo egoera berritzen du, eta, hori dela eta, aplikazio horren arrakastan sinesten dute.

Horren harira, honakoa aipatu dute: "Jendeak kalitateko mapak nahi ditu, eta Here-rekin Nokiaren lokalizazio zerbitzuak batu ditzakegu, mundua aztertu, ezagutu eta partekatzeko modu egokiagoa eskainita".

Nintendok ez du Wii kontsoletarako joko gehiago garatuko

Nintendok jakinarazi du ez duela Wii kontsoletarako joko gehiago egingo, eta Wii U plataforma berrian jarriko duela arreta berezia. Joko berririk garatuko ez badu ere, Nintendotik esan dute kontsola horrek saltzen jarraituko duela, erabiltze askok dutelako sistema hori eta kontsola horren prezioa ere erakargarria delako.

Dropbox zerbitzariak dagoeneko 100 milioi erabiltzaile ditu

Azkar ari da hasten Dropbox konpainia. Egunero 1.000 milioi artxibo gordetzen dituzten 100 milioi erabiltzaile ditu dagoeneko. Bakoitzaren fitxategiak (testuak, irudiak, musika fitxategiak...) Interneten gordetzeko aukera ematen du zerbitzari horrek, eta, aldi berean, baita beste erabiltzaile batzuen artxiboak partekatu ere.

Googlek 17,6 milioi ordaindu beharko dizkio Safariri

Safariren erabiltzaileak zelatatzeagatik 17,6 milioi euro ordaindu beharko dizkio Googlek AEBetako Merkataritza Komisio Federalari. Udan, kopuru hori ordaintzea adostu zuen Googlek eta batzorde horrek; orain, epaileek berretsi egin dute isuna. Consumer Watchdog kontsumitzaileen aldeko elkarteak, berriz, isuna eskasa dela dio.

Vimeoren bideoklub berria urtarriletik

Ordenagailu, telebista, tablet eta poltsikoko telefonoetan ikusiko dira edukiak

M.B. | ARRASATE

Vimeo bideoen plataformak filmak zuzenean eskainiko ditu datorren urte hasieratik. Youtuberen lehiakideak balio artitistiko eta independenteak diren sortze lanak eskainiko ditu, bereziki, eta edukiak ordenagailu, telebista, tablet eta poltsiko telefono bidez ikusi ahal izango dira. Bere blogean –*https://vimeo.com/blog/post:532*– ezagutarazi berri du urtarrilean sartuko dela ordainpeko emanaldiaren merkatuan, eta, aurrerapen moduan, bere bideokluba ikusten utzi du, erabiltzaileak zertxobait ikus dezan.

Kalitateagatik, balio artitistikoagatik eta plataforman argitaratzen diren bideoen lizentzien kontrol zorrotzagatik bereiztuizan da beti Vimeo. Lehiakideengandik bereizteko, hasieratik publizitate iragarkien klipak, pornografia eta bideojokoen sekuentzien grabazioak debekatu zituen; horretaz gainera, ezin dira telebistatik grabatutako edo asmo komertziala duten edukiak igo. Bestalde, zerbitzuagatik ordaintzen ez duten erabiltzaileek astero bideo bat bakarrik igo dezakete, eta filmak kalitate handiko HD bertsioetan aurki daitezke.

Bitartekari barik

Vimeoren bideoklubak filmak hainbat bertsiotan eskaintzen ditu, telebista edo ordenagailuan, tabletekin edo poltsikoko telefonoekin bateragarriak direnak. Bideoklub berrian, sortzaileek lanen alokairua edo salmentaren prezioa ezarri ahal izango dute, bitartekari barik.

Ur azpian metro bateko sakoneran kalitateko bideoak egiten ditu. | SONY

Sony Xperia Go-k bideoak egiten ditu ur azpian

M.B. | ARRASATE

Kirola eta abentura bereziki gustuko dutenendako poltsikoko telefono berria aurkituko dugu laster merkatuan: Sony Xperia Go. Ur azpian 30 minutuz argazkiak eta bideoak egiteko aukera eskaintzeaz gain, hauts eta kolpeekiko erresistentea ere bada.

Familia bereko beste telefonoak baino txikiagoa da –110x60,3x9,8– eta 110 gramo pisatzen du. Pantaila 3,5 hazbetekoa da eta kamera, 5 megapixelekoa; LED flasha du eta bideoen grabazioa 720 p-tik 30 fps-rakoa da. Abenduan merkaturatuko dute, Orangerekin.

Indarrak batzeko asmoz dabiltza Yahoo eta Facebook

M.B. | ARRASATE

Zurrumurruek diotenez, Facebookek eta Yahook solasaldi sekretuak dituzte. Horien helburua izango litzateke elkarlanean bilatzaile indartsu bat martxan jartzea, eta, horren bidez, Google erraldoiari aurre egitea.

Bilatzailearen algoritmoa hobeto funtziona dezan, Yahook Facebooken trafiko handia behar du; Mark Zuckerberg-en enpresak, ostera, sareko bilatzaileen eremuan murgiltzeko asmoa du aspalditik. Gaur egun, Yahook Microsoftek garatutako Bing erabiltzen du, orain dela hiru urte sinatutako akordio baten bidez. Facebookekin adostasunera iristeak Microsoftekin apurtzea ekarriko luke.

Samsung Galaxy Camera berria. | SAMSUNG

Samsungek Galaxy argazki kamera merkaturatu du

M.B. | ARRASATE

Internetera konektatuta dagoen argazki kamera berria atera du Samsung etxeak. Kamera eta smartphone arteko nahasketa da Galaxy familiako kide berria; 21 x-ko zoom optikoa dauka, 16 megapixeleko CMOS sentsorea, 4,8 hazbeteko pantaila, Android 4.1, wi-fia eta 3G. Gainera, Google Play-ren beste aplikazioekin bateragarria da. Hutsune bakarra da ezin direla telefono bidezko deiak egin.

Samsung Galaxy Camera berria eguenean, hilak 29, erosi ahal izango da, 499 euroren truke.

TELE-BEGI

IMANOL GALLEGO

Tertulianologia etorkizuneko karrera

Orain hasi naiz Bolonia planaren kontrako protestak ulertzen. Kontua ez zen unibertsitatea pribatizatzea edo tasak igotzea. Kontua beste bat zen, gazteak etorkizun handiko karrera bat kanpoan gelditzen zelako egiten zuten protesta. Non dago tertulianologia?

Gutxi arte beharrezkoa zen torereron baten ohetik pasatzea, interviún titiak erakustea, hiru hilabetez Mercerdes Milaren garrasiak entzutea... Orain berriz ez da horrelakorik behar! Tertuliano izatea mauka ederra da. Lana ez da oso nekeza eta mota askotarikoak daude. Salvamen 4 orduz oihuka aritzen direnak, Ni Mas Ni Menos -en edozein gaietan adituak direnak, tertuliano politikoak... eta azkenaldian tertuliano VIPak ere azaldu dira.

Hauek izen handiko kazetaria izan ohi dira Hermann Tertsch-en parekoak. Azken honek bi minutuko sermoiak botatzen ditu Telemadriden eta horietako bakoitzagatik 560 euro poltsikoratzen ditu! Orain ulertzen dut, 14Nko sermoia greba eguna baino 24 ordu lehenago grabatzeko egindako trikimailua. Kontua ez da gaia, kontua dirua da.

ASTEA GOIENAN

GOIENA TELEBISTA

ASTELEHENA 26

Harmailatik

Xabi Urtzelai kazetariak Natra-Oñati saskibaloi taldeko kideak hartuko ditu Harmailatik saioan. | **22:03**

12:00 Magazinea
12:45 Gurean gaur
13:13 Zorion Agurrak
13:18 Onein
13:40 Gipuzkoa kultura
14:10 Ekogune
14:40 Zorion Agurrak
14:45 Berriak
15:10 Eguraldia
15:13 Zorion Agurrak
15:18 AsteON
15:58 Erreportajea
16:24 Ikusmira
16:43 Zorion Agurrak
16:46 Berriak
17:11 Eguraldia
17:13 Onein
17:43 Abesbatza lehiaketa
18:15 Beranduegi.tv
18:35 Ekogune
19:05 Berbetan
19:31 Erreportajea
19:56 Berriak
20:16 Eguraldia
20:18 Magazinea
21:03 Gurean gaur
22:03 Harmailatik
22:48 Berriak
23:08 Eguraldia
23:11 Magazinea
23:56 Harmailatik
00:41 Berriak
01:01 Eguraldia

MARTITZENA 27

Magazinea

Gurean gertatzen den guztiaren berri ematen dute Miren Arregi eta Txomin Madina kazetariek. | **20:17**

12:00 Magazinea
12:45 Gurean gaur
13:15 Zorion Agurrak
13:22 Harmailatik
14:07 Ekogune
14:40 Zorion Agurrak
14:45 Berriak
15:05 Eguraldia
15:08 Harmailatik
15:53 Onein
16:14 Abesbatza lehiaketa
16:47 Berriak
17:07 Eguraldia
17:10 Esatea libre
18:30 Harmailatik
19:15 Gipuzkoa kultura
19:45 Zorion Agurrak
19:50 Berriak
20:12 Eguraldia
20:17 Magazinea
21:02 Gurean gaur
22:02 Berriak
22:22 Eguraldia
22:27 Magazinea
23:12 Abesbatza lehiaketa
23:45 Berriak
00:05 Eguraldia

EGUAZTENA 28

Ekogune

Urgarden, Gipuzkoako ibaiak garbitzea helburu duen bolondres taldearen inguruko erreportajea. | **22:00**

12:00 Magazinea
12:45 Gurean gaur
13:05 Hamaika.bit
13:31 Erreportajea
13:57 Azoka 5.0
14:45 Berriak
15:05 Eguraldia
15:08 Hamaika.bit
15:33 Onein
16:09 Harmailatik
16:54 Berriak
17:14 Eguraldia
17:16 Berbetan
17:43 Zorion Agurrak
17:46 Beranduegi.tv
18:06 Azoka 5.0
18:54 Ikusmira
19:12 Harmailatik
19:55 Berriak
20:15 Eguraldia
20:17 Magazinea
21:02 Gurean gaur
22:00 Ekogune
22:30 Berriak
22:50 Eguraldia
22:55 Magazinea
23:40 Gipuzkoa kultura
00:10 Berriak
00:15 Eguraldia

EGUENA29

Gipuzkoa Kultura

Miren Arregi kazetariak Gipuzkoa Kultura programako beste saio bat ekarriko digu aste honetan. | **22:00**

12:00 Magazinea
12:45 Gurean gaur
13:10 Ekogune
13:40 Hamaika.bit
14:10 Onein
14:45 Berriak
15:05 Eguraldia
15:08 Hamaika.bit
15:41 AsteON
16:21 Ekogune
16:51 Berriak
17:11 Eguraldia
17:14 Onein
17:37 Ikusmira
17:57 Hamaika.bit
18:23 Planik bai?
18:43 Azoka 5.0
19:31 Zorion Agurrak
19:36 Berriak
19:56 Eguraldia
19:58 Planik bai?
20:19 Magazinea
21:04 Gurean gaur
22:00 Gipuzkoa kultura
22:30 Planik bai?
22:50 Berriak
23:10 Eguraldia
23:13 Magazinea
23:58 Ekogune
00:28 Berriak
00:48 Eguraldia

EGUBAKOITZA 30

AsteOn

Arritxu Barrusok aurkeztutako saioan, gaurkotasunari lotutako gai eta bitxikerien berri ematen da. | **22:00**

12:00 Planik bai?
12:20 Magazinea
13:05 Zorion Agurrak
13:10 Gurean gaur
13:40 Onein
14:15 Abesbatza lehiaketa
14:45 Zorion Agurrak
14:49 Berriak
15:09 Eguraldia
15:12 Planik bai?
15:32 Erreportajea
15:58 Gipuzkoa kultura
16:28 Beranduegi.tv
16:48 Zorion Agurrak
16:53 Berriak
17:13 Eguraldia
17:16 Planik bai?
17:36 Ekogune
18:06 Azoka 5.0
18:54 Beranduegi.tv
19:18 Zorion Agurrak
19:22 Berriak
19:42 Eguraldia
19:45 Planik bai?
20:05 Berbetan
20:32 Gipuzkoa kultura
21:02 Gurean gaur
22:00 AsteON
22:30 Berriak
22:50 Eguraldia
22:53 Abesbatza lehiaketa
23:25 AsteON
23:55 Planik bai?
00:15 Berriak
00:35 Eguraldia

ARRASATE IRRATIA

Krissy Matthews gitarra jolea ikusteko sarrerak zozketatuko ditugu

Kooltur Ostegunak ekimenaren barruan, Krissy Matthews blues jole gaztea izango dugu. 20 urteko norvegiar honek 2005ean grabatu zuen bere lehenengo lana eta ordutik bost disko kaleratu ditu. Sarrerak lortzeko, deitu 943 25 05 05 telefonora edo *irratia@goiena.com* helbidera idatzi.

2011ko Jokin Zaitegi sariaren irabazlearekin jardungo dugu

Juan Mari Arrigeurretak itzulitako Tomas Transtömer idazle suediarraren poema bildumari buruz jardundungo dugu. Agirreurretak 2011. urtean irabazi zuen AEK antolatutako itzulpen lehiaketa eta aurtengo Durangoko Azokan salgai izango da Elkar argitaletxeko saltokian.

Gaur hasi den SexOsasun asteari buruz hitz egingo dugu

Azaroaren 26tik abenduaren 2ra arte Arrasateko Udaleko sexologia zerbitzuak antolatutako SexOsasun astearen xehetasun guztiak ezagutuko ditugu Arrasate Irratian. Horretarako, Arrasateko Udaleko sexologia teknikoak, Montse Velascok, antolatutako ekitaldien berri emango digu.

TELE-ALBISTEAK

Debagoieneko komertzioak gabonetako kanpaina prestatzen dihardute dagoeneko

Debagoieneko merkataritza elkarte eta dendetan egon da Barruso oraingoan

JAGOBA DOMINGO | ARRASATE

Gabonak gertu daude, eta urtero bezala erosketak egiteko egunak dira. Askok azken egunetan hiriburuetara jotzen dute, baina gurean ere erosketak egiterik badagoela argituko digu Arritxu Barrusok AsteOn saioan.

Gure ibarreko merkatari elkarteekin egongo da Barruso ostiraleko programan, Gabonetarako egingo dituzten ekimen berezien eta eskaintzen inguruan informatzeko.



Oñatiko plaza gabonetarako prest. | GOIENA

Merkatari elkarteak

Oñatiko Txanda merkatari elkartekoekin ikusiko dugu Barruso, datorren hilabetean abian jarriko dituzten ekimenen gainean hitz egiteko.Horrez gain, Ibai Arte elkarteko presidente, Jesus Mari Elkororekin egongo da, debagoieneko merkataritzak gaur egun bizi duen egoeraren inguruan hausnartzeko. Eta amaitzeko, Aretxabaleta eta Bergarako hainbat dendak bisitatuko ditu Gabonetako egunak nola prestatzen dituzten jakiteko.

Durangoko 47. liburu eta Disko azokan gertatzen dena zuzenean

Azoka Telebista aurkeztu zuten eguaztenean, medio ezberdinak elkarlanean sortutako egitasmoa

JOAGOBA DOMINGO | ARRASATE

Aurreko eguaztenean aurkeztu zuten Azoka Telebista egitasmoa EITB egoitzako Multibox aretoan. Poliki poliki sendotzen ari den egitasmoa da, eta aurten ere, Durangoko Liburu eta Disko azokaren 47. edizioaren guneetan gertatzen dena emitituko du Azoka Telebistak.

Eguazteneko aurkezpena. | D.AZOKA

Elkarlanean

EITB, Hamaika Telebista, Argia, Berria eta Goiena Komunikazioa elkarlanean arituko dira, azokan gertatzen den guztia mundura zabaltzeko.

Azoka Telebistak, emititzeko kanal ezberdinak erabiliko ditu. Alde batetik, internet bidez, *durangokoazoka.com* webgunean, *streaming* bidez ikusteko aukera eskainiko du; azokan bertan, pantaila erraldoi bat jarriko da momentuan gertatzen denaren berri izateko; eta Tokiko telebistetan, elkarrizketak, bideoklipak edo erreportajeak ikusteko aukera egongo da.

ZORION AGURRAK

ARRASATE
Zihara Bergaretxe Gastañaga
Abenduaren 1an, 2 urte. Zorionak gure sorgintxuari eta mila patxo aiteite, amama, izeba Mertxe, guraso eta asko maite zaituen anaia Egoitzen partetik.

ARETXABALETA
Hodei eta Beñat Martinez Revuelta
Azaroaren 29an, 4 urte. Zorionak, maittiak! Honezkero lau urte! Bada, oso ondo pasatu eta muxu handi-handi bat bakoitzarentzat denon partetik eta bereziki Oxel eta Lurrek!

ARAMAIO
Ane Arexolaleiba Uriarte
Azaroaren 28an, 6 urte. Zorionak, Ane! Horren alai eta maitagarri jarraitu! Guretzako politxena zara! Aitatxo, amatxo eta Gariren partetik besarkada handi bat eta indarrez betetako muxu erraldoi bat!

ANTZUOLA
Oier Lasa Oncala
Azaroaren 27an, urtebete. Zorionak, maitia! Mila muxu zure egunean Nora, aita eta amatxoren partetik.

ARRASATE
Cecilia Guevara
Azaroaren 26an, 36 urte. Zorionak, Ceci! Zure Txurri, Tamara, semeak eta familiaren partetik!

ARRASATE
Karen Ruiz Arana
Azaroaren 26an, 14 urte. Zorionak! Pixkanaka handiago egiten ari zara! Oso ondo pasatu eguna eta ospatu ezazu merezi den bezala! Gasteizen itxarongo dizugu. Mila muxu zure ahizparen eta koinatuaren partetik!

ARRASATE
Ane Lozano Moyano
Azaroaren 26an, 5 urte. Zorionak, printsesa. Egun zoragarria pasa dezazula. Aita, ama eta Ainararen partetik.

BERGARA
Andoni eta Aimar Gabilondo
Andonik azaroaren 16an, 8 urte eta Aimarrek 25ean, 11 urte. Ondo pasatu eta zorionak familiaren partetik.

ARRASATE
Naroa Alberdi Segovia
Azaroaren 25ean, 8 urte. Zorionak, gure txapelduna! Ondo pasatu egun berezi hau, familiaren partetik! Muxu handi bat Ibaik.

ANTZUOLA
Aiora Bernal Orgaz
Azaroaren 25ean, 2 urte. Zorionak, sorgintxo, eta urte askotarako. Muxu potolo asko etxekoen eta bereziki Iker, Iosu, Ziortza eta Endikaren partetik.

OÑATI
Jon Legazpia Larrea
Azaroaren 25ean, 8 urte. Zorionak, Jon! Egun zoragarria pasatu eta muxu asko. Aitta, ama eta Naroaren partetik.

OÑATI
Ion Madina Olalde
Azaroaren 25ean, 14 urte. Zorionak etxekoen partetik.

BERGARA
Nerea Urresti
Azaroaren 25ean, 18 urte. Zorionak, *guapisima*! Zapatuan zelebraukou 18 urte horrek! Muxu handi-handi bat kuadrilakuen partetik!

ARAMAIO
Mirari Zubizarreta Agiriano
Azaroaren 25ean. Zorionak, printzesa! Primeran pasatu egun berezi hau, politxoi. Kandelatxoei putz fuerte-fuerte egin! Kiloka muxu goxo potoloak Arrasateko Zarugalde kaleko lagunen partetik. Zoriontsu izan, poxpolin. Patxoak, *guapisima*!

ARRASATE
Antonio Baena
Azaroaren 25ean. Zorionak, *guapo*! Kuadrilako argazkilari gogokoenak urtetxoak betetzen ditu. Ederto pasatu eguna eta txokomuxu erraldoi bat laguntxo guztien partetik! Primerako argazkilaria zara mutil, jarraitu horrela! Patxoak.

OÑATI
Markel Barrena Bikuña
Azaroaren 23an, 7 urte. Zorionak, txapeldun! Pa Leire, Eider eta Juneren partetik.

BERGARA
Gorka Fernandez Goenaga
Azaroaren 22an, 17 urte. Zorionak, Gorka, zure gelako ikaskide eta irakasleengandik! Ondo pasatu zure urtebetetzean. Muxuak!

ARRASATE
Irantzu Souto Lasa
Azaroaren 22an, 2 urte. Zorionak, pittukitxo! "Pi" urte! Oso ondo pasatu eta txokolate asko jan oraindik ez daukazu dietarik egin beharrik-eta! Muxu lodi-lodi piloa etxekoen partetik!

BERGARA
Izar Etxeberria Ramirez
Azaroaren 21ean, 3 urte. Zorionak zure hirugarren urtebetetzean guraso eta anai-arreben partetik.

OÑATI
Ilargi Agirregabiria Agirre
Azaroaren 21ean, 4 urte. Zorionak, Ilargi! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze egunian eta muxu handi bat etxekoen partetik.

ARRASATE
Zurine Lasa Elgarresta
Azaroaren 21ean, 29 urte. Zorionak, Susni! Dagoeneko 29! Pilatzen hasi zaizkizu! Oso ondo pasatu eta muxu potolo bat etxeko guztion partetik!

BERGARA
Miriam Godoy eta Miren Elizburu
Zorionak, *pendejak*! Mirenek azaroaren 19an eta Miriamek 21ean. Jada zuzentzeko adina badaukazue eh! Patxo handi bana kuadrillakuen partetik.

ARETXABALETA
Unax eta Lia
Zorionak, Unax eta Lia! Unaxek azaroaren 18an eta Liak urriaren 21ean. Zorionak bixoi eta muxu potolo-potolo bat danon partetik!

ARRASATE
Malen Ruiz de Azua
Azaroaren 17an, 17! Disfrutatu zapatutxua eta indarra hartu geratzen danerako! Patxo bat, (astelehenian geixau). Anonymous.

Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu Goienaren bidez zoriontzeko:

Internet
Sar zaitez *Goiena.net* atarian eta *Zorion agurra bidali* botoia sakatu; bete eskatutako datuak, eta bertan argitaratuko da zorion agurra, baita GOIENA paperean ere.
Posta elektronikoa
Mezua bidali *zorionagurrak@goiena.com* helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.
Ordezkaritzak
Etor zaitez Goienaren ordezkaritzaren batera.

Egubakoitzeko 11:00ak arte jasotako zorion agurrak bakarrik iragarriko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

JAIOTAKOAK

Izadi Garcia Aramburu

Oñati. 2,600 Kilo. Azaroaren 9a. Gurasoak: Aitor eta Miren. Argazkian, Izadi sehaskan.

Lur Egizabal Jimenez

Elgeta. 2,930 Kilo. Azaroaren 18a. Gurasoak: Olaia eta Jose Luis. Argazkian, Lur amarekin eta aitarekin.

Lorea Simon Campollo

Arrasate. 3,460 Kilo. Azaroaren 18a. Gurasoak: Tere eta Josu. Argazkian, Lorea aitarekin.

Aner Elorza Muñoa

Aretxabaleta. 3,450 Kilo. Azaroaren 17a. Gurasoak: Arantzazu eta Iker. Argazkian, Aner aitaita Jose Marirekin.

Anne Obeso Almeida

Oñati. 3,250 Kilo. Azaroaren 19a. Gurasoak: Maite eta Jon. Argazkian, Anne aitatxorekin.

Aitzol Ugarte Gonzalez

Oñati. 2,900 Kilo. Azaroaren 20a. Gurasoak: Ainhoa eta Mikel. Argazkian, Aitzol aitaren besoetan.

Iraitz Gil Carabias

Arrasate. 3 Kilo. Azaroaren 20a. Gurasoak: Patricia eta Rober. Argazkian, Iratiz jaioberria gurasoekin.

Sua Zuazubiskar Pando

Aretxabaleta. 3,600 Kilo. Azaroaren 22a. Gurasoak: Virginia eta Lordi. Argazkian, Sua amarekin.

Sara Taboada Muruamendiaraz

Osintxu. 3,780 Kilo. Azaroaren 23a. Gurasoak: Naiara eta Oskar.. Argazkian, Sara jaioberria aitarekin.

Malen Errasti Diaz

Bergara. 3,040 Kilo. Azaroaren 22a. Gurasoak: Nora eta Arkaitz. Argazkian, Malen jaioberria irribartsu sehaskan.

Jaio da!

Eman jaiotzen berri Goiena paperean eta interneten.
Deitu 943 25 05 05 telefonora edo zatoz GOIENAren ordezkaritza batera.

Egubakoitzeko 11:00ak arte jasotako jaiotzak bakarrik iragarriko ditugu.
Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

Pablo Carrasco Barbero

Eskoriatza. 3,380 Kilo. Azaroaren 23a. Gurasoak: Ana eta Conrado. Argazkian, Pablo amaren besoetan.

Goizane Zelaia Altube

Oñati. 3,600Kilo. Azaroaren 21a. Gurasoak: Maider eta Gorka. Argazkian, Goizane amaren besoetan.

DENBORA-PASA

HITZ GEZIDUNAK

		Onura, etekin	▼	Dei eginez	▼	Energia formazio	▼	
		Hobera egin		Berriro egin		Zeharka		
		▶		▼		▼		
		* Gaika biltzeko hondakina	▶					
		Ipar EH-ko alkatea						
Irrika, guraria	▼	Noblezia titulu	▶ ▼					
Tuberkulu mota		Ahotsaren tonu						
▶		▼						
Sail	▶					Erbioa	▶	
Bakoitzari bi						Ase		
▶				Erregai mota	▶	▼		Non atzizkia
				Atzizkia				
Enborraren mami	▶		Gai itsaskorra	▶ ▼				▼
Iraunarazi			Röntgen					
▶			▼					

LUMA

BILA-BILA 7

Bila itzazu zazpi ezberdintasun bi irudien artean.



SOLUZIOAK

HITZ GEZIDUNAK

N	A	E	N	E	R	R	A	B
A	K	S	I	B		O	R	
	S	A	G		A	N	I	B
R	E		E	I	R	E	S	
A	B	A	R	R	E	T	E	B
S	E	K	R	A	M		D	
A	R	E	I	B				
U	T	E	B	O	H			
Q		D		H				

BILA-BILA 7



AI, ENE!

Etxeko lanak denen artean partekatuta

Lortu beharrekoa etxeko lanak familiako kide guztien artean partekatzea bada, hona hemen txikienek ere laguntzeko modua.
www.nopuedocreer.com

AHOBERO

"Inoiz ez dut ikusi manifestazioetakoa bezain jende zatarrik".

ARTURO FERNANDEZ | AKTOREA

Inguruko tertuliakideen barre algara artean bota zituen aktore asturiarrak hitzok. Hori bai, manifestari *zatarren* aldarrikapenen inguruan ez zuen txintik ere esan. Hain gutxi inporta al zaizkio eskatzen dutenari adi egon beharrean, edertasuna epaitzen hasteko?
Intereconomia

EGURALDIA

Max. 13º
Min. 9º

Apurka eguraldiak negu itxura hartuko du. Euria denean egingo du.
euskalmet.net

ASTELEHENEKOA
goiena
2012-11-26

HAMARREKOA

Asier Gozategi Oriokoak eta haren taldekideek hogei urteko ibilbidea batzen duen *All Stars 1992-2012* diskoa kaleratu berri dute: hamahiru abesti ezagun, baina berriz grabatuta | **TXOMIN MADINA**

"Orain helburua da 60 urtera ere taldea izaten jarraitzea!"

1. Hain ibilbide luzea ez dute euskal talde askok. Zein da sekretua?
Kideek elkar aguantatu eta helburu bat izatea. Hasieran genioen helburua zela hamabost urtera taldea izaten jarraitzea, eta hogei bete ditugu. Orain helburua da 60 urtera ere taldea izaten jarraitzea!

2. Arreba dagoeneko ez duzu taldean. Igartzen duzu faltan?
Bai. 2006an erabaki zuen uztea, eta hasierako taldetik Iñigo eta ni gaude. Arrebak hartzen du parte grabaketetan-eta; ateak zabalik dauzka etorri nahi duenerako.

3. Hainbesteren artean hamahiru kantu aukeratzeak ez dirudi erraza.
Lan zaila izan da, bai! Hasierako laburpenean, 30etik gora aukeratu genituen; azkenean, estilo eta errimo kontuak hartu ditugu aintzat. Denak ditugu kutunak.

4. Nor-nori-nork irakatsi duzue, *Nirekin*-ekin bizkaiera... Euskaltzaindiak egin dizue omenaldirik?
Ez, baina egin beharko liguke! Gipuzkoarrek egindako musika eta letra, bizkaieraz! Jon Maiak idatzi zuen *Nirekin*: hasieran batuan idatzi zuen, eta handik bi egunera, bizkaieraz pasa zigun.

5. Nolakoa da duela hainbeste grabatutako kantuak birgrabatzea?
Sentsazio ona da. Hasierako diskoetako freskotasuna eta inuzentzia ona da, baina gero urteen esperientzia erabiltzen duzu grabazioan. Halere, horrek ez du esan gura abestia politagoa geratuko denik.

AGM

6. Gozategi, Maixa eta Ixiar, Alaitz eta Maider, Etzakit... Biziko du trikitiak horrelako beste garairik?
Formatu horretan irabazi zuen trikitiak nortasuna talde barruan: baxua, gitarra, bateria eta trikia. Egun formatu horretan gu bakarrik aritu arren, trikitiarekin beste gauza batzuk egiten dabiltza: Esne Beltzak reggaea, Gosek elektronika... Zabaldu egin da trikitia.

7. Agertoki gainetik gauza asko ikusiko dituzue. Zelakoak gara euskaldunak ligatzen?
Anekdota bitxiak ditugu; esaterako, erromeria hasieran punta banatan dauden bi pertsonak elkarri nola begiratzen dioten konturatu eta bukatzean batera daudela ikustea. Liga daiteke, bai.

8. Eta dantzan?
Talde askoren jarraitzaileak gara eta euren kontzertuetara joatean konturatu gara jendetsuak izan arren, jendea geldi egoten dela. Gure kontzertuetan, baina, dantza asko egiten da, orokorrean.

9. Nola eroaten da eguneroko lana eta kontzertuak bateratzea?
Nik, ostatua gurea izanda, erraztasun gehiago ditut, baina beste kideek beste lan batzuk dituzte eta ez da posible saio batzuk egitea.

10. Artista eta oriotarra. Hori kolorea, gertu ala urrun hobeto?
Gertu, bihotzean. Oso arraunzalea naiz, eta taldea ondo ikusten dut: dirua sartu da, lana serio egiten dute eta etorkizuna badago.

MAKILA MAGIKOA BANEUKA...

"Euskal Herri librea egingo nuke"

"Bihar arte itxaron gabe gaur bertan egingo nukeena da euskal preso eta iheslari gutziak biziko liratekeen zazpi probintziako Euskal Herri libre eta independentea; nik neuk horrekin amesten dut".

BIHARAMUNA

MARKOS BALENTZIAGA

Krisiaz berriro ere

Krisiaz esan zitezkeen guztiak esanda direla uste duenik izan izango da oraindik; oker dabil baina, halakoa; izan ere, jakin berri dugu, esaterako, funtsean sozioekonomikoa den krisi honetan genetikak ere eragina izan dezakeela.

Hona hemen nola diren gauzak: etologo talde batek jakitera eman berri du gizakiak 50 urteen bueltan izaten duen egonezin existentzialak jatorri genetikoa duela, 50 urteen pareko adinean diren tximinoek ere jasateak argi-argi erakusten duen moduan.

Europako krisiaren kudeatzaile kakatsuenetakoak adintsu horretakoak dira: Raxoi (57), Merkel (54), Lagarde (56), edo Barroso (56). Ez denak, baina: Rato, kasurako.

Nondik nora dabil 63 urte dituen, Bankiaren kudeatzaile inefablea izan eta señaladamente ilustrea den Rato? Abenduaren 20an Auzitegi Nazionalean deklaratu beharko du, auzipetu moduan. Epaileari oraindik ere 50 urteen bueltako krisia gainditu gabe duela esango dio? Ala hori baino ipuin aspergarriagoren bat, Bankiaren hondamendia justifikatzeko? Ipuinak ipuin, epaileak ez du itzalera bidaliko, ez horixe.

Txokolate-jana

azaroaren 30ean (egubakoitza) eta abenduaren 1ean (zapatua)

Hipermerkatuak
EROSKI zurekin
Musakola 11 ARRASATE
Tel.:943 71 10 30
www.grupoeroski.es